

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

X Zenbakia.

1990
Urtarrilla-Epailla

AURKIBIDEA

	Orr.
Euskerarentzako norabideak. A. Urrestarazu.	1-2
Bizkai'ko Euskeraren aurka. M. Olazar.	3-5
Euskal Egutegi ta albistariak. L. Akesolo.	6-11
Euskerazko izenak Erdiaroko idazkeran. B. Latiegi.	12-17
Sortizantz jakintza. M. E. Etxeberri.	18-27
Filosofi gaietarako iztegi txikia. L. Egia.	28-37
Euskerazaintza. B. Madina.	37
A. Urrestarazu'ren Euskal-Eliztiaren aurkezpena. J. Exea.	38-39
B. Latiegi'ren Elizaren Historia eun urtez. A. Arrinda.	40-51
Euskeraz, Euskerazaz... A. Zatarain.	52-54
Lekeitio'ko Arrainzaleak Londres'ko Erakusketan 1883.	55-64
Arozena tar Andoni ii zaigu. J. Gaztañaga (Barruko azaletan)	
Aita Patxi Etxebarria. (Barruko azaletan)	
Gabirel Manterola'ren eungarren urtea. (Atzeko azalean)	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA

C. LARREATEGI 14 - BILBAO

AROZENA'tar ANDONI IL ZAIGU

Arozena ta Gomendio'tar Andoni, Lasarte'n jaio zan 1907'ko Lorailaren 30'ean. Gazterik asi zan euskeraz idazten. Gauza polit asko idatzi zituan bere bizitzan, baiña ez da erraza jakiten zein diran bere idazlanak. Izan ere izenordeko bat eta bi baiño geiago erabiltzen bai-zituan. Auek adibidez: "Andoni Arotzena", "A - Bi".

Eskola-ikasketaz gaiñera, marrazki ta margoizlanetako ikasketak ere egin zituan bai Donosti'ko "Academia Gordon" izenekoan eta Paris'ko A.BrC. ezagunean. Urteak aurrera joanda gero ere esku ona zuan bai idaztekoan eta bai marrazkiak egiteko.

Marrazkiak neurritan ta zuzen egiteko, lanak zeazki egin bearrekoak dira. Beste gauza guztietan ere alaxe jokutzen zuan Andoni'k: itzak eta lerroak txukun neurtuta idazteaz gaiñera, bere eskuarteko gauzak ere egoki ta txukun euki oi zituan.

"ARGIA" euskal-astekarian asi zan idazten 1923'gn urtean. Artaz gaiñera beste toki askotan idatzi zigun: "El Día" ta "Euzkadi" eta "Eguna" egunkarietan, "Euzko Gogo", "Egan", "Eman", "Antzerti" ta "Goiz-Argi" aldizkarietan ere bai beintzat.

Olerkiak aipatuko ditut lenengo: "Lorea ta neskatilla" eta "Andregaiia nai ta..." Baiña batez ere antzerkiak idazteko zuan joera bizia.

Batetik bakar-izketak idatzi zituan: "Txilibitu", "Urteurrena", "Balujan"... Ain zuzen ere 1934'an saritua du "Balujan".

"Zanko ta Paxko" izenekoa, elkar-izketa du eta "Mox, Miss, Xapi" izenekoa berriz, ekitaldi bakarreko antzerkia. Geienak "Antzerti" aldizkarian argitaratu zituan, baiña 1933-36 bitarteko garaietan. Antxe argitaratua bide du "Zorigaitz malkoak" ere.

Ipui bat ere argitaratua du, "Banoa", ain juxtu ere 1960'an "Egan" aldizkarian.

Gudaldikoan Euskalerritik kanpora joan bearrean gertatu zan beste askorekin batera. Zuzenean Karakas uriburura joan zan bere emaztearekin, —ezkonberritan ain juxtu ere— eta an egin zituan berroegi urte aundi. Eta ez alperrik, noski. Gaztetan "arkitekto" ikasketak egiten ibillia zan, burutzerik izan ez ba'zuan ere. Argizko iragarkiak egiten irabazi zuan ogia bere sendiarentzat.

Abertzale sutsu zanez, lanik aski egin zuan Ameriketa'ko lurralde zabal aietan ere euskeraren alde. "Euzko-Etxea" izenekoan biltzen ziran euskaldunak eta aien ondorengoak. Batez ere "ondorengoei" irakatsi zien euskeraz mintzatzen. Asko ziran ederki ikasi zutenak.

Azken azaleko barrualdean jarraitzen du.

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



EUZKERA'RENTZAKO NORABIDEAK

Ba-dakigu, ongi, gaurko ontan euzkotaf guztien artean asko ta asko arí dirala euzkera gure izkuntza au ikasten, laguntzen eta gure eh, un ta erkietan bama alik eta geyenik zabaltzeko alegiñetan. Orixe egiazko xede edef eta bikaña, alde guztietatik indartu ta edatu bea -izango litzakena. Ain zuzen euzkotaf batzuenak bakafik osoan dagokio, bere biziarena baita; beraz Eh au osotzen dugun guziona be izan bea da

Bai, noski, euzkaldun guzientzako elburu nagusia, gure Efi onen biziari eustekoa dugu. Nor, gure artean, gure Efi maite ez duena?; nor bera ta bere biziaren alde alegin aundienak betetzeko gerturik ez dagoena? Zalantzik ez, iñor ez!, erantzuteko. Nola? galdetzen badugu, aítzitik, ba-líteke guziok batera ez etortzea; jakiña, iritziak ezberdiñak dira, ta bakoitzak berarena artzen du norabideak onartzeko. Alaz ere, ona izango litzake ororentzat bat bederen aurkítzea ta jafaitzea.

Baña ba al dago ororen elburako norabide egoki bat? Bai, ezpaírik gabe, badago bat, egokiena, beafena geron ustez, euzkerarena alegia; euzkera euzkalgogoari eutsi al dakioken bide bakafa izanik, euzkera gabe Euzkalefi'rik benetan ulerkaitza dalako. Beraz, ao batez, euzkera gure El'aren bizirako bide ta norabidea dala aitortu bea da. Ezpaitago beste biderik ez eta beste norabiderik e relburu on bete al-izateko.

Ofengatik, pozez beterik begiratu bea dugu gaur Euzkadi osoan euzkeraren alde lanegiteko dagoen yorana Baña ori ez da naíkoa, yoran orí laguntzeko ta ondienik ustiatu al-izateko, ezinbestekoa ízango zaígu berari ta euzkeraren alde egin bea dan guzian norabide egokienak be ematea, ots, euzkerari berari beafezkoak izango zaizkion norabideak eskeintzea.

Zer egin ordea, ortarako? Eziña zaigu, jakiña, ofi buruzko gure asmoa itz batean agertzea; ebazkizuna ez da zuzentzeko efeza, ta ofezaz dagozen iritziak ere ez dira gutxi. Eman dezagun gurea.

Geron ustez, lenengoz, euzkera bera dan bezela artu bea da Ba-dirudi ori esatea pellokeria dala, asmoa ain argi ta garbia dalarik. Baña, alaz ere, bea a deritzaigu ori esatea, euzkera ikutzeko gogoa, gurean, safi agertzen dalako. Euzkerak ba-du bere joskera, ba-du bere jokera, ba-du bere ízakera, ta guzión aldetik eztítugu ofelakoak iñoiz aitzu bea . Euzkerak ezta bere tasun oyen bama ezertan amor-egin bea ; geu gera euzkerari amor-egin bea diogunok, beti bera dan bezaia erabiltzeko xedeaz.

Euzkerak dituen tasun oyen artean, auxe da bat, askotan eta maíz aipatu ta goratua izan dana: itz-eratomena ta itz-alkarmena. Lenengoa atzikí ugarien bidez betetzen da; bigatena itzak e az alkartzearen bitartez. Gure izen-jokoaz lenengoa egoki egiten da era oso zabalean; eta euzkeran bertan dauzkagun

aspaldiko itzak, efuz, egokiro eratuak agertzen zaizkigu. Ta bígafen bide ofi buruz, eman dezagun egiztabide au: "Landa" gure efi baten izena dana, oso ezaguna, ta izen ori bera amaika abizenak eta tokien izenak eratzeko izan da aspaldi-aspaldidanik eta oso egokia dan eraz gurean. Esate baterako: Landazabal, Landazabalaga, Landazabaleta, Landaluze, Landazuri, Landaburu, Lande, Landeta, ...; ofa oso ezagunak ditugun abizenak, beren esan-naya argi-argí ematen dutenak. Eta tokí-izenak be amaíkatxo: Landazaf (Mendoza'n), Agi e-landa (Zadofa ondoan), Landabafi, Landabaso, Landabea, Landabefí, Landabidea, Landako, Landatxu, Landaegi, landagofi, ..., ta beste ainbeste: IbafeKolanda, Irulandeta, Etxalandafeta, Goikolanda, ...; auetan "landa" itza, eraturakoaren atzean doalarik.

Izen guzti oyetan "landa" itza agertzen da, beste batzuekín beste itzak eratzeko, ta berdin itz auek asteko naiz amaítzeko. Ta itz oyen antzera, beste asko ta asko ikus genítzake, abizenetan eta tokien izenetan, abizenak asieran, geyenetan, toki-izenak ere izan diralarik.

Argi agertzen da of, beraz, euzkerak itz befiak egíteko duen efaztasuna, ta egokitasuna be, geuk ere erabili dítzakegun egokítasun eta efeztasuna. Esate baterako: ortxe dugu Foronda'n eta ofelako beste tokietan, egazkíñak luferatzeko ta lufetík igoteko ongi antondua dagoen landa; ta landa ofi euzkal-ízena eman dizayokegu egokiro onela: EGALANDA (egan + landa), ots, egan egíteko landaren zentzu berezienaz.

Itz ori bezelako asko ta aunitz eratu al eta beaf-izango ditugu, euzkeraz bea a izango zayon zabaltasuna emateko; ta bidezkoa izango da beti euzkerak berak ortarako ematen digun bidea erabiltzea, euzkera alde ta aldi guztietan bera dan bezela onartzean. Ezínbestekoa deritzaigu bíde ortan bertan ari-izatea, edozein erdal-itzala baztertzean.

Noski, euzkera euzkal-itzen bidez egíña dago, ofa beste pellokeria; esan beaf-izango al litzake ori?; eta erdal-itzen bidez erdera da bakafik egiten dana; alakotz, euzkerari eusteko lenengoak dira erabili bea ditugunak, bea a zayon indafa emateko ta euzkal-gogoari obeto eutsi al dizayokegun.

Orixe be iñoiz aitzu bea eztana: onela, euzkal-bizia, euzkal-gogoáz elikatua izango dugu, ta euzkal-gogoari euzkera da bakafik eutsi al-izango diona. Oien-gatik, argi dago euzkera gero ta geyago erabili bea dugula, euzkal-gogoa zaíndu ta sendotzeko, ta ofela gure Efi'aren biziari ongi ta egokienik eutsi al-ízateko.

Asmo auek baitezpadakoak dira, ene ustez, lan on eta egokia burutu al-izateko, ta norabide zuzena bezela eskeintzen ditut gogoz. Araudiari eskef, aukerakoa dugu oraingo aldia gure ízkuntza ta gure Efi'ari dagokiena egin eta burutzeko; tamalga ía izango litzake gure arazo guztíetarako bea ak díran norabide onak ez aurkitzea, batez ere euzkeraz dagokionean. Alakotz, guziok alegíñak egin bea ditugu norabide onenak aurkítzeko, guziok alkaf laguntzean.

Lan, geyenetan, zabarkeri izugafia izan zan euzkerarekiko arazoetan, gure Efi'aren akats aundia bezela begíra dezakegunez. Bidezkoa da beti gizon baten-tzat, egín al-izan dituen okefak zuzentzea, ta ez al da berdin izango Efi batentzat ere beste ainbeste egitea? Ezinbestekoa deritzaigu ori egitea, gurean oke ak zeintzuk izan diran ondo ikustean, apalik aitortzeko ta kemen aundienaz zuzentzeko.

U estarazu'tat Andoni



BIZKAIKO EUSKEREAREN AURKA (Eguna, 1989-12.28)

Bizkai'tarrak Bizkai'ko euskerearen aurka idaztea, benetako zentzunbakokeria dala baieztu-bearrik ez dagoala uste dot. Eta orixe da Eguna'n joan dan abenduaren 28'an idatzi zan lan baten argi ikusten dana. Zenbat diran, Bizkai'tarrak izan eta gutzat zapaltzaille ta iltzaille dan euskera barri baten idazten daben idazleak! Benetako zori txarra izan dogu arlo orretan bizkaitarrok.

Idazle orrek asieratik argi agertzen dau nortzuk diran burubakoak: elertirako batua bearrezkoa dala ukatzen dabenak.

Ezagutu dodaz nik burudunak diran gizonak, edo idazle onek beintzat buruduntzat daukazenak, esaterako Koldo Mitxelena, batua ez dala elertirako esan dabenak. Buruduna ta burubakoa nortzuk diran jakitea ez da ain erreza, antza dagoanez.



Euskalerrri osorako ain bearrezkoa dogun batua, diño idazleak. Baiña Euskalerrri osoak bearrezkoagoa dau euskalkiak ondo ezagutzea, batua baiño. Euskalkiak il ezkeru, batua bizi izan arren, euskerea antxiña ain zabala izan zan latifiñaren antzekoa litzake. Eta euskalkiak bizi izan ezkeru, batua galdu arren erriaren izkuntza izango litzake.

Ez dago zalantzarik. Euskalkiak zaintzea ta indartzea bearrago dogu batua indartzea baiño.



Guztiok ikusten ei dogu goi-maillako irakaskintzan, administraziñoan, komunikabide nagusietan eta elertian, literaturan, nai ta naiezkoa dala batua.

Nik ez dot ain bearrezkoa danik ikusten.

Goi-maillako arlo orretan ondo alkar ulertzen dogu, bakoitxak bere euskalkia ondo jakin ezkeru. Bizkaierea ondo dakianak ez dauko ezelako eragozpenik gipuzkera ulertzeko, eta bardin alderantziz. Ori egunero ikusten dogun gauzea da eta ori orrelan izanik, oraintsu batuaren sortzailetariko batek esan dauan lez, batuak ez dau ezertarako balio.

Gero beste au diño idazleak: Batzuk ume txikientzat eta erri txikietarako euskalkia erabilli bear dala diño.

Guk ori baiño geiago naf dogu euskera biziarentzat. Euskalkiak mailla eta toki guztietan iraun bear dabe bizirik eta erabilli egin bear dira. Or argi ikusten da euskera biziarentzat batua eragozpena baiño besterik ez dala.

Gaiñera, gure idazle au euskeraz berba egiten dauan erri baten bízi ba'litz, laster konturatuko litzake erri-maillako euskeran zelako kalteak egin dauzan batuak: Umeak batuz berba egiten eta gurasoak ori ulertzeko eragozpen aundiakaz, eta azkenean guztiak erderaz berba egíten. Ezagutzen dodaz sendí batzuk urteetan gurasoak euskeraz egin eta seme-alabak erderaz erantzuten dabela, eta dana eskolatík dakarren euskera ori egítera ausartzen ez díralako.

• • •

Euskera batua edozeín euskaldun normalek ulertu leikela diño, baíña orretarako iztegi eta joskera egokiak erabilli bear dirala.

Zori txarrez, batuzaleak sarrítan erabilten dabezán joskerea ta íztegia ez dira jatorrak ízaten. Iztegiari buruz, esaterako, sarrítan entzun dogu eta euskaldun jatorrak, euskerea ondo dakienak, esanda, batuaren iztegia ulertzeko España'ko ta France'ko iztegiak erabillí bear dirala.

Dana dala, batuari buruz diñoan orrek beste edozeín euskalkitarako be balío dau: Gípuzkoeraren iztegia ta joskerea jakin ezkeru, Bizkai'tarrak ulertzen dabe eta antzera alderantziz.

Orduan zertarako bear da batua?

- - -

Bere errikide batzuren setakeria salatzen dau idazleak. Onetan dago setakería: Bizkai'tar batzuk batuz berba egiten dabenean Bizkai'ko euskalkiaren berbak sartzen dabezela.

Norberaren euskalkiaren berbak sartzea, gauza guztiz egokia da eta euskerea aberastuteko bídea.

Eta beste au be esan-bearrekoa da: Galtzeko arrískuan dagoan norberaren euskerea alde batera itzi eta batua deritxon beste euskera bat artzen dauana ta darabillena, saltzaillea "traidorea" dala. Zori txarrez ba-daukaguz olako asko gure Bizkaia'n.

• • •

Sartu gaitezán idazle onek aitatzen dauan idazkerara, ortografiaren arazora. Bizkaíeraz idazten dogunok, batuaren idazkera erabilli bear ei dogu.

Aurkeztu jakun batu ori onartzen ez dogun ezkeru, gitxiago onartzen dogu idazkera ori. Gure idazkera, ortografia, euskereak aspaldion izán dauana da, oso egokía eta erreza. Batua sortzeko a rlo onetan egin diran aldakuntzak benetan okerrak dira, edozein izkuntzalarik alboratuko leukezenak. Gaiñera, une arrisku-tsu baten aurkitzen dan euskereari gaiztasun barriak ezarten dautsoz. Izkuntza guztiak kenduko leukee "h" erabilte ori, eta batzuk kendu be egin dabe, erreztasuna lortzearren, eta gure batu-zaleak, kendu bear litzaken sasoián sartu egin dauskue eta geu be beartu egin gura gaitue idazkera ori artzera, euskereari kalte izugarria egitera.

Zati beratan sartzen da idazlea iztegiako arazo batzutara: "Líburua, kafea ta gorputza" erabilli bear el dira eta ez "idaztia, akeita ta soiña". Gure agintarítxu oneik ez dauskue orretarako askatasunik be ízten. Iru itz oneik Euskalerrián zabaldua dagoz eta ulertzen dira. Goazen aurrera nai dauanak bata eta nai dauanak beste erabilliz, gure gramatika, araudia baiño geiago, erriaren jokerak batzea dala.

Ez ei da "dauz" iñoz be erabilli bear, beti "ditu" Eta orretan Bilbo'ko Erri-Irriatiaren jokarea salatzen dau.

Bizkaí'rik geienean "dauz" erabilten edo ezagutzen da, Gípuzkoa'ko mugatik urrean dagozan errietan izán ezik. Zergaitík alboratu bear dogu ba aditz-joko ori? Zergaitík bíak ez erabillí bakoitxak nai dauan lez? "Dauz" ez da arrarua ta uler-gaitza Bízkaia'n eta ori diñoana ez da sarrítan sartu Bizkai'ko errietara.

"Zoriondu" itza be saltzen dau Errí-Irratian erabilten dala esanez.

Euskereak erreztasun aundia dauka itz barriak sortzeko, eta itz barri orreik egokiak eta ulerterrezak izaten dira. Bat auxe berau. "Zorionak emon" esan barik "zoriondu" esatea, itzaren esan-naia zabaltzea da, baiña ez dot uste txarto dagoanik. Errez ulertzen da gaiñera.

• • •

Bai "dauz"en arazoan eta geiago oraindiño "eroan dautso" non arraio esaten dan itauntzen dauanean, idazleak ondo agertzen dau, bizkaieraz berba egíten dabenakaz artu-emon gitxi daukala. Bizkaian "eroantso" esaten da eta "dautso" ala "deutso" dan gramatíkalarien arazoa da. Nik neuk "dautso" dala uste dot, "dau" dan antzera eta "deutso" aboskería dala, "gaur" en orde "geur" esaten dan antzera esana.

• - -

Eleiz-eskola ezagun baten setakeriak dirala orreik, salatzeo beartuta aurkitzen da idazlea.

Eskola orretan, eta ez dakit zein eskola izan leiteken, gramatíkaratze txiki orreik salatu-bearra ba'dago, zer salatu bearko gendu "batua"ren eskolan? Ondo ete dago astoak zaldiari "belarri-aundi" esatea?

• • •

Azkenez "nazio" batuaren adierazgarri dan izkuntza batua aitatzen da, sendotu bear dan batua, besteen zentzunbakokeriak, alkar-lanerako gogorik-eza.

Laterri batua ta izkuntza batua bikote ori ezagun jaku. España'k bere Aginterría sortzeko gaztelerea artu ebanean Lebríja'k esandako berbak eurak dira. Gaztelerearen lenengo gramatíkaren sarreran aurkitzen dira. Lebríja'k izkuntza batuaren bidez "Inperioa" sortzeko bideak zabaldu nai ebazan, baiña guk nai doguna geure euskera osoa ando ezagutu eta geure izkuntzaz ondo alkar ulertzea da. Erría alkartzen dan neurrian alkartuko dira euskalkiak be. Errí batuak izkuntza batua izango dau. Orren ezaugarriak orain be ikusten doguz. Euskera batua egiten diardu erriak berak. Ez dagigun estutu sasoa baiño lenago egin dagian. Landareak bere aldia bear dau azteko (Menendez Pidal'ek GERNIKA'n 1927'an).

• - -

Azkenez, alkar-lanerako gogorik-eza agertzen da.


Idazle onek alkar-lanerako gogorik ez daukenak nortzuk diran jakin nai ba'leu, naikoa leuke 1978'an Bergara'n euskerari buruz izan zan batzarra aztertzea. Batua sortu zanetik 10n. urtea zan. Batzar aretan argi agertu zan alkar-lana egiteko gogoa ta bide bakarra, baiña argiago batzarra eratu ebenen "setakeria". Batzuk ziran an lanerako eskubidea eukenak eta besteak lan egitekotan, ezarrita egozan arauetara makurtzea baiño beste biderik ez eben. Ori ete da alkar-lana?

Ondorena guztiok dakigu zein izan zan: EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIA sortu-bearra.

• • •

Bizkaieraa dagoan egoera larrían egon eta iperbizkaieraa aitatzen dauan idazleak, batutzaleak egiten dabezan triskantzak ikusi eta bizkaierearen alde egiten diran aldakuntza txikiak salatzen dauzan idazlea edo itsua da edo ez dau ikusi gura.

OLAZAR'tar Martin'ek



EUSKAL - EGUTEGIRIK ZARRENA *

Urte barrian sartu barri gara; ta nor ezta ibili egutegiren baten yaube egin gurarik, edo nori ezteutsoe olango orma-apaingarriren bat opetu? Iya eztagu egutegi barik biziten: erloyuak bear doguz, orduen goraberea yakiteko; egutegiak nai doguz gure etxebarru ta lantegietako ormetan, egunen igesa geure begiakoz ikusteko.

Aukerea daukagu, gañera, eurokaz; tayu ta yaza guztietakoak eskintzen deus- kuez: batzuk, eguneko orri bana kentzekoak; beste batzuk, Hiero orri bana dau- kenak; beste batzuk, ostera, liburu-antzean irakurri ta osorik gordetakoak.

Noizik onakoa dogu gure artean egutegia? Itaun oni erantzuteko eztoгу ain- tzat artuko ez Leizarragak bere aldian, amaseigarren gizaldian, atera eban "Kalendrera", ezta arrezkero elex-liburu batzuetan iñoz agertu dan egutegirik; Leizarragarenak eta oneik besteok oraingo egutegien antz andirik eztauke.

Bizkayan zarrentzat 1859'garrenean egiñikoa ixentau eban Julio Urkijok: orain eun da amalau urte (1848) asi zan Etxeberri abadea bere egunari edo almanaka ateraten; berau egon da euskerazko egutegietan zarrentzat askoren ustein.

Gitxiak yakin dabe, iñok bai?, Bizkaian eta bai Euskalerra osoan, Bilbo'n arabar batek egiñikoa dala euskerazko egutegirik zarrena. Gitxiak dakie, barriz, euskal- dun andi au Okendo'ko semea. Arabarra zanik. Okendo'n yayoa dogu berau, 1775'garren urtean; Abando'n il zan 1847'n. Abando'n aberesendatzalle (albaite- ru) eta zaldi-erazle izen andiko izan zan; bertako agintari (bigarren alkate antze- ko) bere bai lau aldiz. Bizkayan ezaupide ta adiskide andiak zituen; Gernika'ko batzarretan bere iru bider batu zan Bizka'ko gizon eta agintaririk nausienakaz.

Baña, batez bere, euskaltzale gartsu eta euskaldunik zindoenetarikoa izan gendun berau. Munduko izkuntzetan euskerea langorik etzan beretzako; berak zeruko berbetea deritxo euskereari. Entzun zelan diñoskun bertso oneitan:

Gure euskera maite,
jakintsu ezta
da zeruko berbia
ta zeruti otorria.

Ikusi daigun, ba, zelan sortu zan bere egutegia, euskerazko lenengo egutegi ori. Bein euskera zala ta etzala, eztabaidea sortu zan bera ta kanpotik etorriko

* Jesus'en Biotzaren Deya (1962. 17.zenb.) 23-24: *Axmutil* izenpena. Izen au L Akeso- lo jaio zan Oba auzoganeke atx-txuntxurra da.

erdaldun baten artean. Erdaldun orrentzat euskerea etzan ezetako gauza, egutegitxo bat egiteko bere ez. Ezetz?, erantzuten deutso Ulibarrik; zortzi egun barru bayetz bat neuk egin. Zer gurozu yokatu "Sillututeko" lanak, irarteko gastuak ordaintzeko gertu zagoz? —Bayetz— diño erdaldunak. Ulibarrík, geyagoko barik, eldu deutso bere lanarí, eta arik egun gitxi barru eginda egoan egutegia.

Ona bere izena: "Euskerazko egunaria erderazkotik itzuliya Bizkaia, Guipuzkoa eta Araba'ko probintziarentzat 1815'garren urterako. Bilbaon".

Erdaldunak ez eutson bere berbeari eutsí; egíñíko zor guztia garbítzeko ardu-rea Ulibarr'r itxirik, Abando-inguruetatik alde egin eban, erbestera yoan zan atzera: Oviedo'ra, lenengo, ta andik gero Ingalterra'ra. Ulibarrík bere "bolsie edo zizkue" ustu bearra izan eban, zorrari berak bakarrik erantzun eutson. Orrexek atzeraturik, urrengo urtetan, Naporroatik eta be eske asko izan arren, ez eban egutegi barririk atera.

Orra noz ta zelan sortu zan gure lenengoko egutegia, beste ezagun doguzanak baño gítxienez ogeta amairu urte zarragoa ta lenagokoa.

Bere Egilea: Yose Paulo Ulibarri.

Araba'ko semea.

Okendo'n 1775'n yayo ta Abando'n 1847'n il zana.

Orain direala eun da berrogeta zazpi urte egin eban bere egutegia edo egunaria.

Urte barri onen asíkeran gogoratu daigun maitez bere izena.

ALBISTARIEN SORRERA (Euskalzale, 1897·7899) *

Ezin geinkez larregi arrotu. Ezin geinke esan euskerazko albistariak (astekari naiz osteango aldizkariak) oiartzun andirik, entzute andirik daukenik munduan.

Nekez bizi, irakurle gitxi batzuk nekez euki, eta, orrez ganera, ixiltasuna, aintzat-eza inguruan.

Urte bete da liburu bat agertu zala, Euskalerrian gizaldi onetan izan diran aldizkarién barria emon gurarik. Euskalerriko aldizkaritzaren atsegin-atsekabeak azaldu nai zituen. Eta euskerazko aldizkarién izenik be ez ekarren. Euskera utsezko bateník be ez gero.

Euki, guztitarikoak euki izan doguz: asterokoak, illerokoak eta egunerokoa be bai bat, EGUNA, bost illabeteko bízia gitxienez izan ebana. 1937'n, bagil erdirarte.

Esan dodan liburuan, ez onen ez besteen aitametik ez dugu aurkitzen. Euskera-erderazkoak batzuk, bizi laburrekoak izan arren, luze ta zeatz aitatzen ditu; euskera utsezkorík bat bera be ez.

Bizkaia aurrelari

Bizkaia izan da emen euskal-albistaritzan aurrelari. 1897' sortuko zan EUSKALZALE.

Bidasoaz andiko euskaldunak ba-euken ordurako eurena, ESQUALDUNA ize-nea, eta izen batez edo bestez, gaurko egunotararte izan dau jarraitzaillerik.

* Zer (1979, 17. zenb) 8-9.

Iparraldeko euskaldunak doguzalakoak, beste gauza askotan lez, emen be aurrelari izan doguz. Gu baiño lenago itxartu eta jagiak dira.

Bakotxarí berea. Eta bakotxarí berea emotea besterik ezta, nire ustez, emetikaldean aurrelari, Bizkaia izan dogula esatea.

Azkue zanaren lana

Azkue andiarí zor deutsogu. Azkue, irardausi andiko gizona, egin eta eragítekoa. Nora ezta elduko aren eskua? Non ezta agertuko aren bultzakadea? Abadelana, irakasle-lana, azterketa-lana, musika ta antzerti-artoa, zer eztau aurrean eroango?

Lenengoko baten, Arana Goiri lagun, *La Abeja* aldízkaria sortzen dau. Arana'k erderaz eta Azkue'k euskeraz diardue. Laster banandu dira eta bion aldízkaria errekará doa.

Arana Goiri'k, euskerarako sustrai sendo biziagorik euki izan baleu, berak aterako eban, bai, euskera utsezko aldízkaria be. Zer izan bear eban nafago? Baiña bera zan lango euskaldun barri batentzat, aldatz-goregi egoan egíteko orí. Erdera be bearrezko eban inguru erdaldundua euskalzaletuteko.

Bestelakoa gendun Azkue. Euskera bizi-bizia, iturrítik arakoa, erion. Eta beronek sortuta, orra non agertzen dan, 1897'ko urtarrillaren iruan, EUSKALZALE. Eta ona asteroko onen asmo batzuk:

"Izen onegaz astean-astean urtego dau argitara zortzi orrialdedun paper batek... Erderazko gauzarik ezta agertuko, guztia izango da euskeraz egiña... eta arduratsuená. Baita arímako egi egokiak bere, aleginez erakutsiko doguz. Ganera, ipuiñak, asmoak, ikusi-makusiak, Euskalerríko eta erdalerrietako albistak eta jazoerak; eta, noizean bein, *zirt-zart*, moduz ta polito, bear dabenari emotea bere izan leíke".

Lenengoko geia, zenbakia, esku batek egiña da, Azkuek bakarrik. Urrengoetan esku asko agertuko dirala iragarten dau.

Euskalzale-ko idazleak

Esan bearrik ete dago? Astekari au, geiena, Azkue beraren eskutíkoa da. Azkue gaztearen euskerarik biziena, beroena, zantsu eta giartsuena an daukagu.

Bein izen barik, beín ezizenen bat edo besteagaz (musika danean, Azkue, erraitío), berak emoten deutso bízitasuník andiena asterokoari. Azkue-ren ango lanakaz, gero, liburu bi agertu díra: TXIRRISTADAK, bata, eta bestea, oraintsukoá, *Ipuiñak* izenekoa.

Baiña Azkue eztago bakarrik. Orduko euskaltzale eta idazlerík entzutetsuenak ditu laguntzaille. D. Agirre, Arrese Beitia, E. Arrese, Etxegarai anai biak, 'narra, Artola, Alfonso Zabala, Antia, Urruzuno, Gerra, Mokoroa, Zamarrípa eta abar... Antxe asi zan Kirikiño be idazten.

Idazle zarrentzat be bada lekua: Kardaberaz, Mogeldarrak, Uriarte, 1596-ko esaera zarrak. Antxe ezaguerazo eban Azkue'k Barrutia aramaioarraren Gabon *Gaberako Ikuskizuna*.

Atsekabezko egunak eta eriotzea

Iru urtez zorionezko bidaldia daroa "EUSKALZALEK", edo, beintzat, oker andi bakoa. Eta gitxien uste zanean, bapatean, sekulako palustadea! Astean astean kalera zintzo zintzo etorrrena, 1899'ko iraillean amabost egun egin ditu urten barik.

Zer jazo da? BÍlboko Gobemadore jaunak bere eskuak ezarri deutoz ganera.

Zer dala-ta? "Por no haber llenado cie ros requisitos de la vÍgente Ley de Im-prenta" el diño.

Artikulu orrek edo lege orrek zer agintzen eban? Aldizkari bakotxaren artezkariak, argitara urtetaldi bakotxeko, íru ale aurkeztu bearko zituela, berak izenpetu-ta, Probintzi bakotxeko Gobemadorea-renean.

Zer zan Azkue'k egiten ebana?

Iru barik, gitxiágo aurkeztu, ala beranduágo aurkeztu, ala bapez aurkeztu?

"EUSKALZALE" k eztau argitasunik emon.

Legea barri samarra zan, eta, bear bada, ez eutsen oraíndío jaramon andirík egiten. Bear bada, Gobemadoreak berak be ez eban orduxerarte asteroko onen ezelango barrirík eukí, eta baten salakuntzatík jakin eban lenengokoz.

Bai, emen baten asarre samar ebillan alkatetxoen bat, astekari orretan, "moduz ta polito polito", zirt-zartekoen bat artu ebalako. Eta Gobemadoreak eun pesetako (eun makurreko) multea ezarri deuto "EUSKALZALE"ri.

Euskera ta erdera

Eta ori naíkoa ez zala, beste agintekeri bat, gobernadorekeri bat egiten dau. Euskera utsean agertzen asteroko orri galazo, euskeraz idazten zana erderaz be ípiñiázo.

Orregaitik urrengo zenbakia, amabost egun geroagokoa, bietara agertuko da, euskeraz eta erderaz, euskerazkoa erdaraturik. Eta, olantxe, andik aurrera, urtea amaitu arte.

Gobemadoreak ez eban iragarri legearen zein artikuluk eskubidea emonik agintzen eban ori. Bere kolkotik atera eban, antza, erabagi ori, bere barruko borondate txarretik, euskereari eta euskaldunai eutsen amorrutik.

Aitatu barik, zigorra

Andía da, orraitío! Euskalerriko aldízkaríen barri emon naí danean, euskerazko aldízkaríak ezтира aintzat artzen, diranik be ezta aitatuten, eztabe izaterík. Baiña eskua ezarri nai jakenean, zigorra emon nai deutesenean, dagozan legeak ezтира naiko eta Gobemadoreak bereak asmauko ditu, zigorra gogorrágo egiteko.

Euskereak agíntaríen aldetik eztauála eragozpenik eta gogorkerirík izan diñoe- nentzat, emen dakargu Bízkaia'n lenengo euskerazko astekari oni jazoa.

Atsekabe mingarri onetan, orraitío, pozgarritxo bat be izan eban Azkue'k, aste- karíaren artezkariak: multearen zo rra omiduteko, laguntasuna eskatu eutsen ira- kurleai, baiña errealetik gora ez eban íñok emon bear.

Zergaitik?

"Izen geiagok lekua izan daien".

Laster agertu ziran seireun inguru emoille, 10, 15, 20 eta 25 zentimoko esku- pekoakaz.

Euren artean izan ospetsu asko; Franzisko Iturribarria, Alfredo Rochelt, Mian- golarra, Tomas Meabe, D. Agirre, Arrese Beitía, Urruzuno, Bustinza... Bidasoaz bestaldetik be bai: Julien Heguy eta abar.

Elrotzea

Pozgarri izan zan irakurleen erantzuna. Baiña "EUSKALZALE" k ez eukan olan bizitzerik. Urtea amaitu arte, arpidedunakaz zorrak garbitzeko aurrera jarraitu eban, euskeraz eta erderaz gauza bera emonaz.

Baíña non zan, non gelditzen zan asieran asana: "Guztia izango da euskeraz egiña"?

Lotsari andiegia, baltzegia zan euskal-aldizkariari egiten jakona. Egoak ausita gelditzen jakozan; lumak jausita gelditzen jakezan idazleai be. "Baretaldía etorri arte itxaron" egín bear zala iñoan batek. Etzan agertu baretaldi ori.

Idazle askoren lanak moztu bearrean aurketzen zan iñoz artezkaria. Onan iño-tson bati: "Urrengo berba guztíai kurutzeta egingo leuskioe *norbaitek, eta* naiago dogu aurretiaz berbok kendu".

Egoera gogorra! Olan ezin zeítekean jarraitu ta ez eban jarraituko. Eta urrengo urtean ixillik, ilda gelditu zan astekaria.

Urte bi geroago, gauzak obero egínda egozan, nonbait. Eta Azkue'k berak, astekari barri bat aterako eban, *Ibaizabal* izenekoa. Ez eban luzaro iraun, urte bi.

Azkue orduantxe asi zan bere Iztegi nausia argitaratzeko lanetan, atzerrían aín zuzen. Andik, ain urríñetík ezin eutsi emengo astekariaren biziari, ezin geiago **iraunazo**.

Nik eztakit esker onik erakutsi jakon Azkue'ri eta merezi dauan añako autor-menik egin izan jaken berak sortutako astekari bioi.

Erdaldunak ez eze, euskaldunok aitzuegi daukaguzala-ta nago. Esker obea zor deutsegula uste dot. Eurak ez ete dira izan geroagoko astekariaren amama zarrak, ainbesteko oiñaze eta erdi-miñen artean Bidasoaz onantzako euskal-albistariari sorrera emonak?

IBAIZABAL *

(Asteroko orri albistaria: 1902-1903)

"Gure euskera maíteak albistari edo períodiku bakartxo bat ez eukiteak minduten izan dauz euskeldun zintzo askoren biotzak. Eta minduteko gauzea da, izan be, Europa guztiko izkuntzatan albistariak ikustea, geu bakarrík gareala aínba-koak".

Samintasuna ta lotsaria erakusten eben berba onek aurrean zituela, asi zan agertzen an, gizaldi onen asieran, 1902garren urtean, euskerazko albistari bat, asterokoa: IBAIZABAL izenekoa. Ez zan lenengoa: urte bi lenago ixildu-bearra izan eban "EUSKALZALE" zanaren jarraitzaille etorren. Azkue abadeak eta beronen lagunak luze eritxi eutsen, luzeegi, urte biko íxilaldiarí. Eta orra non datozen barríro lengo kemen eta asmoak dabezala... Al daben giñoan, euskereari eutsi, euskerea bizkortu, garbitu, apaindu, aberastu, zabaldu: orixe egiteko datoz. Azkue bera, bere Iztegi andia aterateko buruauste eta neketan sartuta dabil. Eta lagun bat artu dau ordezko, eta albistari barriaren zuzendari: Kirikiño Mañariarra, Bilboko Eskola nagusian, Institutoan, euskera irakasteko ordezko jarrita daukana.

Euskera utsezko lenengoko albistarlak

EUSKALZALE eta IBAIZABAL euskera utsez agertu izan diran lenengoko Albistariak dira. Lenago, bein, ZER onen orrietan esan genduana ez da bete betean egia. Zer esan genduan orduan? Bidasoaz andiko euskaldunak izan doguzala onetan aurrelari. Egía da, bai, an agertu zala lenengoz euskera utsezko aldizkari bat, urtekaria, baiña erderatik artua, eta Mixioetako barri emoteko baka-

rrik. Egía da an euki ebela euskaldunak albistari bat, asterokoa, oraingo HERRIA astekariaren ama edo amamatzat jo geínkena; baiña ez etorren, oraíngo ez datorren lez, euskera utsean; beti ekarren frantzes apur bat, gaurko HERRIAK be ekarten dauan lez. EUSKALZALE eta IBAIZABAL-ek euskera utsa erabili eben. Orretan, ez Lapurdi, Bizkaia izan da aurrelari.

Bizkaieraz eta Gipuzkeraz

IBAIZABAL (EUSKALZALE be baí) Bizkaian sortua da, baiña ez Bizkaiko euskaldunentzat bakarrik, Gipuzkoaldekoentzat be baí. Lenengo orrian esaten da ori argi eta garbi. Bizkaiko nai Gipuzkoako idazleentzat zabalik daukaz ateak. Bidasoz andikoen lanik agertzen badau, emendiko euskerara aldatuta ekarríko dítu...

Idazleak

Idazle nausi biak, albistariaren buru eta zuzendari egiten dabenak, Bustintza (Kirikiño) eta Azkue díra. Lanik geíena bion eskuetan dago, batez be Kirikiñoren eskuetan. Eta biak, bakotzak bere ezízena darabille: Kirikiñok BLOA (Bustintza, Lasuen, Olaso, Agirre), eta Azkuek EKETA (Ni-neu, edo erdaldunen MENDA itzaren kidea). Onen urrengo idazle-pilloa dator: Bizkaitik, Zamarripa, Gorgonio Erreterria, D. Agirre Arrese Beitia, Enbeita anaiak (Orduko Pedro eta Manuel), eta abar. Gipuzkoatik, Urruzuno, Emeterio Arrese, Elizetxea, B. Etxegarai eta abar.

Berarizko aitamena

Idazleotatik aparteko aitamena egingo neuke ník birentzat: Arrese Beitia eta Manu Enbeitarentzat. Arrese Beitiaren aitamena zergaitik? Arana Goiri il zanean argitaratu eban olerkia dala-ta. IBAIZABAL-ek ez eban eriotz ori ixilpean itxi. Kirikiñoren lumatik bere naibage sentikor barru-barrutíkoa agertu eban, eta illak etorkízunean Euskalerrían gero ta izen andíagoa irabaziko ebala iragarri.

Arrese Beitia, orduan, ez zan geldítu bere lira aberatsari soiñurik beteenak atera barik. "Amatau da gure Eguzkia", olerki orren tituluak naikoa díño. Olerki ori, eta beste bat, Arana Goiri goratzeko beste aldizkari baten agertua, iñork ez ditu Arrese Beitia orren liburuetan argitaratu, eta ez dira ezagutzen.

Manu Enbeítak be, Kepa anaiaren ospeak íllunpean itxi dauan arren, badau bere nortasuna, baí olerkari-maillan, eta bai albistari edo gazetalari-maillan be. Bere ardurapean egon zan luzaroan EUZKADI egunkariaren euskal-atala. Orrialde osoa ateraten eban euskeraz, eta gaiñera, lenengo orrialdean, eguneko jakin-garrí andienen laburpena. Gaurko gazetalariok ez dabe oraindíño orrenbeste lortu. Enbeitatar Ibon eta abar ezinenez badabe zer ikasi. Lanerako kemenean batez be, IBAIZABAL-en orrietan asi eta 1936an il zan arteíño.

Albisteak

Albistari bat zetako da? Albísteak, barríak emoteko. IBAIZABAL zoli asi zan orretan. Euskalerriko eta Euskalerritik kanpoko barríak ekazan asiera baten. Gero Euskalerrikoak baiño ez. Eta eurok be urritxo. Nok bialdu? Or egoan untzea. Errenderiarrak ziran zolienak. Eta bein bizkaieraz bialdu eutsen bizkaitarrai euren anai-agurra.

Afta Lino Akesolo



EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN 867'ko LARRUKI BAT

Bederatzigarren mendearen erdikoa dugu larruki au. 867'an, Orrillaren lenen egunean, Bureba'ko jauretxe baten irasketa —edo fundazioa— azaltzeko idatzia.

Garai artan, Bureba osoa ARABA'ren zatí bat zan; Euskalerría, bete-betea, bai legez, bai izkuntzez.

Gaur egungo edestilarí berriek, Bureba ura, eta Araba bera, Asturiéta'ko Jaureriaren lurrak zirala, esango dízute. Ez eíezu sínistu, ori gezurra da-ta. Lekuko, sasoi artako edestilari arabítarrak. Edestilari aiek ederki bereizten dituzte Araba eta Asturiak. Aientzat, bi lurralde oiek, politikari dagokionez, bi lurralde zearo ezberíñak eta alkarrengandik iareak ziran. Eta alkarren etsaíak! geiagotu genezake guk. Baiñan, ortaz, beste egun batean.

Ona, 867'ko larruki onek damaizkigun toki-izenak:

ORBANIANOS	OVARENES	CASTELLA	BORUEVA
EBRO	ORVANO	CORELLO	FERRERA
RECONCO	FRIDAS	SABORITO	BEILA
SAUCTO	BARCENAS	AVENTI	GUISANDO
AQUA fierro	LOPERUELA	FELES	SAUTO
NAVE DE COREGGO	GOINA	SEMPRUM	ORVANGANOS
VALLEAMPLAM	FERRUZU	MARGALULI	MOGESTO
BERCEIA	ELDUARA	BELLITI	FAINO

Baiñan, izen oiek danak, euskal-izenak dira?, galdetuko didazu agían zuk, irakurle.

Batzuk, nere ustez, toki ízenak ez baiña giza-izenak díra. Baiñan euskaldunon artean gizakume batí bere etxearen edo erriaren izenez deitzea oiturazko gauza bait da, aztertuak izatea merezi dutela derizkiot.

Beste izen batzuk, zerrenda ortan, antz-aldaturik agertzen zaízkigu.

Kukulla'ko eta beste gure lekaídetxeetako larrukiak, guri, larruzko líburuetan idatzirik iritxi zaizkigu. Baiña, aurrena, bakoitza larruki iare bereizi batean izan ziran idatzia, eta gero guri iritxi zaizkigun liburueta aldatuak; ots, kopiauak; ez, danak, liburu bat osotzeko, alkarrekin josíak.

Kukulla'ko Donemíllan'en lekaidetxeko larrukiak, XII mendearen azken-azkenean izan ziran liburu berrí batera kopiatuak: 1194'tik 1196'era, Serrano'k bere liburuaren itzaurrean díoskunez (1). Baiñan gaur-egun gai auetan onenetakoa dan íkerlari batek, Antonio Ubieta Arteta'k auxe erasten dio Serrano'k esanari:

"En el siglo XVIII se preparó un manuscrito, (Donemillan'go larrukién liburua ber-ídatziaz), cuando todavía no se habían dispersado sus fondos. (Kukulla'ko Lekaidetxekoak, alegia). Se conserva en el monasterío emilianense y se le llama Colección Míngela. (Este lo había examinado a principio de este siglo). Lo publicó sin advertirlo el P. Serrano en su conocido "Cartulario".

Ber-idazketa oietan galdu zuten larruki auetako izenek beren jatorrizko ítxura zuzena.

Izenok aztertzen asi aurretik, ordea, zor diet azkena aztertu nituan bi larrukiei argirapentxo bat:

Larrukí aietan, emaille lez, "Didacus comes", ots, "Didako kontea" azaltzen zitzaigun.

Esanik utzi nuan Dídako ura nongo kontea zan jakíterik ez zegoela. Zerbaitxo bat geiago esan nai nuke gaur: Nongoa zan ez ezê, zein zan ere ezin jakin dezakegula. Ona bá, zer idatzi zigun konte oní-buruz, Serrano Abatak:

"El nombre del conde Didaco está siempre escrito sobre raído. El gótico lleva al margen: "Isti comite Didaco prolis Roderico comite, populavit Burgus per mandatum domini Adefonsi regis in era DCCCCXXII". Euskeraz: "Roderiko kontearen semea zan Dídako konte onek jendeztatu zuan Burgos. Albontsa erregearen aginduz, 922'garren aroan".

Garrantzi aundiko oarra idurítzen zait ori; batez ere, Serrano bezain lekaide españizale amorratu batek egiña dalañik. Gauza asko argitzen bait dizkigu:

—1'goa: Dídako izena, beti, karraskatuta dagoan tokían idatzirik ba'dago, toki artan lenen idatzi zan izena, Dídako ez baiña beste izen bat izango zala! Zer izen? Ez dakigu.

Agían, larrukia karraskatu zuan ark, Dídako izena gaizki idatzita zegoalarik izen orí bera ongi idaztearren egin zituala karraskatze ta bir-idazte oiek? Ezetz; erantzungo dizut nik; ekintza ori bein bakar rik ez baiña, beti izan bait zan egiña.

—2'garrena: Aldakuntza ori zergaitik izan ote zan egiña? Betidanik Euskalerría izandako Errioxa, eta Bureba, Gaztela biurtzeko. Orí egiñaz Asturietako erregeei, lurralde aiek euskotarrei indarrez kentzeko, eskubide zuzena ematen bait zitzaíen.

Ta..., gezurra-bidez, lortu dute, dokumentu zar oiek, lortu gura zutena:

"Las crónicas árabes y cristianas prueban suficientemente que a mediados del siglo IX los reyes de Asturias consideraban como de su dominio efectivo la parte de la Rioja comprendida entre el Tirón y la parte superior del valle de San Millán, hasta las cercanías de Nájera", diosku Serrano'k.

Ez da egía. Arabitarrek, orren-bestaldekoa, ain zuzen, egiztutzen digute. Eta cristauen dokumentu zarrek oso konfiantza gutxi merezi dute. Entzun Ubieta Arteta'k damaigun oar baliotsua: "He insistido reiteradamente que la documentación de S. Millán de la Cogolla contiene abundantes falsificaciones, sobre todo entre los documentos más antiguos".

—3'garrena: Dídako kontea aipatzen diguten bi dokumentuak, 863 eta 864'koak dira.

Len ere esana dugu, nola urtero maometarrek Araba'ri erasotzen zioten, eta, nola, Araba'n borrokan zebiltzala esaten zutenean, egiaz, gaurko Bureba'n ari izaten zirala.

(1) D. Luciano Serrano O.S.B. Abad de Silos: "Cartulario de San Millán de la Cogolla". Madrid 1930. Pág. XXII.

Orra b : 863'ean ain zuzen izan zan eraso aietan gogorrenetako bat. Muham-
mad l'aren anafia ber-bera zetorren 20.000 gudariren aintzinean. (Tarik berak,
lenengo aldiz Espafi'n oña ipiñi zuanean, ez zituan berekin 10.000 besterik!).

Oraingoan, Pankorbo'raiño iritxi ziran maometarrak. Izugarritzko garaitza lortu
ornen zuten Araba'ko euskotarren lepotik.

Ez zan garaitza ura, eskierki, ain aundia izango! Bi urte geroago, 865'ean,
emen bait zan ostera beste orrenbeste gudariz lagundua, I Muhammad Emir
gurenaren anai ura, ostera, —nola ez?—, arabarren bizkarretik lengoa bezain
garaitza izugarria lortzeko.

"Domuit vascones", "menderatu zituan euskotarrak", izan oi zan bisigoten
errege bakoitzari une artako edestilariek egin oi zioten goraipamenik aundiena.
Orixe bera, edestilari arabitarrek, beren Emir eta buruzagi bakoitzari egiten zio-
te-na. Eta aipu goresgarri orren atzetik ibilli zitzaizkigun Asturietako errege bisigo-
tak ere. Inork euskotarrak menderatzea lortu ez zualaren adigarri!

Une artan Gaztela'rik ez zan oraindik. Ala, "araba eta Al-Kile", "Araba eta Gaz-
teluak" eraso zituztela maometarrek, diosku aien edestilari Ibn Adhari'k; eta, Al-
Kile'ko kontea, Ruderik zala.

Beraz, urte aietan Al-Kile'ko kontea Rudeik ba'zan, gure Didako au ez zitekean
"Al-Kile" edo "Gaztelueta" artako kontea izan. (Barkatu, irakurle; "Al-Kile"k, eus-
keraz, "Gazteluak" esan nai du).

—4'garrena: 864'an, gaztea, oso gaztea, gazteegia zan oraindik Didako, bi
larruki aietan aipatzen diran emaitzak egiten aritzeko.

Oroi Ubieto Arteta'ren oarra. Benetan falsifikazio edo okerkeriz beteta bait dau-
de gure larruki zaarrak; batez ere Euskalerriaz mintzatzen zaizkigunean:

Ona zer idatzi zuan Donosti'ko "Diario Vasco" fatxista espainizaleak 1937'ko
urrillaren 19'an; Franko'k bere "gurutze-guda santu" lotsagarria asi zuan urte
borean:

"Murmura;
intriga;
lanza insidias.
Intriga y lanza insidias
contra los rojos
separatistas"

Goiz, oso goiz asi zirala ekintza zitu-oparo-emaille ortan Espafi'ko lumalariak.

Baiñan, gure edestilari gazteak espainizale biurtu zaizkigulako, garrantzi audi-
koa iduritzen zaidan eusko-askatasunaren gai ortaz beste egun batean jarduteko
asmoa bai bait dut, asi gaitezen gaur larruki berri onen izenak ikertzen.

VALLEAMPLAM.—"Concedimus (...) alio agrum in Valleamplam iuxta limite de
Ferruzu". "Badamaioigu (eraiki berria zuten jauretze berriari) Ferrazu'ren alboko
Valleamplam'en beste alor bat ere".

Latera ongi ikasi duan orok ikusiko ditu errez, lumalari zaar arek ortografiari
eman oi zizkion ostikoak.

Izen ori nominatibo-eran jarri ezkerok, "**Vallisampla**" dugu. "Vallis", "arana" da
edo "ibarra". "Ampla" berriz, "zabala". ARANZABAL edo IBARZABAL genduan,
beraz, erri aren izena.

Ori esateko zer arrazoi izan dezakedan? Dokumenturik ez dut; ez. Baiñan nai-
koa dut ori esan aal izateko zubipeko ijito zarraren zentzumen argia. Nere ustez,
—oraindik ez bait zan gaztelerarik jaio—, Bureba'ko jendeek latera ez baiña eus-
keraz egiten zutelarik, gure erri artako euskaldunek beren erriari "VALLEAM-
PLAM" ez bait zioten deituko noski! Ez zuten esango "Valleamplam'goa naiz",
"Valleamplam'era noa" "Valleamplam'en nago", "Ibarzabal'koa naiz", "Ibarza-
bal'era noa", "Ibarzabal'en nago" baizik.

Bureba'n erri ori non zegoan ezin izan dut, ikustatu ditudan liburuetan idoro.

FERRAZU.—Badu larruki onek orren antzeko beste toki-izen bat ere: FERRE-RA, naiz bíak esan berdiñean ez ekarri.

"In Valleamplam iuxta limite de Ferrazu": "Valleamplam'en Ferrazu'ko mugaren alboan.

"Ferragine iuxta rivo de Ferrera": "Burni-ola, bumi-meatzaren alboan".

"Ferrum" lateraz, "bumia" da. "Ferragine" eta Ferrera" ez dira latera zarraren itzak, oien ordez, "oficina ferrara" eta "ferrada" erabiltzen ziran gure "bumi-ola" eta "bumi-meatza" adierazteko.

Baiñan... sekulan bumi-meatzik izan ote da Bureba'n?

FERRAZU izenak merezi du azterketa sakon sakonagotxo bat. Seguruaski itxuraz aldatutako euskal-izena bait da.

Tolosa'n bazan beintzat 1960'ren inguruan **Ferrazategi** edo **Ferrasategi** abízena, agian **Erratzategi** edo **Herratzategi** ren aldakuntza. Badugu bd gaur bertan ERRATZ abízena, Iparraldean, jakiña, "H"z idatzia: HERRATZ. Ta gauza ezaguna da, "F" a eta "H" a zeínen errez alkar-trukatzen diran.

Ortaz, larrukiko **Ferrazu** ura ERRATZU izango litzake, eta badirudi orixe adierazí nai digula larrukiko FERRAZU aren "**Zu**" edo "**Tzu**" atzikiak berak.

CASTELLA.—"Concedimus ad sanctam ecclesiam (...) ego Guisandus abba cum sociis meis (...) terras que de manibus meis rumpi et fodi in Castella, in etiam in Ovarenes et in Boruevam".

Esan dut, nere ustez, sasoi artako dokumentuetan Gaztella itzak zentzurik ez zuala, eta geroago ezarria izango dala seguruaski, dokumentu ontan; Gaztela'ren edestiari zaartasuna eman-naíak eraginda, bear bada. Badakit sasoi artako beste dokumentu batzuetan itz orí agertzen dala; ez ordea aztu dokumentu zar aietan ugari dírala aizunketak.

VIII eta IX mendeetan, arabitarren edestilariet bi lurralde etsai besterik ez zuten iparraldean ezagutu: asturitarrena, eta "waskuyin", "guaskuyin", "gaskuyin", edo "euskotarrena".

"Gaskuyin" itzean, "yin" ori ugaritasuna adierazten duan atzikiá da: Gaztelarren "s" edo gure "ka" bezalakoa: "euskotarrak"; "Los vascos"; obeto esateko, "Los gascones", ori bait da arabitarren "guaskuyin" edo "gaskuyin" ura.

Arabitarrek, bí lauralde aien artean beste bat ezartzen dute: "Al-Kile", "Gazteluak", "Los Castillos": "Gaztelueta".

Gaztelu aiek beti Araba'rekin lotzen dituzte. Beti. "Araba eta "Al-Kile" eraso ditugu", esaten dute. Danek! Eta beti! Beiñere ez "Asturiak eta Al-Kile eraso ditugu"

Badirudi beraz, Al-Kile aiek arabatarren eskuetan zueden gazteluak zirala. Ez zirala asturitarrenak.

Non zeuden "Al-Kile" aiek? Ez dakigu. Ez beintzat Bureba'n. Araba, —maometarrek jotzen zuten Araba—, beren edestilariet damaizkíuten toki-izenen araura, Bureba bait zan.

Ederki bereizten dítu beraz, gure larrukiko Gumersindo Abatak, ere Bureba eta Gaztela, naiz izen ori seguruaski, larruki ontara geroago sartua izan.

"Ego Guisandus abba cum soccis meis (...) terras que de manibus meis rumpi et fodi in Castella, **in etlam in** Ovarenes et in Boruevam".

"Ník Guísando abatak eta nere lagunek (eliz orri damaizkiogu) ... Gaztela'n **eta baita** ("etíam") Obarenetan eta Bureba'n nere eskuz urratu eta atxurtutako lurrak".

Berreunen bat urte geroago onela dio 1022'ko larruki batek: "In diebus illis quam Sanctius rex maioris Pampilonam Naiaram atque **Castellam vel Campos** regebat...

Euskeraz: "Santxo Nagusi erregeak Iruña, Naiara eta **Gaztela edo Campos** zuzentzen zituan egun aietan"...

"Castellam vel Campos". "Gaztela edo Campos"! "Campos" ori Palentzi'n dago, Palentzi'ren iparraldean, eta gaur "Tierra de Campos" esan oí zaio.

An bide zegoan arabitarren "Al-Kile" zoriontsu ura. Amaia uriaz aruntz. Ortaz, aro zaar aietan benetan izango zan AMAIA Euskalerriaren azkena; Euskalerriaren "amaia".

CELLA.—Bi "LL" oiek "L" aoskatzen zituztela gogoan artzen badugu, CELA zan erri aren izena.

"...iusta viam que vadit ad Cellam". "Cella'ko bide-ondoan". Galizi'n ugari dira Ceta toki-izen eta abizenak. Baiñan orrek ez du esan nai **Zela** euskalduna izan ez daitekeanik, izen berdiñak ugari izaten bait dira ele guztietan.

ZELA, Gipuzkoa'ko abizena dala dio Kerexeta'k, eta "zelai"ren aldakuntza ornen dugu. Eta "azela"ren aldakuntza ere izan ornen daiteke, eta, orduan, "sasia", "zarzal", izango ornen genduke bere esan-naia

Baiñan, antziñako euskaldun burebar aiek beren erríaren izena "ZELLA" agoskatu izatea ere badaiteken gauza dalako, eta gaur egun Bizkai'n ZALLA bat badugulako, CELLA zaar ura, agian, ZALLA izan zítekeala esango nuke nik.

Asko dira "**Zalla**" edo "**Zallo**"z asten zaizkigun abizenak: **Zallaga, Zallagarai, Zallo, Zalloniz, Zallube, Zallorueta...**

Izen oietan danetan, aurreneko "F" a edergaillu edo "protetiko" utsa ornen da, eta "allo" edo "alo" ori berriz, "larre", Lopez Mendizabal'en ustez.

Ez dut nik ezer esango. Bildur aundia ematen bait dit etimologigintzak.

ZELA'z asten zaizkigun izenak ere baditugu mordo bat: **Zellgeta**, adibidez. Edo **Zelatum** (Emio-Mendi'n) **Zelaraln, Zeraln...**

Barkatu irakurle. Azalpen au egin ondorean oartu naiz CELLA erri-izena larruki ontakoa ez dala. Zaarrago batekoa, 828'an idatzia izan zan batekoa dala; baiñan azalpena egin dugun ezkerero, geratu bedi emen, iñori ez dio kalterik egingo-ta **Celia** erría, ez zegoan Bureba'n, Mena-Aranean baizik. Euskalerrian, danadala.

OVARENES.—Alkarrekin itxura aundia duten lau izen damaizkigu larruki onek: **Ovarones, Orbanganos, Orbanianos** eta **Orvano**. Guk, banaka aztertuko ditugu, aurrenekotik asita:

Ona larrukiaren itzak: "...locum qui dicitur Orbanianos et Ovarenes". Badirudi beraz, bi erri oiek bat bakarra zirala; baiñan larruki zarretan ezer zúrtatzerik ez dago, lumalari aiek batasunaren edo askotasunaren atzizkiak, —"loca" (lurrak) idatzi bearrean "locum" ("lurra") idatziz—, aski era baldarrean erabiltzen bait zituzten.

OVARENES, lateraz dago. Euskeraz itz ori OBARENAK izanen zan. Eta itz orren enborra, OBARA dugu. Edo, ziurrago, OBAR.

Obaroi, Obarria, eta **Abuela** abizenak baditugu gaur ere. **Obaroa** bai ornen zan Leníz'en 1448'an.

OBARRI ren aldakuntzak dira noski **Obarro, Obarrio** eta **Obarriaga** eta oien antzeko abizenak. OBARRI ere badugu, abizen bezala.

Euskaldunak dirala, ez bairik gabeko gauza da. Beren etimologia?

OBAR eta ABAR Lopez Mendizabal'en ustez izen bat bera dira; (eta zuzen dabillela derizkiot). "O", "A", eta "I", berriz, atzizki toki-adoerazleak dira.

Ortaz, **Obara, Obarr**, eta **Obarro** "abar-toki" edo "arbazta-toki" izango lirake, eta **Obara** ta **Obara** "abar-tokia", "a" atzizkiarekin: "el lugar de ramaje". Bai ote? Nik beste esan-nai bat emango bait nieke, OBI, "concabidad", "fosa", "zokogune", "zokoa", "zuloa" dala, ARA izen zaarrak "lurra" esan nai duala, eta ARRO edo ARRU "arrikko malda dugula, kontuan artuta. Orrela,

OBARAN, "lur-zuloduna" edo "aran zuloduna" izango litzake: erri baten izena, eta mendi batzuen izena, gaur, eta orduan. Seguruaski erriaren izenetik sortu zitzaizen, beste askotan bezala mendi aiei izena: "Ovaran'go Mendiak", "Obaranak".

OBARRI, berriz, "zokoguneko arría" genduke;

OBARRO, "Zulopeko arritea".

Guztia, jakiña, "in timore et temblore", "dardar-ikaraz", esana; etimologia baiño malda labaiñagorik ez bait da.

OBAROA eta ABARRIA zer daitezkean esatera ez nai ausartzen. Euskal-izenak dirala, bai; bildurrik gabe dasaizut ori.

ORBANGANOS.—"Locum qui dicitur orbanianos et Ovarenes". Orbanianos eta Ovarenes deritzan tokia". Izen ori bera, ORBANGANOS agertzen zaigu larruki oní berreun urte geroago, 1043'ean egin zitzaion eraskin batean. **Oraano** bat ere badakar dokumentu onek berak.

Orbanganos berriz, bein "B"z eta beste bein "V" idatzirik damaigu. Aro aieta-ko, idazkeraren kulunkaketa!

"Orbana" "mancha" dala, eta "gana" edo "gaiña" zer dan mundu guztiak badakialako, ORBANGANOS "orban-gain-o-ts, edo, obeto esateko, —autrigoiak bait ziran burebatar euskaldunak—, "orban-gan-o-ts" dala, bateren batek agian pentsatuko du. "Zikiñaren-gaiñeko-tokiak".

Ez du etimologi orrek bailo, euskal-izenak, dauden tokietako xeetasunetaz era-tuak izaten bait dira ia beti. Alare, ZARAMAGA bat badugu Gazteitz'ez. Auzo aundi baten izena da. Baiñan tokí izena, orí ere: "zaramategi", edo "zabortegi" esan nai bait du.

ORBANGANOS'en etimología beraz, nere uste txiroz, orba-ren-ganak izan dai-teke: "Los Altos de Orba", azkeneko bere "S" ori euskerazko "K" latíñera bíurtua izan baít daiteke.

ORBA zer daítekean jakitean dago beraz koxka.

Aurrizkí ortaz asten diran ízenak ugari ditugu Euzkadi guzian: Azkeneko izkia "A" dutela bardulitarren eta baskoien artean; izki ori "E" dutela berriz karistioen eta austrigoien lurretan: Adíbidez:

Orbaizeta; Orbea; Orbaran; Orbegozo; Orbata; Orbezu; Orbiso ("e" errez agoskatzen baí da "i"); **Orbitz**.

Bardulo-Baskoi eta Karisti-Austrigoien arteko ezberdintasun ori ez da beti, nik esan dedan bezala betetzen; agian, ezberditsun ttipi oiek guk uste baiño berri-goak diralako.

Izen oien danen gorputza ORBA edo ORBE dugu. Eta, itz orren esan-naia, zer ote da?

Mítxelena'k, esaldi luze naasi ulerkaitz batean, ORBA lur-izena aípatzen du; baiñan ez duzu, esaldi baldar ortan, argí askorik aurkituko.

Lopez Mendízabal'entzat "01-o", "olo-o" daiteke, "lugar de avena", eta ortik ornen dator "oro-o", eta emendík berriz ORBE. "Oro-o-be": "bajo el lugar de avena". Zailxamarra egiten zait neri, oldozketa luze orí dana.

Kerexeta'rentzat, "Orba", gaztelerazko "madroño" ornen da; guk "kurpitz" esaten díogun basa-zitua. Ez dakit nondík jakín duan ori. Oraingo gure iztegietan ez dator.

Baiñan ez dezagun aztu, gure iztegiak izugarri txiroak dirala, izadiztiari dagoz-kion gaíetan.

Larruki ontako izenetatik, aztertzeke uzten ditugu sail eder bat, idazlan au luzegia irten zaigulako. Datorren illean, jarraituko dugu, azterketa-saio onekin.

Latiegi'tar Bixente



"SORTITZANTZ-IAKINTZA ETA IZKUNTZERRIEN EDESTIA"

(Iruxo'tar Anderen emazteak, MIREN ELENA ETXEBERRI'k Iñaki Deunaren
iaietan, LAURAK BAT Batzokian emandako itzaldia) (1988).

U

(Jarraípena)

Biztanlegoaz ari geran guztian, sortizantzazko sarrítasunataz diardugu, ez noski "bakar nor batek" dítuan izantzaz, geienen artean aurkítzen diranetaz. Beraz, asiera batean iatorriz O dan biztanlego bat, A edo B sailleko gaíki gutxikin, sortizantzari gagozkióla, A edo B izantzak, (garaile bezala íokatu arren), ízkutatzeraiotzen dute. Baiña, naiz giro aldetik edo kaltekaitzen bide aldetik, mota ontako aldaketara berexketako eragiñaz laguntzen duten biziztiko gaikiak ere ba dira. Ikuspegi au aztertuko dugu.

Ona ba, zer agitzen da ameríkar bertakotarrakin (gízakirik gabeko eta oillolur ez dan lurrasoaldera irixten ba'da), bízkarkoi aldikaldiak eraldurík ez baldin ba'daude, ugaztuna eta gizakía bear bai dituzte arrotz arartekari?

Auxe esan naí da: Beste bizígiro batzutan, ala nola euroasia lurredaso zaarrean eta arri-aroko erri-iakintza duten zenbait biztanledian ematen dan eta ain nabarmengarria dan biziztiko eraso ori, odol araukera aztertzen ba'dugu, larrosakarako odolakin aurkituko bai gíñake, auxe bai da bizkarkiñen aurka soiñak egiten duan aiertindarra; Beríngia zear datozten biztanle oiek, oillolur gabeko lurredasoakin aurkitu dira. Sailtxoka, talde txiki batzutan sartzen dira, ala iduri lezai-guke, baiña Behring'go itxasatakatik lurredaso guenera talde txikitan alaxe datoztela ain xuxen ere iakiteko, ba ditugu bada beste azalgarri batzuk, mongol taldeak odolean, "Diego" deritzon eragin-gaikia dakartela, guztiz maiz agertzen bai da ameríkatarrak bertokotarren artean. O sailla ere ba dakarte, oiezko motako biribil zuringokiñik ere ez daramakite, beraz, aldaketa oiek, agertu baiño leen gertatu zirala erri-aldaketa oriek aítortu liteke. Eta onek, egin-egiñean, 40.000 millako eta 50.000 millako urtetara garamazki. Diego sailla, amerinditar artean

guztiz bakana da, sendi batean lenengokoz, Benezuela'n ezagutua izan zan. Giziztirako gora aundiko sail au, 1955'garren urtean, Leyrisse'k aztertu zuan eta amerikatar bertokotarren talde guztietan erabat zabaldua agertzen da, baiña Aprika'ko eta Europa'ko gizaki bat berak ere ez darama izantza ori, odol naasketarik ezean noski. Diego sailan berexkeri bezala, lurredasoko Ipar eta Ego ludipuruko biztanleek ez daramakite, ara ezkeru "urtu" bezala egiten dala bai dirudi. Errialdaketa guzi oriek, aldi berean ez ziran gertatu. Diego ekarri zuten mogoltaldeak, aurren aldi batean, ez zuten ekarri eta gaiñera auxe da ustekabea, Iparraldeko eskimal biztanleok eta Egoaldeko suketarrok (iamanak eta onak), arriaroko motako erri-iakintzai gaur ere oraindik eusten diotela.

Bízitiko aukerabidearen bitartez: ezabizi bízkarroi edo arraka gai oien mensak, amerikatar gizakiari, tokiz aldatzen dan amerikatarri, berezitasun bat ematen dio, zenbait une iakiñetan, izurrikutsurako, bíziki iauskor uzten bai du. Gaitz oíeí buru egiteko, indarrík edo kaltekorkaiztasunik ezaren ondikozko orren egiztabidea, argi ta garbi ialkiak, errege-ordekoen eguntzedestíetan dauzkagu, Amerika maixtar-erri biurtzeko ludi zaarkeo menderatzailleak eramandako gaita kutsakorakin, amerindatarra nola amarendua zan aipatzen bai digute.

Baiña odol sailakin onek zer ikusia dauka?

Zenbait zomakutsuentzat odol sailak kutsaterreztasuna ala gibelindarra eman lezakela diote idazle batzuk. Adibidez: Zuldar urtsua daukan norbaitek, ABO bere odol saila nolakoa daukan arabera, berdín ez duala miñartzen, esan oi da. Au da; ba da aurre-iaidura zenbait zomakutsuai gogor egiteko ala ez, odol orren ezberdintasunaren arabera, bai baztangantzat, zingira-sukarrentzat eta beste motako kutsa-gaitzentzat. Gaur iñor ez litzake zalantzan iarríko, sortizantzen eragiñaren azalpena eta kutsakuntzari buruzko gizakiaren erantzunaren arteko elkarria onartzeko. Baiñan ameriketako bertokotar batengan beste aukerameneko eraginkai bat aurkitzen da, kaltekorkaiztasun iazargoa.

Baiñan O sailleko aita batek bere oiñordekoa A edo B saillekoa izaten duanean, zer agitzen da? Aitak semeari eman dion eta amak ere eman dion sortizantzen artean, iazargoa sortzen dala, soiñaurkakoak sortuta, aierkindarra egiñez, emal unetik sorberri orí galtzorian ipiñiaz eta ABO aukerako elkarkidetasunik eziñean, aurren emal unetik (2'garren edo 3'garren illetik asita) odolauleriaz eta beazun orailaz iota, iaioberria gaitzak iota jaioko da eta okerrok, gaurregun egiten dan bezala, sendakintzako aurrerapen eta antze-iakintzakin garaiz ez ba'díra zuzentzen, beroien berezko aldakuntzakín aurra galtzera eramaten dute. Onek auxe esan nai du: Ez dutela xaiñak irauten eta xixtorrak ez dirala gutxitzen sortizantzari lotutako ikuspegi batetik bakarrik, baita ere ba dala bizitiko aukeraketarako eragingarri bat, kaltekaitzako iazargo batek, A eta B izantzako gizakiak izkutarazi bai lezazke, baiño au, aleunka urteen buruan bakarrik agí liteke.

Ez zala Ameriketa'ko aurreneko bízilagunetan iñola ere A edo B saillik esan ote liteke? (aztertutako oiezateko zurrunondu batean ere, aturatzaille batzuk B izantza aurkitu dute). Agian lainta oso txíkian, baiña bízitiko aukeraketako sortkaz izkutatu da eta gaurregun bertokotar amerikatarrengan esateko ere ez da aurkitzen, O saillekoak bai díra danak, bakar bat lekat utzita, Laterri Batuetako sartaldeko itxasertzean dauden biztanledi batzuk (ankabaltzak) eta Egoameriketa'ko beste taldetxo txiki bat (karaiak) baita ere, eta onek beste íatorri batekin etorri ziranak adierazten dízkigu eta ontan oiñarrituta, Ozeania aldetik Ameriketara tokizaldatzaille zenbait etorri ziranezko egiaburukizunak izan lezake garrantzia.

Olandar abelztilari batek, Thor Heyerdahl'ek nola ezagutu zuan Paskua deritzon ugarte ba dakizute zuek, ludiruditamuan, Pazipiko ugarte txikíxko bat lez agertzen da, Txile eta Polinesi ugartearen artean eta polinesitarren elezarrak belarri-eme iartzen dute, ark Peru'n entzundakoakin zerikusí aundia bai zuten, aien artera, zenbait gizaki txuri Tiki lainkoak ekarri zitunezkoak, baita edesti-aurreko

arri-garaíetatik arrian kolpostutako irudilanak ere. Oraíndik gizonak lakatu bear duan izkutukizuna dugu Paskua ugarteko au. Odolmota-iakintzan aurrerapen berri bat egiten dan bakoitzean, zeaztasunak egitera iotzen dute aturatzailleak eta gizaiztiko ikaskizunak egiteko taldeetan iakíngarri aundiéneko bat, Paskua ugarteko bertokotar biztanle gutxi olena da, 1971'garren urtean, Dausset'ek egín duan bezela. Talde ortan ark, soin-sareko elkarkortasunaren araubidea ikasten iardun du.

Paskua ugarteko biztanleak, Peru'tik etorri zitezkele elezar oiek ain xuxen ere Thor Heyerdahl oldozten larri zuten. Eta iardunbideko ikuspegí batetik Pazipiko Itxasedasoa zearkatu zítekela eta ango urbizién eragiñen laguntzaz eta aurren artako eskuartekin Ameriketa'tík Polínesia'ko ugarte oietara iritxi zitekela zeazta-tzeko, ark Kon Tikí egiten du, Peru'k garai zar aietan ezagun zitzaken ítxasketa-ko eskuarte urri aien antza emanik, almadiako egurrakin eta orduko garaietako itxastarrak izan zeazketen aurren gai beraiekín omituta. Eta egín-egiñean, síñis-teziñezko itxasibillaldi orrekín ba zitekela berak erakusten du, Peru'tik urtenda, Paskua ugarteraíño iritxirik eta Iparraldera iota, Polinesia'ko ugartera eltzen dala. Ain xuxen ere, Polinesia'ko bertokotarra ara ioan zalazko usteari, gaurregungo odol-iakintzako ikaskizunak, azken andanan batez ere Dausset'ek dakazkinakin, ziurtasun geiago ematen zaio. Eta talde urri oien A eraginkiñaren sarrígo aundi-aren argibidea, Amerika'ko inditarren artean berexkeri bat bai da, Polinesia'tik egindako tokíaldatze oek eman lezaígukete, xeetasun guztiak bat ez datoz baiña eta oraíndik izkutukizun ugari bai dago argitu barík. Jakíña ba, bi aldetara íoan-etorrietako itxasibilliak, berdin izan dirala gertagarri. Paskua ugarteko edestía, lilluragarria da eta geixego ezagutu bearko genduke. Sumendi ugarte da, l andaretzarik edo zageítzarik gabekoa dala esan gentzake eta txantxetan ere, arrizko oroiteraikuntzak sei eundik gora aurkítzen dira; bertokotarrak ugarteán, "Mate Kiterane", zerura begiraten duten begiak deitzen diote; ilzan ere, zeri begira lezaíeke itxasoari eta ortzian izan ezik! "Beste ludiko lurralde guztiak baiño urur tiagoko lurraldea" dala díote Paskua'ko ugarteá; Txile'ko Balparaiso'tík 2.000 aneurkiñetara dago eta beste 2.400'etara Polínesia'ko aurreneko ugarteetatik; eta aren erdian upelkadatako arripillako lantirudi oiek, erpiñean txapel bat bezala, beste arrímokorrakín "arritzar aiek, garabirik gabe, nola íñork gaillur aietara jaso zitzaken asmatzerík ez zegoala", aitortzen bai zuan Thor Heyerdahl'ek. Edesti aurreko eraikíntza oiek, nola !aso zítezken íakíterík ez dago, an bizi diran gaurko bíztanleek, ez bai dezaígukete azaldu ze ezkerako erriak zíran eta ze íakintzako gaiak izan zeazketen ugarteán ortako aítortzako lanak uzteko, "moais", inkata-rrén íakintzako lantirudiákin antza zenbait artzen bai zaie, olandar Heyerdahl'ek dionez.

Laburtzeko, amerikatarren odolmota, sortizantzako O, ABO araubídekoakin ía bakar-bakarrakoakin (aipa berextasunaz landa) agertzen dalako nabarmentzen da; eunetan eun (%) Rh baiezkorra dalako, sailpeko R'ren nagusitasunakín; Die-go sailieko eragín aundiakín, aípa ditugun amerinditar etaasiatar saillik zarrenak izan ezik, mongoltar guztiena baí da; eta orain berri-berrítan egindako sare-elkar-kortasunaren aurkasorieen (HLA) ikaskizunetan aurkitu diran sailpekoen eta borobíl motakoén íakingarrizko eta ustekabeko eraberdintasunagatik aldakorren edo elkarkideén urritasun aundiakín guztiz sarríkoak bai dira, adibidez, HLA2 eta HLA9; íñoiz ere ez ziran aurkitu borobil motako HLA1, BW29 eta BW30, íkusiko dugun bezala, oiek berezkerazten bai dute euzkoa edo euskotarra.

Odol-zuringokiñen aldagairik íñoiz ez zan aurkitu, ez Ego-ekialdeko oraíngo HbE asiakoak, ezta talasemikakoak, asiakoak eta luterditxasokoak, ezta HbS, HbC eta abar apríkakoak, europeotar edo aprikatar naasketaz landa, azken au, guztiz noíznaikoa amerinditar eta aprikatar íopuen ondorengotan Amazonas'ko oianetan.

EUZKOTARRAREN BEREZGARRIZKO IZANTZA

Euzkotarrai gagozkíonean, iakiña ba giziztian ere, berexi-berexieneko ezaugarriak dítuan errí bat aipatzen dugula.

Leen euzkotarrak eta gaurregungokoak are, aurrenekoz ludia adi-adi iarriarazi zuanean, askok gotorki aitortu izan dute giziztian ere bere-bere berezitasuna ba duan arren, aren soiñaren larrantzak egin-egíñean ez baiño, aren izkuntzak, aren banan-banango mintzairak, aintziñako urteetatik, ikasleen artean iakinmin aundía sortu izan duala: aurre-índo-europatar eletzat bezala berexi zuten, ez bai zioten antzik ere artu beste íñungo errietan mintzatzen diran ízkuntzekin eta ele bakarizat io zuten. Khmr iauretxeak lako eraikintziztiko oroit-lanik ez dan arren, ba da orratik beste íñun berdiñik ez duan eta ludían antzekorik gabeko oroíteraikintza bat, EUSKERA, bizirik dirau arriagarria, aren berezitasunak ondatu ba'lediz, gizonaren lanaren eraikintzarik eta asmakizunik ederren -ederrena betirako galduko litzake. Gizakiari, bere iakíntza "bidean iartzen", bere nortasuna ondorengotartzen eta biotz-zarradak azaltzen, mintzairak laguntzen dio. Gizataldeak darabilkiten mintzairak xedatzen du abenderría. Enda eta izkuntzerría idekotzat artzeko oker ori, Kanpion'ek oartarazten duan bezala, ez dago iaukitzerik, ezin argiago berdiñezak bai dira, ala ere, mintzatzen ziran izkuntzen bita rtez endak zeinkatzea, ikasleen artean aintziñako oitura izan da; izkuntza eta mintza oi zuan enda edestiko goraberak eta errigintz-iaurbidezkoak nola banandu lezaketen azaltzeko aurregíntzak zuperka bai dauzkagu.

Enda geien batean, ez da aldakorra, sortizantzaz, biziztiko izakin iakin batekin xedatua, ínoiz aldiaren oianarian aldagarria izanik ere, aleunka ta aleunkako urteen ondoren alda liteke, gaurregungo belaunaldiak oartzerik ere ez duala, beraz, antzemateko bere garai bat duala. Esandako guzti onekin, auxe azaldu nai genduke, endaan izantzaen ezagutzarako zenbat laguntzen duten sortizantzako ikaskizunak. íBaí garrantzitsua dala gizakiak bere egit azko eta benetazko atamendak ongi íasotzea, bere ezagutzak eukitzea eta aztertzea, gerokoan erabili al izateko, bíldutako guzti oien multzotza eraneratzen ikastea, orrek lagunduko bai dio gizakia obekixego ezagutzen!

lاراuntsitzen diran izantzak, aldakaitzak dírala dagoaneko ikasirik daukagun arren, . egugíroko zenbait egoerak, sortizantzako iraunbide au eraldatu lezake eta giza-sail batean gízaki batzuen mota nagusitzen ipiñi, beste mota batzuk izkututzen dírala. kapakaiztasun berri onek ustegabekeri au iarriko luke, aldake eta nagusitza erreztea, sortizantzako lóbera berri baten orekarako eta aldaketa ortara eraman zuten egugíroko baldintzak dirauketen artean iarduki-ko du; auxe da sortizantzíztiaren eta bizi dan girora egokitzearen elkarrateko eragiña.

Izkuntzak adimugutzen du abenda. Orregatik, bere-berea eta aitasoengandiko izkuntza bezala mintzatu zan eta mintzatzen dan giza-taldeari kanpion'ek deitzen dio euskalduna, au da, beste íñoren arrotz abenda sailletik engoiti osatua artu barik. Guztiz kanorazkoa da au eta etxean indar berriak emateak ze garrantzia duan ezin obekí dago bein da berriz adieraztea; bere izantza emateko gairik kanorazkoena da euzkotarrantzat bere izkuntza.

EUZKO ENDAZ MINTZA OTE LITEKE? ZE IAKINGAIK ZEAZTATZEN DUTE GAUR?

Gizizti iatorreko ikaskizunai (soiñaldekoai eta itxuraldekoai) lekoreko gaien azalpena oiñarri artuta, odolmotaiztiko ikaskizunak, gai aurkiberri bat eskeintzen diotenean, 1917'garren urtean sortzen da gatzungiziztia.

Urte ortan, aurren ludi-guda zalata, Salomonika'n enda bixiko gudariak guda-lostetan bilduta aurkitzen ziran. ABO odol saillen aurkikuntzaren ondorengo amazapi urtetara au gertatzen zan, oraindik ez ziran ezagutzen Rh. L. eta H.

Senargiko oarkuntzak aditzera ematen ditu Hirszfild'ek 1919'garren urtean eta euroasiako lurrasoaldeko sortaldeko biztanlegoarentzat ezaugarri bezala, B sailla xedatzen dute, Urales mendien zear, Iparraldetik Egoaldera, lerro berexgarri batean, egitazko muga bat iartzen dutela eta antxen, bere sortaldeko luzundan B sailla kokatzen dute eta Europa'ko Iparraldean, an dualarik sorburua, A sailla. A eta B sail oen elkarrenarteko aindoiztiko zerikusiaren errolda batzuk eraltzen dituzte eta errolda oiei dagokienez banango biztanlegoak nola jokutzen duten zaintzen dute.

A + AB
- - - - = eraginkidegoa edo Hirszfild'en bizizerezkitiko errolda (b.e.)
B + AB

Dujarric de la Riviera eta N. Kossovitch'ek (1934'garren urtean, Paris'ko Legezko Sendakintzako Urtekal-Berriak aldizkarian) euzkotarren ABO saillataz egindako azterketak argitaratzen dituzte. Aien eraginkidegoa Hirszfild'ek egokitzen duanean, aurkitutako nabarmenkeriaz, ezin gorde izan zuan bere txundioa, b.e. bat = 37,9'tik gora aurkitu bai zuan eta orain a rte ezagututako lurreko beste erri guztietatik, batean ere berdiñik gabea, Europa'ko odol-sail guztietarako, baita ere euskaldunen auzokideetan ere aurkitutako erroldak, b.e. orren goraberakoa = 2,5'tik, b.e. = 3,4'tik gora, iñoiz ere ez bai zuten egin; ezberdintasuna nabarmenagotzeko, auxe azalduko dugu, asia-aprikako saillak, berextasun auxe duala, b.e. = 1 edo ortik bera. Martial'en ondorengo lanak, beste euzkotar talde batean, b.e. = 11,8, ematen dute, bi muturretako zenbaki oen arteña aterata, b.e. = 17,4 ematen du; zenbaki guztiz esangarriak, biziztiko izantzatan danagandik erabat ezberdin azaltzen bai dute euzkotarra eta ondorengo ikaskizunak ere, (Streng'en idazkiak), Europa'ko enparau biztanleetatik berexten bai dute "erabateko berex-te" batean; berextoki ori, guztiz xaiñak eta garbiak diran enda talde batzuk baka-riak artzen bai dute eta txit aintziñako iatorriak, bertokotar australiatarrak bezela-koak (b.e. = 14,3), eta beste bakar-bakarrenetako endako talde batzuk, ala nola, larru gorridunak, (b.e. = 27,3), anka baltzak, (b.e. = 20), eta eskimalak, (b.e. = 16). Onek euzkotarra enda bat bezala aitortzea zillegi egiten du.

Gatzun-giziztari, iakintza bezala sortze eman eta "aurrentariko" lanak antze-iakintzako mintzairaz azaltzen duten au, erri-euskeran orlalatzen da: Euskotarra- gan, B sortizantza erabat ia ez dala agertzen eta O izantzaren eragiña, guztiz aundia dala, Europa'n dan aundiena; sortizantza berdiñeko gupia, (O sortizantza- ren maiztasun berdiñekoa) euzkotarraz gaiñera, Europa'ko aintziñakoeneko beste oiezkor talde batek soiñeratu lezake.

Euzkotarrak gaur, gogoan artzeko besteko A sortizantzaren eragiña ere artzen du, txixixegoa izan arren. Oni gagozkiola, orrela itzargitzen dugu: lekoretik dator- kion sortizantzaz gaiñera, gero ikusiko dugunez, ein aundi batean, biziztiko auta- ketaren eragiñari, kaltekorkaiztasuneko mota bati zor zaiola, (hr-Rh iazargoaren abespelua, O-A iazargoagatik). Baiña ikaskizun berriak, aurren egiztapen eta adierazpen oiei indar edo zintasan geiago ematen die eta adierazpen oiei.

Ludiko beste erri batek ez duan (r sortizantzarena) rh ezezkorraren eragiñik aundiena dualako enda bat bezala eritzia edo xedatua izan liteke euzkotarra.

Euzkotarren artean rh zabaldurik dagoala lenengokoz oartu izan zana, 1945'garren urtean, Buenos Aires'en, Argentina'ko Erkalterrian, entzerrianotar sendagille bat izan zan, euzkotar gurasoen semea, Etxeberrita'ar Mikel Gotzon lakiturua. (1). Eta izkuntzerrien eta endaeen ezagupiderako ze laguntza ematen duan biziztiak eta sortizantziztiak, ona beste ikaspide bat, oraingoa, sendakin- tzaren laguntzaz eiki. Odolean Rh gaikia ba zala 1940'garren urtean iakin

zanean, aurkikuntza onek ordurarte sendakintz iaikintzantzat ezezagunak ziran izkutukizun asko argitzeko eta ulertzeko laguntza ekarri zuan.

Ez zekiten A.B.O., bakoitzari zegokion sailleko odola gizakiari zurrustaturik arzen zuanean, zurrustabideko odol orren makur aundiak eta alako ezbeurrak zergatik etortzen ziran, izan ere, odola zurrustatzeari utzi egin bai zitzaion ondoren berekin zekazkian gaítzurrengatik; ezta ere ez zekiten, ustez beintzat guraso osasuntsuak izanik, gaítz larri batek iota, ondorengo euren udalia, illik zergaitik iaioletzen zan, edo zergaitik larriki gaixo iaioleta, gero iltzen zan eta iltzen ez ba'zan ere, kirioíztiko iatorrí-abaxu latzakin zergaitik zetorren bizibidera, karaki baten ondorioz, beazunorailak, uieltzen bai zizkion bere buru-muiñetako azkubillak, buruko eta íbílbideko akats larriak, zailtasunak sortzen zízkiola. Iaioberriari, odoleko aulerriaren gaixotasun ori, zergatik sortzen zitzaion? Ezkonkide bien gertakizuna, Wiener'ek azaltzen duanean, ain xuxen ere senarrak Rh baikorreko odola izanik (izantza orren ezagutza orduantxe iaikín zanez, gizakiak motakatzen ari bai zan), eta emazteak berriz rh ezezkorra eta euren semeakin, il-larrian, buruauste orrekin aurkitu, soin-aurkagai bat senarraren odol-goronbilloen aurka Rh'ren aurkagai bat bai zuan emaztearen odolak, arazo latz au, aurrak zergaitik gaixo iaioletzen ziran, orduantxe iaikin zan eta argítua izan zan.

Odol-gerii oiek ikastera io zuan eta gaitz orren iaikintzarako gaiak lortu zituan aurrentaria, Buenos Aires'en Etxeberria'tar Mikel Gotzon launa izan zan. Eta ona nola oartu zan azurberri zeuden ainbat amak, Rh'ren aurkako soíñaurkagaiakin eta odol-xuriko gaitzakin semeak zeuzkatenak, sail aundi bat ama euskaldunak zirala (eunetan 37%), euskal abízenak ere, berexetasun baten oarpena azaltzen bai du (abizen orren esanaía azaltzen duan izkuntza bai da).

Ebazkizun onek, euskal iatorria duten amatan izugarrizko zerikusia dauka, beraz ustekizun au ain xuxen ere ziuurpetzen duten erroldatako ikaskizunak (1) lakintsu guztiak lez, gure lagun min au, sendagin aztertzaile ikasia eta guztiz apala bai da, aitaren itzalez ez íazte arren, berau, aita duanik ez du azaltzen ditu, ots, Ameriketa'n bizi diran euskaldunak eta aren ondorengoak, eunetan 33,6 (%) ezezkor rh duala eta beste ainbat euskaldunakin, bere lenengo errolda aztertu ondoren, rh orren maítzasuna, eunetan 35,6'eraíño irixten da Ikaskizun oien ondoren, gaur egun ez da ezagutzen eta aurreratzean ere ez dala ezagutuko uste dut, ikaskizunak naiko ongi egiñak daudenez, rh ezezkor orren maítzasuna euskaldunengan baíño aundiagoa daukaten ludiko iñungo biztanlerik, esan nai da, euskal biztanle txit garbi eta xain batez diardugula, Gandia'tar Enrike edeslariak ere, alaxe zeaztatzen bai du bere bigarren argitaldíko "Ario'en aurreko Euskal-Erriaren Sorburuak" argentinatar aturatzaillearen lanari eskeiñitako goratzarreenan.

Euzkotarraren odolmotaíztia, rh ezezkor orrek berezkerazten du, Rh baikorrak, eunetan eun eíñeaz (100%) amerindítarrarena nabarmentzen duan lez, ezezkor sortizantzarik amerindítarrangan ez bai da, ezta amerinditar ori datorren asitar biztanleengan ere. Amerindítarrarengan, ezta ere ez díra aurkítzen BLA 1, BW 29 eta BW 30 soínsare elkarkortasunaren eragingaiak, oiek berezkerazten bai dute euzkotarra BfF, bezala. Orrela bada, antze-iaikintzako aurrerapen berri danak, euzkotarra berezkerazten iarraituko duten txoxtenak emango dituala iragarri gantzake.

Odol-izantza guzti oen osagaietaz, benetan errolda ugari daude egiñak, goronbillo gorrien sortizantzaen aurkako araubideak, goronbillo txuri sailleenak, soinsa-reenak, artzigaienak, oien mentsak, berezkitasun batzuk ere sortzen bai dituzte eta beste gaiki batzuk, Mendel'en sortizantzazko legeekin danak zorrozki xedatuak eta banango biztanlegoen odolmotak berezkerazten laguntzen dutela eta gaur gaurkoz, ikaskizunak, aien eragiñak ez ezik, sortizantza bera aztertzeraz jotzen bai dute.

Baiña oraindik bide luzea dago egiteko, ikuspegi au obekiago argituko ba'da.

Euzkotarra, bere egiztaburuan Etxeberri'k dionez, "rh ezezkorraren iatorriburua eta Europa'ko aurren bíztanlearen lekukoa", odol garbiari ezin eutsizko iazargoan beti bizi izan zan, aleunka ta aleunka urtetan, (30.000, 40.000 mila urtetan?) lortutako iatorrizko oreka, sortizantzako autaketako sortagi batek autsi zuan arte.

Iazargo au, lekore aldetik etorri zitzaion, Rh baikorrezko bíztanle etorkiñak etxean sartu zitzaizkionean eta sakoneneke biotz-muiñean, euzkotar ama ertunak nozitu eta bizi izan zuan, arek arrotz batekin izandako bere ondorengoa, gaxotasunaren eta eriotzaren xakiakin etorriko bai zitzaion, íkaragarrizko zigorra gurasoentzat.

Ipui zaarretara zaletua litzakenak eta azterketa oiek egin-kidin danak, ba dauka nun aztarrenatu, sukaide txokotan amonatxoak edesten dituzten elezarrak eta euskal aitonon aozbelarrítzak ikasten iardunik, aien artean, guztíz errotuak gelditu bai zaizkigu "euren amatxoei altzotik semetxoak eramaten zizkien basandere eta eila-lamíñenak", neguko supaxtar apalean aipatzen zíranak.

Ipui au, lainkoa'k dakian garaietako da Euskal-Erriari eta iazargo eta burruka au, beste erri batzukin alkatu bezain laxter euzkotarrari sortu zitzaion... rh dalata, ama-seme arteko iazargo ortan, aitamene O-A sailleko ezberdintasunak, beraz baíta ama-seme artekoak ere, erraietako emalumea babesten du, elkarleiaketa ortan kaltekorraiztasuneko baterako bi iazargoagaítik, Rh minberakortasunaren eragiña, txikiagoa bai da. (Oarkuntza au, rh ezezkorreko 500 ezkontzakin, elkar-teziñeko Rh zuten senarrakin Buenos Aires'en gure erroidiztían zeaztatzen da). Amagen Orh ezezkorra eta ARh baiezkorreko semeakin, aurkako minberakortasuna, maiztasun gutxiagoan eta berantagoko eratan azaltzen da.

A sortizantza, euzkotarrari ekarri ziotenak, Europa'ko Iparretik datorren, ala Egoaldeko lurrapatzaillengandik kutsatua izan zan, eritzi asko izan ziran.

Ustekizun ontan, kutsakaizkortasun iazargoaz, ba dala biziztiko aukeraketaren eragin bat oartzera ematen dugu. Aintziñako biztanlegoetan eta endanastu gabekoetan, xíxtorraren gutxitzeaz (A edo B sortizantza bastertuta) sortizantziidea xaiñaren (O sortizantzaren) nagusitzeko sortizantzako iobera orren aurka íartzen da bikoitz iazargoko egoera au, A'dun iaíobearreko aurra (lekoreko sortizantzaren eragiña oso txikia izan arren), O saillekoaren aldean, obegoko aukeran iartzen bai du bizirik urteteko aukera geituaz, beraz baíta bere eragiña ere.

Bí izantza xaiñak, sortizantzideko egoeran, au da, 0 (00) eta rh ezezkorra (rr) erri batek, alako eragin aundiakin, nola iraunarazi izan zezazkean, B sortizantza erabat bazterturik utzita, A sortizantzak gaurko euzkotarragan artu duan eragin aski aundia, onek tipidu dezake.

Baserriaren garrantziaz eta bere gizarteko egokitzeaz mintzatzen zaigu lauregi-berri'tar Pierre (1947) eta ona zer dion: "Euzkotarrak nola iraunarazi dion bere enda garbiari arrigarría da. Australia'ko bertokotar batek, eskimal batek, urez eta izotzaz bakantaratua edo arkaitz mendietako bertokotar batek orrela egítea, ulertzen da. Baiña euzkotarraren bizitokía, euntalako lurbeasleen erdiko bidean eta egugiro goxoko eta apalean egonik nola gorde zuan ain garbia, nola iraunazi zion bere izkuntzari ezin sinistekoa da. Euzko baserria, babestokí eta zaíntoki bat izan da euzkotarraren elearentzat, bere erri-iaikintzarentzat, asaba zaarrendandik artu zuten ondarearentzat, are eta oiturentzat eta baita ere bere endarentzat". Eta au dio gaiñera: "Baserriko ondarea artoski zaintzeko artzen zuten gurasoak, aren jabe ez zirala egíten ba dakigu, iaurgobidean eramateko artzen bai zuten, orregaitik, euzkotarrak izan bear zuten, beste iatorri batekoak ezin izan zitezken eta egitazko lege au, baztar uztea, iñori ez zitzaion otutzen". Eta aurre-rago au dio: "Esaunda bat ba da, ezagutzeko, alik eta zure urreneko emaztekoa ar zazu" ... Gaur egun ere bulko ori ongi dator eta egokia da, aukeratu bear dan saetsezurra ongi ezagutzea ikuspide guztietatik... eta oar au damaigu osasunari

dagokionez: "asabeen ondarea zaintzeko, gurasoak osasuntsuak izan bear zuten"

Baíña, ainbeste motatako kutsakor gaitzen arrixkuaz osasuna ongi zaíntzen, asabaen ondarea eta etxaldea obekiago zaindu bearrezko asmoak bakarrak eragin ote zíon euzkotarrar iokabide au artzeko? Edo odorengoakin sendiaren beraren ondarea aberastu bearrezko sakonagoko eraginbide batzuk ote zítuan? Izan ere. Gure gizaldíko aurren amarkada arte, oiko birigaitzak eta emamin edo buaren zartailuak gizakía nola zígorkatzen zuten, ez dugu aaztu bear, baíñan, bere soín-ermain eta nokuak, gaitzondorena nabarmenki agerían uzten zioten betirako. Ezagutzen ez zan zerbaitengaitík, gurasoak, ustez ain osasuntsuak bein ta berriz euren semetxoak larriki gaixoturik galtzen ikusteak, nolako naasmen artean eta biotz barrengo naígabeaen utzík zituan oartu gindezke, 1940'garren urtetik aurrera, kutsakaizkortasun iazargoaren argibidea kausitu aal izan zan arte. Euzkotarra, euzkotarrakin batzantzea, onek ixurtatzen zuan. Eta iokabide onengaitik, bere bizitíko izantzakin aiurri bat, gogoitíko araubideko andana batzuk eta iardunbídoko araukera zenbait ere nola moldatzen dituan igarritzen dugu, egunen batean, ez bai dago zalantzarik, sortizantzakin duten euren lotura, azalduko ez dutenik.

Noizdanikorík ez du euzkotarrak. Ludian izotzaroak urtzen doazen garaietara igotzen goaz eta antxen zegoan euzko gizakia bere rh ezkorrarekin, izotzari eta arresiari izen bera ematen díola, ORMA; LURRARI eta ELURRARI; AITZ, arriari eta erro orren bidez bere aurreneko tresna guztiak izendatzen dituala, AZKONA, geziari; AIZKORA, ezpal-tresnari; AIZTOA, labanari; AIZTURRA guraiziai; AITZURRA, ondaitzurri eta AZPILLA, zietari. Garai oíetatik daukagu oroiteraikintza au, ez da argin-lana, EUZKO'tarraren ízkuntza baizik, EUSKERA, zaindu bearrezko erantzupide aundia daukagu. Zergaitík?

Gaurregun, IZKUNTZERRIA'ren edo ABERRIA'ren adierazpena, orlaxe egin ba'genezake, "izkuntza bat darabilkian talde bat", edo aberri orren lurraldearena, "aurren artan ele ortan míntzatzen zan lurraldea", (Guy Heraud'en itzak), izkuntzerriari edo biztanlerriari edo abendari dagokion guztia ezagutzea eta barraiatzea bearrezko egíten al zaigu? Neke ori artu al liteke? Egin bearra al da? Zer doakigu gaurregun danak uritar bezela agertzeaz, danok, berdin-berdin iantzita, gaurko íanzkerara, antza berdíña artu bearrez uxubaxa ibiltzeaz, multzoak erabateratzen gudaletxeetan antzo, alegiñak egiten iardutzea, okiñak orepilla molda lezaken eran oro moldatzeko? Amílvide ortatik zer daukagu oník atera bearra?

Azketsiko al dit lan guztiz iakíngarri onen egilleak, ene lagun ziñak, nik ere lotsagabexko murra sartuta, galdera latz oni erantzupide bat eman naiez, aren lan ederra orrela lardaskatzen dudala iabetzean.

"BATUA" asmatuaz, taldetxo batek ERRI-EUSKERA, alde askotatik aberatsa, orrelaxe erabaterati nai izan du, gudaletxe batean bezela, goitík-beera aginduak emanaz eta EUSKERA jatorraren orde, erriak onartzen ez duan xixtor bat guztion artzera beartuaz. Emen baí egin dala sortizantzaen naasketa, mintzaira iatorraren orde xixtor bat sortzeko, arrotz kutsuz erabat ermaíndua eta txirotua.

Eta arrigarriena, eta ezin sinistuzkoa, gizonik íakintsuenak zirala uste genítuenak eta abertzale sutsuenak iotzen ginduzenak, arrokeriz, atzerakoi ager bildurraz, goiko aulkiak arrapatu bearrez arrapazka edota galtzeko larderiaz, geienak aurpegirik emateko kemenik ezaz, agintarietatik, eleiz-gizonetatik, irakasleetatik eta abertzaleen buruzagietatik, banan-banan moldebateratzen ioan dirala, okiñak orea, pílla batera moldatzen duan legetxe. Gure gizon aundíusteko oiek guztíak, BATUAZ moldatu dituzte, bide onetik ez baíño, amildegira zeramazkinatik zoaztela igarrita ere, kemenik ez dute izan ioku beltz orri iarkitzeko, euren buruak izparringietako argazkietan agertu ezkerro, gizonik goraiapatuenak diran ametsa egiñaz, omenaldiak artu ezkerro, gízurenak dirala sinístuaz, ikustírratietan agerral-diak egin ezkerro, iakintsuen aulkietara laso dituztela eritzi az eta alderdien buru

izendatzen ba'dituzte, lainkotzat euren buruak artuaz. Or daukagu errietako karrika, bideberri eta baztar guztietan, BATU ori, euskaldun iatorrai naaspil latza sortu,; or daukagu irratikuskiñan, gure belarri minberak, marrakaka sorgortzen; or dago izparringietako orri artean, egilleak bakarrik irakurtzen dituan zirriborroetan.

Aleunka eman litezketetik, ona adibide bat: Gure bideberri zabaletan, irakurtzen dan "ZENTZU ALDAKETA", ori, nork igarri lezake "zearbide" bat artu litekela esan nai duanik? Eta gure agintari altsuei, ori ikusita, matrail azalean lotseri izpirik ere ez zaie agertzen, areago oraindik, erri-dirutza izugarriak txautu dituzte orlako eundaka iragarki lotsagarriak baztar guztietan edatzen, euskaldun begien mingarri. Ori ez da ez Euskera eta ez BATUA.

Urtetako indarkeriaz, kokotzarañño geunden euskaldunak, baiño oraingo onek EUSKERA'ren bizia iltzeko tepertu etsian iarri du. Gudaletzekoetakoa bezalako erabateratze guztia, indarkeria da, patxixten iokabidea, erri-eskubide danen zapaltzaillea eta ori egin dute BATUA indarrez iarri izan nai dutenak eta ardiak bezala, txoro-txoro, iarraitu diotenak.

Oraingo gizaldiak baiño "zentzu aldaketa" gutxiagoakin etorriko zaizkigu gazte iatorren gizaldi berriak eta uste itxaropen ziur orrekin agur egingo diot biziari, aiek iasoko bai dute betirako gure ERRI-EUSKERA.

Ene lagun iakintsuaren urratsetara bíur nadin.

Erran dugun guztiaren azken adierazpenerako, orozgain dagoala uste duguna aipatuaz amaituko dugu.

Alde guztietako ikuspidetik gizakia ezagutzea da gure iorana eta bakoitzaren izantza berexiak aipatzea.

Gure Iruxo'tar maiteak "Aberrien Europa'z" ziardun legez, gutxiengoan izkuntzerrietaz iarduten duan Guy Heraud pratzitar irakaslea, "Europa'ko Izkuntzerrietaz" mintzatu zan. Ark argitaratutakoetatik, gogaí oek berexten ditugu. IZKUNTZERRIAK edo ABERRIAK esan nai dutena, ark argi ta garbi berexten du LATERRIAK esan nai duanangandik, azken au bai da "geien batean izkuntzerri garaillearen eragin tresna". Aberriak edo izkuntzerriak ba dira, LATERRI'rik gabe.

Guztiz gaur-gaurkoa da arazo au; orain aurretxoan, garagarrilez, Gemika'n egin da billera bat. Antxen bildu ziran Europa'ko Legebatzarreko, ALE (Europa'ko Elkarkunde lareia) talde bateko alduak, aberririk ez duten izkuntzerrien ordezkari bezala eta "aberriarteko elkarlaguntzako ikurra eta errien buru-iabetza iareia lez, Gemika aitortuaz" eta iakintzaren eta izkuntzaren zapalketa iasaten dutenen erriartzeko eskubide guztiak aitoretsei daitezen, eskabidea egiteko.

"iatorrizko iakintza bat sor lezaken iatorrizko izkuntza bat danean" arengan oiñarritutako adigai bat da izkuntzerria edo Aberría. Eta ADIMENBIDEKO adigai bat, "asabaengandiko bere lurraldea, mintzaira on aintziña batean itzegiten zan bere lurraldea, iatorrizko izkuntzari biurtzean datza. Eta auxe izango da, bestalde berriz, aberria xedatuko duan mugaldea.

Berein alderdi dituena da gízakia; bere-bere izatetik, eta bere izatearen ezagutzatik eta badalazkotik agertzen da gizartean bere iraitziduría. Era ugari orren aurka ekiten dute era-bakarreko siñístokerrak, batasun orí, gízakia dituan era ugari oien beste muturrekoa bai da. Batukerizko siñístoker oiek sortzen dituzte indarragintaritzak, ze margokoak litezken ardura alde bat lagata, eriotzazagazko sustraigaltze lanean iartzen dute alegin guztia, gízataldeakin, multzopillo bat egiten eta laterri iainkotxo aizunari, opari guren bat eskeintzen diote, gízakiaren eta nor-baten izatearena.

Laterrikeriagaitik erri-ezkerarik eta iakintzarik aundienak iltzen dira, multzopillo bateko izakiak edo aien mamu edo iratxoak, sustrairik gabeak, azpegi mentsak, otzeneko apotora otzenari, etsipenezko iarkindarra besterik ez bai diote egiten eta igi-tresna baten atalak biuruta, iarei eta lepalduru izateko aitorsemetzarí utzitetsita, ikaragarrizko bakunzaleen uztarrípean bizitzera etsitzen dute.

Bakunzaleok, gízakia atal berdiñetara eta gízarteko mail soíl batera gízakia


kuturtzen eten gabe alegintzen dira eta gañerako guztiak, bakar orrenpean iartzen saiatzen dira. Eta Alexandre Marc'en esaunda bat biltzen du, ots, gizakia ez dala izan edo izaki... au edo ura izan bakarrik, gizakia au eta ura eta beste ura da izan. Au da: berein eratakoa. Auxe bada, au izatea eta aldi berean beste ura izateak, gauzen gaindik goraturik iartzen du gizakia eta ortik eiki laburteziñeko aren aberastasuna eta berdiñik gabeko goiendea. Giza-aberastasunaren osakaien artean, garrantzitsuenak eta aintzat artzekoenak, errien izkuntzak eta endak dira. Egia da bai eta aitortu bearra daukagu, egi oietan oiñarrituta, erokerizko eta odolkerizko geikeri izugarriak egin izan diralako, egí oietaz zalantza sortu dala edo beintzat susmo txarra. Orregegaitik gaurregun ABENDERRI itzak, askori belarri-mín egiten die: Zentzu oker bat emanda, au al da bada aitzaki guztia, oraíngoan egitazko aberastasun aundi bat ondatzeko eta beartsu biurtzeko? Ala endaeen edo abenderrien egi argia ukatzera io bear al dugu?

Izakiaren eta izatearen norbere eskubidearen eta buru-iabetzaren bame ezagutza au, gizakiaren gaillaldi eta berezintasun bat da. Zuzenbiderako oiñarrizko leenegia da, elkar iardutzeaz batera, auxe bai da araubideko oiñegia, gizakiaren nor-baten, bera danez, aurkezteaz, iakintzan, diru-arazoetan, erri-gintzan eta gizarteko mail guztietan, ontartea ekartzen bai du. Ez du gizakiak aberrigabetu bear, ez dio bere abenderriari, bere izkuntzari eta erri-iakintzari uko egin bear, izkuntza orrek sortzen bai dio minberakortasun biozkoi bat eta aiurri eta izakera berexi bat.

Ezta ere, ez du bere iatorrizko nortasuna, beste bategaz ordeztu bear, berean kirmen irauin bear du. Eta gizarteak ere, endaeen saillekoai, aundiak ala urriak, elkarrenganduak ala sakabanatuak, azkatasunerako eta zabalkunderako giro ona eskeiñi bear die; Laterriak ere, ABENDERRIAI, begirune izan bear die, aiek eman bai diote ari ere sortzea; endrezu eta laguntza ona ere eskeiñi bear die bere legeak ezarritzen dizkién eta bere lurraldean dauden enda sail guztíei. gutxiengo abendai begírunik ez ba'die, aien duintasunaren eta berdiñeko giza-ezkubideen aurka eraso eta eranketa larri bat egiten du.

Aberrien ezagutza oberako, iakintzazko eta zentzuzko azterlanen bidez ezagutza ematen dan guztía, gizakia iatorragotzen laguntzen du eta baita ere bere orozgaindiko izatea, lainkoa'ren idurira eta antzera bai dago egiña gizakia eta gaur, lñaki Deunaren Eguna ospatzen dugunez, aren ikurritzen araura, guk ere itzaldi au, "lainkoa'ren aintza aundiñorako egiten dugu.

Maria Elena Etxeberry de Irujo





FILOSOFI GAIETARAKO IZTEGI TXIKIA (11)

EIDETICA (Eldétique/Eidetic) IZAKI-IZTIA

"Eidética" itza griegozko EIDOS (izate) sustraitik dator, eta izakiari buruzko jakintza esan nai du. Bi adibide ipiñiko ditugu, "eidética" eta "eidético" nola euskeratu ditezken ikusteko: 1) "La eidética analiza, investiga y profundiza cuanto dice referencia al ser", "Izaki-iztiak, izateari dagokion guztia aztertu, ikertu eta sakontzen du"; 2) "Se han realizado diversas investigaciones eidéticas", "Izateari buruzko zenbait iker-lan egun dira".

ELAN VITAL (Vital force) BIZI-KEMEN

Bergson jaunak darabilki itz ,au. Bizi-kemenaz mintzatzen da batez ere "La evolución creadora" deritzan liburuan. Jainkoak gabeko biologia (bizi-iztia) egin nairik, izagaiak berak ornen du berez bizi aal izateko indarra. Misteriozko astintze batek suspertzen ornen du izan-gaia ("materia"), biziaren maillara ekartzera. Eta, Darwin'en eskolan jarraikiaz, berenezko birtutez indartzen ornen dira bizidunak, gero ta edertasun obean sor ditezten. Etenik gabeko aldaketa orren bidez sortzen ornen da giza-adimena ere, eta adimenak berak egiten ornen ditu egizat artzen ditugun gogaia. Orrelako itxuragabekeriak esanez illundu nai luke, Jainkoak ematen duan biziaren argia.

EMPIRISMO (Empirisme/Empiricism) OAR-ESKOLA

"Empirismo" itza griegozko EMPEIRIA (oarketa) sustraitik dator; eta, filosofi eskola dan aldetik, oar-ikasiz bakarrik omitzen dala dio gizonaren jakitea. Ikusikasiaz, alegia, eta alde aurretiko iritziei tokirik eman gabe. Esan dezagun ordea, ontara ezker, oso beste aldekoa izan zala ordurarte Descartes'en pentsakera. Filosofo onentzat, norberak dakarki mundu ontara bere irizkera, alde aurretiko gogapenak jatorriz, au da, odolarekin batean artzen ditualako. Ustebide au zokoratuaz, Hume famatua izan zan OAR-ESKOLAREN sortzalea, eta beste askoren artean, bi liburu zabaldu auek idatzi zituan: "Tratado de la naturaleza humana" (1739) eta "Ensayos sobre el entendimiento humano" (1748). Beroietan dionez (eta auxe da OAR-ESKOLAREN mamia). Descartes'ek "jatorrizko" dirala dion gogaia, oar-ikasiaz gureganatuak dira. Eme oartzeari ematen dio Hume'k benetako garrantzi.

Eta, geroztik jaotako "psico-análisis" ("gogo-ikerketa") adora baldin ba'goaz, 'oarmen eme' ori ("atención flotante" ori) oso ornen da onuragarri, zenbait gai-

xoen gogo-kezkak eta buru-naspillak sendatzeko. Gaur dan egunean OAR-ESKOLAK jarraitzale asko ditu.

ENTROPIA (Entropie/Entropy) BERO-BERDINTZE

"Entropia" itza griegozko ENTROPE (berdinketa) sustraitik dator; eta ALDAR-TERIK-EZA edo BERDINTZE esan nai du. Fisikaren arloan ENTROPIA itzak, "termo-dinámica" deritzaion BERO-INDARRAREN bigarren legea gogorazten digu. Lege orí Sadi Camot'ek asmatua (1824) eta Clausius'ek geroztik landua izan zan (1850). Orregatik Camot-Clausius lege esan oi zaio, eta berak díonez, "bero-índarrez dabillen makinak ezin dezake dana, "bero-índarra ezin díteke lan-índar biurtu, nolabaiteko bero-galtze edo oztasunik gabe". Lege onen esanera, berotasunezko lan guztietan zenbait indar galtzen da; eta indar-aultze orri (epeltze orri) "entropia geitze" esaten zaio.

EPISTEMOLOGIA (Epistémologie/Epistemology) EZAGUTZE-IZTIA

Griegozko EPISTEME itzak jakinduri edo ezagutza esan nai du, eta EPISTEMOLOGIA esateko bakarrik erabiltzen da. Jakintza onek, Inglaterrako filosofoen oitura danez, "teoría del conocimiento" sakontzen du: giza-gogaiaik eta ezagupenak nundik eta nola sortzen diran. Frantzi aldeko filosofoen artean, berriz, beste gai batzuk ere ikutzen ditu: jakintsuen izkeraren antolabidea, itzek jakingai batek bestera dífuzten aldaketak, jakingai bakoitzaren mugatzea eta abar.

EROS

Greztarren arteko mito-kondairan sasi-jainko asko agertzen ziran: "Hercules" indartsua, "Marte" gerralaria, "Neptuno" itxas-jabea, "Saturno" festa zalea, "Jupiter" guztien gaiñekoa, eta, beste askoren artean, "Eros" maite-griñaren iturburua. Platon'ek, EROS itzaren bidez, aragi-griña eta bízi-naia (iraun gogo) adierazten ditu; eta, iraun-nai ori aípatzean, goietan dan Izakiarenganako irrika agertzen du. Freud'ek, bere "psico-analisis" (gogo-ikerketa) egitean, aragi-griñatzat artzen du EROS izena.

ESPIRITUALISMO (Spiritualisme/Spiritualism) ESPIRITU-ESKOLA

Filosofi eskola onek, bere izenak berak díonez, espiriturik ba-dala erakusten du; bañan, "espíritu" izenez, ez degu sorgin konturik gogorazi nai, Jainkoak egindako animak baizik. Esan dezagun, gauza pozgarrí danez, antziñako filosoforik argitsuenak (Aristoteles eta Platon) fededunak izan zirala beren erara. Aristoteles'ek, Jainkoa espiritu uts zala erakusten zuan, espiritu guztiz bikain; eta, guk nai ízan, ez izan, gure burura datorren pentsamentua dala Jainkoa, egiazko gogapen dizdiratsu dalako. Platon'ek, ala berean, anima presondegian bezela atxiloturik zegola zion, korputzaren baitan. Pentsalari fededun guztiak, edozein eratako izan, zalantzarik gabe eta iritzi batez onartzen dute ESPIRITU ESKOLA, adimenaren eta goi-fedearen erakutsiekin elkartzen dala aitortuaz.

ESTATISMO (Estatisme/State Control) Estaduaren ESKU-SARTZEA

Gaztelerazko "estatismo" itzak bi zentzu izan dezazke: "geldi egote" edo "gelditasun" (latíñezko STARE aditzetik etorria) eta LATERRI (Estado, Nación) itzetik datorrena. "Estatismo", azken zentzu ontan, Laterriaren aldeko filosofi eskola da; eta, bai ekonomi legeak, baita gizarte bizitzako gora-berarik nagusienak ere, Laterriko gogemuaren zaípean begiratu bear dirala erakusten du. Jakiña, Esta-

duaren ESKU-SARTZE ortan zenbat buru ainbat aburu sortzen dira; eta, politika guztien mamira joan ezkerro, ortxe geienbat arkitzen dala dirudi, munduko gobernu-moldeen ez-berdintasuna.

ESTETICA (Esthétique/Estetics) EDER-IZTIA

Griegozko "aisthesis" itzak "oarmen" edo "sentípen" (senti aal izate) esan nai du, eta ortik dator EDER-IZTI deritzaion jakintza. Ba-du gizonak, izan ere, edererrako nabaimen berezia. Berezko sentípen jatorra, alegia, eder-lan guztien iturri. Dala "olerti" (poesigintza), dala "antzerki" (teatrogintza), dala "ereserti" (musikagintza), dala beste edozein erti-lan, noiz esan diteke EDER-LAN diranik? Ze rlan datza EDER izatearen muin xoragarria? Eta zerk ematen dio giza-biotzari EDER dan guztiaren zírrara gozoa? Mami aundiko galderak auetxek, ase-ezínzko espirituaeren adierazgarri. Orrexegatik, nunbait, gizadiko filosofi-zale geienak míntzatu izan dira EDER izatearl buruz, eta lurralde guztietan ikusten ditugu EDER-ZALE dan gizonaren aztarrenak.

Kant'ek bi liburu ditu gai ontaz: "Observaciones sobre el sentimiento de lo bello y lo sublime" eta "La analítica de lo bello". Azken au, "Crítica del juicio" liburuaren zatirik garrantzitsuena dala esan genezake. Iru iritzi aukerakusten ditu eder-izateari buruz: 1) edertasunak juzgu soilla ("desinteresado") eskatzen du, eta ezin erantsi genezaiok zentzuen oarpen utsa beste baliorik; 2) juzgu orokorra nai du. "Universala". Bañan gogaírik gabea, au da, adímenaren laguntzarik gabea; 3) eder-lana berez da osoa, bere baitan burutua, eta ez du atsegiñezko zírrara senti-araztea beste elbururik.

Hegel'ek, ala berean, orra zer dion gizonaren eder-zaletasunari buruz: bere barena agertu eta kanpoko mundua nolabaitez bereganatzeko, ez duala gizonak eder-lanak bezelako gazarík. Artistaren (ertilariaren) barne-gogaiak mamitu egiten dirala bere eder-lanean, ezín- ausizko nortasun trinkoa agertuaz. Ikus onen "Estética" liburua, Paris'en (1965) argítaratua.

ESTRUCTURA (Structure) EGITURA

ESTRUCTURACION (Structuratlon/Structuring) EGIN-BIDEA

Ona emen erderazko bi itz auker, "estructura" eta "estructuración", elkarren antzeokoak bañan ez berdín-berdiñak. "Estructura" eusker az EGITURA esan ditek, eta gauza zer dan, nola egíña dan, zein eratan borobíldua dan, agertzen digu. "Estructuración" itzak, berriz, gauza zein bidetatik eldu zaigun, nolako pausoak emaník datorren, eta bera antolatzeke zer egin bear izan dan, esan nai du. EGITURA geldia da, EGINBIDEA eraginkorra; bañan biak EGIN familiakoak, gai berekoak.

ESTRUCTURALISMO (Structuralisme/Structuralism) ANTOLA-IZTIA

"Estructuralismo" deritzan filosofi eskolak dionez, mundu guztiko gauzak beren egín-moldetan eratuak daude; eta, egin-molde oietako multzo bakoítzean, osagaiak bildu, aldendu edota elkarren gaiñera pillatzen dira, batasun-legerik urratu gabe. Eskola au, teori edota ekintzabide bezela artu leike. Ekintza kontuan, ANTOLA-IZTIAK bi lan-soro aundi ditu: izkuntzak eta abendak (arrazak). Izkuntza bakoitzak bere bame-erakunde berezia dizu. Itzak eta oien arteko joserka ez daude itxura gabe moldaturik, mintza-lege egokiz baizik. Orretaz gaiñera, mundu guztian diran izkuntzak ainbeste eta ain desberdiñak izanik, ba-dute geinetan beren arteko zer ikusirik. Ori eta beste arazo asko azertzen dira ANTOLA-IZTI izeneko jakingai ontan. Beste orrenbeste esan genezake giza buruz. Abenda zer eta nola sortzen dan, abendaen arteko arremanak,

leñu ta sendien arteko aidegoa zer dan, errien kultur-mailla nola mugatu ta neurtu díteken, eta beste ezin konta ala jakingarri ere ikertzen dira. Eskola onen sortzallerik ezagutuena Sausure F. izan da. Ginebra'ko Universidade Nagusian zenbait irakas-aldí egíñak ditu, 1905'tik 1911'ra bitartean, eta bere "Curso de Lingüística general" liburuan argitaratuak.

ETNOGRAFIA, ETNOLOGIA (Ethnographie, Ethnologie/Ethnography, Ethnology) ABENDA-IZTI, ABENDA -ELESTI

Giza-abendari buruzko bi jakintza auek, elkarren antzeko izanagatik, ez dira naastu bear. "Ethnos" (arraz) gai bera alda banetatik ikutzen baít dute. ABENDA-ELESTI edo "etnografía" dalakoa munduko abenda guztien berri ematen dígu. Nun (zein tokitan) diran, nolako bízi-oirurak dituzten, zein jakín-maílletan dabilizan, eta inguru ortako milla xeetasunen berri. ABENDA-IZTIAK, berriz, enda-elestiaren albisteak jasorik, laburpen eta azterketa sakonak egín oi ditu, abendak eta erriak beren kulturaz sailkatuaz. Bata berri-emalle degu, beraz, eta bestea azter-zale.

GEOMETRIAS EUCLIDIANAS (NO EUCLIDIANA), Euclidiennes (Non euclidennes) Euclidéan, Non-Euclidéan Geometries (EUKLIDES'EN NEURRIZTIAK eta BESTELAKOAK)

Grezi'ko Tolomeo erregearen aginduz, Euklides'ek garai artan ezagutzen ziran neurritzi guztien bilduma egin zuan, amairu liburu idatziaz, Jesukristoz aurretiko irugarren mendean. Bílduma ederra benetan. Ugaria, ongi omitua eta aberatsa. Orixe da, sortaldean degun aurreneko neurritzi osoa, buruz eta kontuz tajutua. Or arkitzen baít dira, era arrigarriz antolaturik, antziñako arabitar jakintsuen matematika-lan asko. Arrezkeroz, eta ogei mendeen joan-etorrian, beti uste izan da ezin zeikeala au beste neurritzírík izan. Kant'ek berak, "espacio" edo zabaldua zer dan adieraztean, Euklides'en neurritzi eran eusten dio. Esan dezagun, ordea, XIX garren mendetik onera, Euklides'en erako ez diran neurritziak jaió dirala, gaurko fisika berriaren argipean. Oieí zor diegu, batez ere, egunik egun sortzen ari diran aurrerapenen emana.

EVOLUCION (Evolution/Evolution) ALDAKUNTZA

"Evolución" itza latiñezko "evolvere" aditzetik dator; eta, egoera batetik bestera igarotzean sotzen dan aldartea, esan nai du. "Evolución" ez da, indarrez eta bat-batean egindako iraultza; astíro eta onez-onean datorren aldakuntza baizik. Itz onen ondoan, eta bera ardatza dalarik jaió dira, ALDA-ZALE deritzaien filosofi eskolak.

EVOLUCIONISMO (Evolutionisme/Evolutionism) ALDA-LEGEA

Batzuek era batean, besteek bestean, "evolucionista" edo ALDA-ZALE izeneko pentsalari guztiek lege auxe dute nagusi: ALDAKUNTZAREN LEGEA. Charles Robert Darwin (1809-1882) izan da teori onen su-emallea. Ogei ta bi urteko gaztea zala, "Beagle" barkuan sartu, eta bost urtean aritu zan bere aurreneko bioloji ikasketak egiten. Gero Ingalaterra'ra itzulirik, bere gogozko BIZI-IZTI lanetan jarraitu zuan, nekazari eta landarelarien artean. Bost urteko itxasaldi artan bururatu ornen zitzaion aurreneko alda-legea. Eta, lurbira zabalean diran landare ta animalí motak nola sortu diran adierazteko, oien arteko burrukari eman zion garrantzi. Landare motak ezezik (klabeliña, tipula, pagoa, garoa...), animalí saillak ere (xagua, beia, otsoa, zirauna...) denboraren denboraz pitinka izatez-aldatu egiten

dirala itxuratu zitzaion, orrelako aldaketarik sekula ezagutu ez ba'zuan ere. Eta gizona bera ere (korputz eta anima) tximutik-edo omen dator, alajaña. Zenbat zozokeri esaten diran, Egi-Eguzki dan Jainkoari begiak itxitakoan!

Darwin'en itxurakeri oiek zearo ukaturik, Pierre Teilhard de Chardin (1881-1955) frantzitar jesuita txit jakintsua, kemenik aundienaz saiatu da, fedezko diran egia eta giza-jakintza guztien aurrerapenak elkartzen. Alabañan, eta "darbinke-ria" pikia bezain kutsukorra dalako, noski, Erromako "Santo Oficio" eliz-batzordeak agíndua emanik dauka, 1962'ko ekainaren ogei ta amarrean, Teilard de Chardin jaunaren idaz-lanak arriskugarri dirala esanez, eta maisuei gazteak arrisku oietatik zaintzeko erregutuaz.

EXISTENCIALISMO (Existentialisme/Existentialism) IZATASUN-ESKOLA

Ona emen eskola oni geienik ajolutzen zaizkion iru galdera: Zer da gizona?, zer da mundua?, zer da Jaungoikoa? Edota Kant'ek zionez: Zer egín bear det, zer jakin dezaket?, zer itxaropen zillegi zait? Bakoitzak, jakiña da, bere filosofia-ren esanera erantzungo galdera oiri. Gure izatasuna uka eziñezko egia zaigu, eta gogakizun ortatik asten dira pentsa-lanean eskola ontako filosofo guztiak, edozein iritziko diralarik. Oien artean Heidegger eta Sartre, adibidez, Jainkork gabeko itzatasun-eskolaren aldekoak dira; Kierkegaard eta Gabriel Marcel'ek, berriz, kristau-legepeko izatasun-eskola aitortzen dute; eta beste batzuk (Merleau Pont, Jaspers...) alderoka dabilta, nora joko erabaki gabe, Bañan, zein dira filosofoetan izatasun-zaleak? Ez da erreza galdera oni erantzuten. Emmanuel Mounier'ek idatzitako "Introducción a los existencialismos" liburuan, idazle oien zerrenda ipintzen digu, zugaizaren moduko marrazkia egiñik. Arbol orren sustriak Sokrates, Estoa'tarrak, San Agustín eta San Bernardo dituzu; enborra Pascal, Maine de Biran, Kierkegaard eta fenomenon-zaleak; adar bat Nietzsche, Heidegger eta Sartre; eta beste adar bat Jaspers, Gabriel Marcel eta zenbait errusitar komunista sinismen bidera itzuliak (Berdiaeff, Soloviev), eta oien ondoan Buber eta Barth teolójí-zaleak. Oietzaz gaiñera, beste filosofo frantzitar asko izendatzen dizkigu, eta alaz ere ez ornen da orrela burutzen izatasun-zaleen zerrenda. Nobela'gílleen artean, batez ere, ezin konta ala idazle sar ornen ditezke filosofi eskola ontan.

Federik ez duten izatasun-zaleak (Sartre, Nietzsche, Heidegger, Camus...) izugarri naaspiltzen dira, gizona zer, zergatik eta zertarako dan argitu eziñik. Fededunak, berriz, (Pascal, Kierkegaard, Gabriel Marcel...) Agustín Santuaren bidetan dabilta. Onek onela esaten bait zion gizonaren izate aundia aitortuaz: "Zuretzat egin gaituzu, Jauna, eta larri dabilkigu biotza, Zugan atsedean dezan arte".

EXPERIENCIA (Expérience/Experiment) IKUS-IKASIA

"Experiencia" itza latiñezko EXPERIRI aditzetik dator, eta iru zentzu nagusien ditu: "conocimiento práctico", "prueba, ensayo" eta "costumbre, hábito". "Conocimiento práctico" adierazteko, onelako esakerak erabil ditezke: "Nik neronek (zuk zerorrek, arek berak..) ikusia (entzuna, ikutua, irakurria, eramana...)". Beste esakera auek ere ongi datoz "ikus-ikasía", "oar-ikasía", "jardunean ikasia", "arfan ikasia" eta abar. "Prueba, ensayo" esateko, "saio", "saio-aldi", "alegin", "leiaketa" eta abar dauzkagu. Eta "costumbre, hábito" esateko, "oitura", "aztura", "usario", "ekandu" eta abar.

EXPERIMENTACION (Expérimentation/Experimentation) SAIOKETA

Asko dira, saio bidez (saioketaz) indartutako jakintzak: fisika, kimika, bioloji edo bizi-iztia, mekanika eta gaurko teknikaren ondoan datozen guztiak, batez

ere. "Saíoketa" itz egokia deritzaígu, giza-alegin oiek adierazteko. "Método experi- mental" esateko, berriz, "saio-bide" edo "azter-bide" ("iker-bide") erabil diteke.

FACTICIDAD (Facticité/Facticity) EGIÑA IZATEKO GAITASUNA

"Facticidad" ítza Sartre'k sortua da; eta, beronen pentsa-moduz, itz onek gure izatearen kazkarra du. Ez omen degu gizonok, iñolaz, izateko arrazoi erakusterik. Zergatik geran, zergatik geran au eta ez beste au, zergatik ditugun akats auek eta ez beste auek, zeri esker geran, eta ezer ote geran eta milla onelako galdera erantzunik gabe gelditzen díra Sartre illunaren filosofian. "Facticidad" beraz gure utsaren seña ornen da; eta, ezer baldin ba'gera, beste zerbait izan ornen gin- dezkean. Beste era batean egiñak, alegia. Eta orixe omenda gure "facticidad" edo "egíñak izateko gaitasuna". Zenbat illuntasun, federik ez duten filosofo oien buru-biotzetan!

FANTASMA (Fantasme/Fantasy) IRUDIPEN

Erderazko "fantasma" itzak bi esanai izan dezazke. Bata "duende" edo "es- pantajo", euskeraz "mamu", "iratxo", "mozorro". Bestea "impresión imaginativa", euskeraz "irudipen". "Visión quimérica", berriz, "ameskeri".

FEED BACK

Inglesezko bi itz auek erabiltzen díra, gaurko fisika berrian, berenez mugitu eta mantendu oi diran makinak adierazteko. "Electrónica" dala bide lanabes asko dira gaurko egunean, gizonak eskuz ikutu gabe lan betean ari diranak. Makina oiek unerik une artzen dute gizonaren aginduz, egin bear duten lanaren berri; eta, orixe zeatz-meatz egiñik, ez dute gizonaren beste laguntzarik bear, eman zaien egitekoa burutzeko. "To feed" adítzak, ingelesez, "berez mantendu" esan nai du, eta ortin dator "leed back" (berezko indarberritze).

FETICHISMO (Fétichisme/Fetichism) SINISKERI

Esan dezagun aurrenik, "fetiche" eta "ídolo" bi gauza dirala. "Sasi jainko" da "ídolo", eta "sasi jainkokeri" idolatría. "Fetiche" dalakoak, berriz, jainkotzako gau- za izan gabe, ba-du azti, sorgín eta "parte txarreko" siniskeriarekin zer ikusirik. Jentillen artean, sinis-bearraren indarrak eraginda, nunbait, itxurazko ez dan fedea gorde oi diote, naiz norbaiti (azti, sorgín, sendatzalle izenez ari danari), naiz zerbaiti (egur, arri, panpiña edo andare, makil, edota beste munduko birtu- tez jazten duten gauzari). Fedegai aizun orri deritzaio beraz "fetiche", euskeraz SINISKERI. Ala berean, eta sekso-gaietara baldin ba'goaz, "fetiche" ere.

FONEMA (Phonéme/Phoneme) ABOTS

Deitzen dira, zora-bearrezko eran irrikatzen diran zirtzilkeriak, dala soñeko, da- la liburu, dala beste edozein itxuragabekeri. Irrikagarri oien mendean dabiltzanak, benetako erdi-txoro gaixo errukarri dituzu.

FINAUSMO (Finalisme/Finalism) ELBURU-ESKOLA

Filosofi eskola onek dionez, bitzta eta mundu guztia aurretik antolatutako elburuaren neurrira sortuak dira. Elburua da, izan ere, buruz lan egiten duanaren jo-muga; edo, berdín dana, giza-eraz ari danaren gogoá. Gure asmo, gure xede, gure arrazoi orixe da, ain zuzen, giza-izateari bikaíntasun ematen dion legea.

Nola beraz pentsatu, ain ederra dan bizitza eta mundua itxumustuan eta zentzurik gabe egíñak izan diranik? "Gaí-zale" edo "materialista" diranak izugarri búrrikatzen dira, elburu kutsuzko pentsa-bideak ukatzeko. Ezin bait diteke ELBURU-ESKOLA ontzat eman, sinistu nai ez duten Jaungoikoa aitortu gabe. Biurri gogorra egin bear zaio giza-adimenari, zentzuen bidez ezagutzen ditugun gauzetatik goragoko maillera ez igotzeko.

FINITUD (Finitude) USTASUN

"Finitud" itza berri xamarra da filosofi gaietan; "existencialista" edo "izatasun-zale" diran pentsalariak sortua. Zer esateko, ordea? Aurreneko begídatuan badirudi "finitud" ori, giza-izatearen txíkitasuna (koskortasuna) dala; bañan, izatasun-zaleen izkeran, "finitud" itzak "ezereztasun utsa" (ustasun ezereza) esan nai du. "Existencialísmo" itza aipatu genduanean, eskola ontan bi eratako filosofoak zirala geníon: fededunak eta gabeak. Aurrenekoentzat "finitud", gizonaren beera bearra (il bearra) besterik ez da. Gertabear latza, noski, bañan sínismenaren argiz pozgarri biur ditekena. Federik ez dutenentzat, "finitud" itzak giza-izatearen utsa adierazten du. Bizía oientzat erioa da. Eriotzak ematen omen dio gizonari bere ezereztasunaren neurria. Biziak ez bait du oientzat beste zentzurik. Eman aal diteke ontzat, orrelako frutu pozoituak eskeíntzen dituan arbola?

FONEMA (Phonéme/Phoneme) ABOTS

Izketan ari geranean, aoz egindako ots bakoitzak izki bakarra (lagunik gabea edo bokala) edota zenbait izki lagundun (konsonante) adierazten ditu. Bost bokalak iru eratan ager ditezke: banaka (a, e, i, o, u), konsonateari erantsita (la, me, ni...) eta binaka (gau, bai, loi...). Izkuntza guztiek ez dituzte konsonante berak. Euskerak, adibidez, erderaz esaten ez diran zenbait izki lagundun ditu: (tz, ts, x). Zeta izeneko konsonantea ere bígunxeagoa da euskeraz, erderaz baño. Desberdintasun oiek ematen díote izkuntzari bere doñu berezia. Itzak esateko eran ere arrigarrizko ugaritasuna nabaitu diteke: izkin edo silaba batzuk epañaez bakarrik aozkatzen díra (ma, me, ba, be, pa, pe...), beste batzuk míngañez eta ao-sapaiez (la, le, ra, re, ña, ñe, na, ne...), bat edo beste eztarriz (ja, je, jo...) eta zenbaitzuk mingaiña eta ortzak urreratuaz (za, ze, zi...). Bañan, izkuntza bakoitzean, eta bear bada íztun edo izlari bakoitzean ezin konta ainbateko doñu eta mintza-modu entzun ditezke. Nola mugatu, nola erabaki mundu zabalean dabiltzan milloika milloi mintza-doñu eta abots berezi?

FONOLOGIA (Phonologie/Phonetics) ABOTS-IZTIA

Ala deitzen zaio, izkerai buruzko jakintzari. Oraindik oraingo lan-soro ontan, idazle auek ditugu ospatsuenak: Ferdinand Saussure (1857-1913) Ginebran irakasle izana, Troubetskoi N.S. Praga'n aurrekoaren jarraitzalle, André Martinet Paris'en izen aundíkoa, eta beste zenbaitzuk (Bloomfield, Sapir, Bloch, Hackett...) Ipar-Amerikan. Izkuntza barrengo arazoak banaka aztertuz gaiñera, asko ari dira ugaritzen izkuntzaen arteko iker-lanak eta alderaketak.

FORMA (Forme/Form) ERA

"Materia y forma", eskolastikoen artean asko erabiliak, euskeraz GAI eta ERA izango lirake esan-nai soillari jarraiki; bañan ontoloji barrengo itzak diranez, IZAN itzarekin lotzen díra, eta ortaz "materia" diogunean IZAGAI, eta "forma" esatean IZAKERA erabil genezake. Bi oien pareko ere dira "esencia" eta "existencia". "Esencia" ZER-IZATE izango litzake, eta "existencia" IZAN, IZATASUN,

IZATE. Ala berean, "potencia". AALMEN edo AAL-IZATE esan ditekete, eta "acto" EGIZ IZAN.

FORMALISMO (Formalisme/Formalism) ARAU-ZALEKERIA

"Formalismo" esaten da erri-izkeraz, ZER egin danari baño, NOLA egin danari garrantzi geiago ematen zaionean. Esate baterako, oroz gain ARAUA eta legea gordetzen diranean, naiz eta lege izenez bidegabekeria estaltzen ba'da ere. Moraltasunaren aurkako lege irrika orri ARAU-ZALEKERI dei genezaiokete. Filosofi gaietan, berriz, "formalismo" Kant'en moraltasunari erasten zaion itza da. Onek, izan ere, naitanaiez obeditu bear dala dío, agintzen dana ZER dan (bidezko gauza dan, ala ez) begiratu gabetanik. Menpetasun itsu ortan dago nunbait Kant'erentzat, esana egítearen ontasuna. Ez al du irizpide onek "diktadura" gogorren ustel kerurik botatzen? Gure Loyola'ko Inazio Santuak "perinde ac cadaver" obeditu bear dala dionean, goi-fedearen sendotasunean oiñarritzen du buruz ezezik biotzez ere eskeñi bear dan mendetasuna.

FUNDACION (Fonction/Function) ARREMAN-REKIKO

Erderazko "en función de" esakuntzak nolabaiteko arremana adierazten du. Bi gauzaen arteko lotura edo zer-ikusia. Kant'ek díonez, elkartasun ori gorde oi da edozein gauzeko osagaien artean. Osagai bakoitzak bestearekiko zer-ikusirik bai bait du.

GENETICA (Génétique/Genetics) JATORRIZTIA

"Genética" izeneko bioloji jakintza onek jatorriak (leñu, talde, arraza) aztertzen ditu. Nundik datoz eta nola sortzen giza-abendak? Zein dira, jatorri kontuan, gizonen odol-legeak? Zergatik eta nolako maiztasunez datorkie seme-alabai beren gurasoen, edota beren aurreagokoen soin-antza? ... Berria da, esateko, jatorri legeen jakintza au, eta Juan Gregorio Mendel du maisurik ospatsuenetakoa. Agustindar praillea izan zan, Austria'n, Brünn'go konbentuan bizitua (1822-1884). Trebetasun aundiko saioketak egin zituan, bai landaretan, bai animalietan ere. Eta, lan guztien fruturik ederren bezela, zenbait jatorri lege nagusi sumatu, argitu eta txukun sailkatu zituan. Onela sortu bait zan, bioloji-zale guztien aotan dabillen MENDEL ESKOLA.

Zatitze legea eta menderatze legea dira, ain zuzen ere, Mendel'ek landutako erakutsirik zabalduenak. Ikus ditzagun laburki.

Zatitze legea.—"Gau lore" izeneko bi landare mota (batzuk lore gorridunak eta besteak txuridunak) elkar txertatu ezkerreko, lore txuri-gorriak emeko; landare naasi auek beren artean txertaturik, iru jatorri sortuko: erdi bat txuri-gorri, laurden bat gorri eta beste laurdena txuri; eta gorriak gorriekin, txuriak txuriek eta txuri-gorriak txuri-gorriekin elkar naasi ezkerreko, gorrietatik gorri garbi etorriko, txurietatik txuri garbi, eta txuri-gorrietatik atzera (bigarren txertaldian bezela) iru jatorri era berean agertuko. Lege oni "zatitze lege" deritzaio, aurreneko landareen kolore bereziak bigarren eme-aldian alde banetara zatitzen diralako.

Menderatze legea.—Arratoi arreak (grísak) eta txuriak alkar naastean, ondorengo guztiak arre jaiotzen dira aurreneko araketan, eta ba-dírudi kolore txuria erabat galdu dala; bañan, arre oiek elkar naastu ezkerreko, iru arratoi kolore ertengo: erdiak txuri, laurden bat arre garbi, eta beste laurdena txuri garbi; landaretan ikusten genduan aldarte bera gordetzen dalarik. Onela beraz ager ditekete jatorri-lege au: "Arremeak elkar estaltzean, indartsuenak (menderatzalleak) ez du au lena ezerezten, bere mendeen izkutatu baizik, geroago erten dedin". Aundiak dira JATORRIZTIAK nekazaritzari eta abelgintzari ekarri dizkien mesedeak.

GEOSFERA (Géosphere/Geosphere) LUR-MAILLA

Teilhard de Chardin'ek "geosfera" itza darabilki, bizi geran mundu onen lur-gaiña adierazteko. Iru iza-mail aipatzen ditu, "biosfera" itza oroitzean genionez: "biosfera" edo bizi-mailla (bizidun guztien mundua), "noosfera" edo gogai-mailla (gogai eta pentsakizunen mundua), eta "geosfera" edo lur-mailla (gaidun izaki ez-bizien mundua). Iru iza-maillak batasunik ederreanean elkartzen dira.

GESTALISMO (Gestaltisme/Gestalt Theory) ERNALKERA

Von Ehrenfels síkolojí-zale Viena'tarrak **Gestaltqualitäten** izeneko idaz-lan bat egin zuan, 1890 garren urtean, giza-pentsakerari buruz; eta arrezkeroz Ipar-Amerikako zenbait síkoloji-maisu jardun dira gai oni berari eragiñez. Oso ezagunak díra K. Goldstein, P. Guillaume, W. Kohler eta K. Koffka jaunen idaz-lanak, eta guztien artean sortu zaigu giza-gogoia edo "psíquis" nolabait agertu nai luken teori berria. Ezin díteke filosofi eskola danik esan, ez bait da juzgu bidetan sar-tzen. Gure gogo barrenaren ekin-lanak ezagutu nairik, banaka aztertzen ditu oar-mena, sentimena, oroimena, arreta eta abar. Nola emaltzen dira, nola jaíotzen, giza-gogoaren indar bikain oiek? Orixe da "gestalismo" edo ERNAL-BIDE deri-tzaion teori onek asmatu nai lukena.

HERMENEUTICA (Herméneutique/Hermeneutics) AZALPEN-ARAUDIA

"Hermeneútica" esan oi zaio, Liburu Santuak azaldu edo adierazteko legeen bildumari. Eskrítura Donea agertzeko gorde bear dan araudiari. Liburu Santuak, guztíak Jaungoikoaren goi-argiz idatziak izanik, giza-idazle askoren lana dira. Garaialdí txit desberdiñetan burutua. Orregatik, ezin ditezke edozein eratan iraku-ri, eta are gutxiago ulertu. Adierazpen zuzena erantsi bear zaie, eta ortarakoxe jarria du Elizak "Hermeneútica" edo AZALPEN-ARAUDIA. Kalte aundiak izan ditu Kristau-Erriak, protestanteen aldetik batez ere, Eskritura nolanaí erabilli izan dala-ko.

HOMEOSTASIS (Homéostasis/Homeostasy) EGOERA BERDIÑA HETEREOSTASIS (Hétérostasis/Heterostasy) EGOERA EZ-BERDIÑA

"Homeostasis" itza bioloji-gaietan erabilli oi da geienik, eta griegozko "homeos" (berdíña) eta "stasis" (egoera) itzetatik dator. Korputz bizi guztiek beren jatorrizko iza-legeak dituzte, eta gogor eusten diete, inguruko eragozpenen aurka. Giza-soiñak, adibidez, 37° mailleko beroa izaten du onik egotera, eta bero-maíl orri eusten dio, naíz eta kanpoko otzak edo beroak aundiak izan. Ala berean, gaixotu ezkeru sukarrík ba'letorkio, aleginka burrukotuko litzake bere onera etorrí arte. Lengo eran iraute orri, au da, lengo eran jarraitzeko joera orri "homeostasis" esan oi zaio. Euskeraz EGOERA BERDIN.

Bioloji lege au mekanika alorreko gauzetara zabaldu da, nolabait ere, eta ortik zaigu "termostato" deritzan bero-berdinkíña. Makinetako bero geiegia epeltzen duan tresna. Eta, mekanika usu ta azkar aurreratzen ari dan bezela, "termostato" diralakoak ere gero ta bikaintasun aundiagoko datoz. Ikus "cibernética" edo **makin-gidarltzari** buruz geniona.

"Heterostasis" itzak, berriz, "homeostasis" itzaren alderantzia izanik, geldí ezin etsia esan nai du. Aldaketa naia. Iraul egarria. Itz ori erabilli oi dute sozioloji-zaleek matxinada eta naspíl giroa adierazteko.

HISTORICISMO (Historicisme/Historicism) EDESTIKERIA HISTORICIDAD = EDESTITASUNA

Filosofi eskola onen iritzirako, EDESTIA da gizonen egintzak epaitzeko biderik egokiena. Gaur egí dana, dio eskola onek, bíar izan díteke ez-egi. Aldian aldiko egiak arkitzen ornen ditugu, eta ez ornen da egi iraunkorrik. Georg Wilhelm Friedrích Hegel (1770-1831) filosofo germanítarrak eman zion indar pentsabide oni asieratik, eta Itali'ko Gramsci marx'tarrak guztia kondairaren baian pasa bearra zala esan oi zuan. Sartre'k, azkenik, bere "Critique de la raison dialectique" dienez, izen aundiko filosofi eskola guztiak ornen dira egi, bakoitza bere denboran. Guztia egi eta ezer ez egi dala díoten oiek, asma al zezaketen gezur-katrapil beltzgorik?

HUMANISMO (Humanisme/Humanism) GIZAKOITASUNA


Esan dezagun aurrenik, XVIII garren mendearen azkenalde arte ez dala "humanismo" derítzaion filosofi eskolarik sortu. Artean, antziñako izkuntzak ikasten ari zanari esan oi zitzaion "humanista". Izan ere, XV eta XVI garren mendee-tan indar aundiz piztu zan griego eta latin izkuntzak ikasteko zaletasuna, "Rena-cimiento Humanista" izenez. Euskeraz "Gizalde zaletasunaren era-berritze" esan-go litzake. Batzuen iritziz (ikus Femand Robert'en "L'humanisme, essai de défini-tion"), klasikoenganako zaletasun ori, Erdi-Aroko eskolastikoen latin kazkarraren aurkako ekiñaldi bizkorra izan zan.

Luis Egia

EUSKERAZAINTZA

Euskalerrían euskera zaintzen alegíntzea, zein ederra dan, geroak esango digu bear bada obeto. Baña ez litzake naikoa izango gu euskaldunago izan gaitezen, edo ta esango nuke (akademía) gorengo bezela erabiltze orrekin dana eginda dagoanik. Bada ere, telebista, irrati, eta orrelako zenbat gauza ditugun gure gizartean, garrantzi aundiena batuta bezela. Nere iritzi apal batean, arrízkuauxa arkitzen díot gaur eguneko euskerazaintza edo joera oní. Gizonaren gaindik, dirubide artzeko bagendu bezela eta badirudi, euskaldunok euskalerrí berrí bat atera nai degula, euskera berriárekin, eta era ortara, jende adínekoa bastertu leike eta begira euskalduna leengo dala euskera baño, eta orí ere kontutan artzekoa da euskaldunon artean, eta ez salerosketarako bagina bezela. Naiz da euskera zaintzen alegíndu, eta gaur orrela edo ala dala esan bizitzan zear gauza asko daude beti berrí edo nai ta ez pasatu bear díranak eta orrela begíratuta zer? Guk sinísten degula diogunoi, gure asabak erakutsi eta onartzen degun fede orrek, ikusten ez ditugun ezkutapen edo míste río asko, jartzen digute aurrean onartu ala ez, askatasuna degula. Sinistendunok, euskalerrían, Eliza pekatariaren babesean, ortxe degu Berri Ona gure argi eta bidexka, luze eta zabal otoítzera zuzenduko gaituena. Euskera, euskalerría eta euskalduna, bataoian artutako erakutsia aldentzen dan neurrian errukarria izango da.

Madina'tar Beniño



ANDONI URRESTARAZU'REN EUSKAL-ELIZTIAREN AURKESPENA

Egunak dira, Euzkal-Elizti au aurkesteko eskatu eusten (zidaten). Bereala, nere bayetza eman neutsen (nien), geure UMANDI'ren ospez zerbait egiteko, al badot, beti prest egon bear dotelako (dudalako). Zergatik? Berari, euzkaldun eta euzkotar guztiok asko zor dautsagulako (diogulako). Izan ere, Andoni, euzkal yakintza ta euskal-elertíaren alorrean, erraldoi goren bat da ta bein betiko izango da. Siñesbete au nere adimen eta nere biotzean guztiz tinkoki ezarrita dago aspalditik, batez ere, bere eleberri GENTZA-BEARREAN, lilluraz beterik eta astiro, irakurri, gozatu, ta azterkatu nebanetik (nuenetik). Ziñez diñotsuet, zelako altxor balíotsua, nolako bitxi ederra gure artean apalki ostendua dan ezta kígula... Urteotan, bere arreba Tere ta Gaspar Erkizia'ren laguntza onuratsuaz, buru-belarri dabil bere ASMO-IZTEGIA (erderaz Diccionario Ideológico) burutzeko; guztiz aurreratu dago, ene ustez. Ezta nolanaiko lan eurena izango, 500.000 txartel baiño geyago zailkatzeko bai-dítuzte. Irurak, osasun onaz, iztegi gaiñ-gaiñeko ori amaituko al dabe (dute)!

Jarrayan, goazen aríra! Aberri-izkuntza gero ta obeto ikasteko, "Gramática Vasca" batzuk erabilíi dodaz (ditut); "Umandi"rena, onuratsuen: teoria, maixuki aurkestua; dana, ulert-erreza, zeatz-zeatza, oso-osoa, aberatsa... Ez bildurtu EUZKAL-ELIZTI onen andieragaitik, 971 orrialde ta 187 ikaskai izan-arren... Gitxi gorabera, len erderaz egin eban (zuen) berbera da. Eginkizunak edo ariketak, ordea, guztiz aldatuta dagoz (daude), ta, geyenean, iru motakoak dira: lenengo ariketa -mota jostatzeko bezela izan dedin antolatu; baiña beste biak lan sakonagaz egitekoak díra. Beste berezitasun bat dauka: 30'garren ikaskayan asíta, ikaskizun bakoitzean, euzkal idazle baten elerti-lanen irakurgai bat agef-erazten du (danera, 81 idazleen izen eta 162 idaz-lan daukaz (dauzka). Elizti au ondo ikasteko, Andoní'k onu edo aolku jarraigarri au ematen dausku: "ikasleei beti egokia izango zaye irakasle batek zuzenduta yardutea".

Andoni, euzkerari dagokionez, langille porrokatua agertzen zaigu (yaku). Orretzaz gaiñera, pentsalari sakon, trebe, logikadun, aukerazale edo eklektikoa da bere ekintzan. Itz-aurrean eta erantsi d(a)uen orrialdetxo batean, burutasun antetsu batzuk azaltzen dauskuz (dízkigu). Ona emen laborpen bat.

EUZKERA, EUZKAL GOGOIA, EUZKAL BIZIA: orra euzkaldun guztioi agertzen zaizkigun guztiz alkaturik dagozen IRU AUZPEGI aundiak, gure Erríarí ertsienik dagozkionak. EUZKERAK euzkal-gogoari eusten dio (dautso), ta EUZKAL-

GOGOAK, EUZKAL BIZIARI; ta eztago jokera oyek bete ditzaken (daikeez) bes-terik, baitezpadakoa zaigun (yakin) guztiei bide bearra da.

Nola ibilli bear dugu bide ori egokiro? Ebazkizuna (arloa) alik eta garbienik ikusi al-izateko, azpegi bi auek begiratu bear ditugu ongi: ITZAREN egipena, eta Izkuntzarena. 1—ITZA itzegiteko, entzuteko, ulertzeko, idazteko erabiltzen da edonun; baiña baita OLDOZTEKO (pentsatzeko) ere: ezin oldozpen edo burutapenik txikiena izan, itza erabilli gabe. Eta gaur, gure Errian, nolakoak dira gure oldozpenak eratzeko erabiltzen ditugun itzak? Euzkerazkoak ala erderazkoak? Azkenengoak, noski. Berez da, ikasketa guztiak gazteleraz egin ditugulako. 2—IZKUNTZA bakoitzak bere Erriaren Gogoari eusten dio. Izkuntza aldatzea **gogo aldatzea da**; euzkera galtzen doan giñoan (neurrian), **euskal gogoa ere eze-rezten da**, ta bide ortan jarrai ezkeru, lenago ala geroago, azkenean, **gure gogo berezia llda geratuko da betiko**. Beraz, gure Erriak erabakitzeko dituen ebazkizunen artean, **Euzkerarena** da garrantzi aundienetakoen bat. Yainkoari ta gure arbasoei esker, euzkera guregaraño bizirik eldu da, naiz eta iltzeko zorian bízi; ta gure eginbearra bizi orri indarra ematea izango da al eta ezin.

Ebazkizun aundi ontan eman bear díran urratsak bitarikoak ditugu: lenengoa, gai ta gauza guztietarako **Erriaren ondoan bizi ta joatea da**, Erriak ezpañetan darabillan mintzoera guztiz aintzakotzat artzean. Bigarrena, **euzkera geure gogo-lantze-izkuntza egitea**, ots, gure arima lantzeko (eratzeko, tajutzeko,...) mintzoa.

Batzuetan, berba berriak euzkerari erantsi bear dizkiogunean, itz berri bakoitzak bi premia edo bear auek bear izango ditu: lenengoa, **euzkal oiñarriz egiña izatea**; bigarrena, **euzkal-bideen arauz eratu izatea**. Orrela, izkera garbi dedilla lortzen da. Baiña ezta lan makala ori burutzea izango, **erderaz kutzuturik gaudelako**. Noiz lortu genezake kutzu ori gugandik aldentzea? Euzkadi'n **gai guztietarako ta berez euzkaldun guziak euzkeraz oldoztu** al-izango dute-nean. Orra or gure elburua.

Euzkaldunak euzkeraz pentsatu edo oldoztu al dezaketen (daikeen), **irakaskintza guzla euzkeraz eman eta artu egin bear da**. Ortarako, noski, azkatasuna ezinbestekoa izango zaigu. Ori lortzen dugun bitartean, bi gauza auek egin bear ditugu: 1—**Irakaskintzaren gal guztietarako euzkerazko ikas-idaztiak gertutzea** 2—**Euzkal-gíroa gero ta aundiagoa sortzea**, ikastetxeetan eta toki guzietan.

Ortarakoxe, Andoni'k oparitu digu bere EUZKAL-ELIZTI bikaiñ au. Ezta zailla (gatxa) ta ezta erreza. baiña ikas-miñ, asti, ta iraupen edo jarraipena izan ezkeru, irakasle on baten zaipean, bizpairu urteetan ondo ikastea leikena da.

Andoni'k egin duena, beste euzkaldun ikasiak, alako ikas-liburuak sortu bear lituzkete (leukeez), bakoitzak bere gai berezia euzkeraz irakasteko. Olan, gure ikasle guztiak gauza izango lírake (lítzakez) **geure aberri-izkuntza ondo erabiltzeko**, beren **gogoak euzkaldun osoa biurtu**, ta Euzkadi **euzkaldun-gogo guzien benetako Aberri kuttuna**. Jazoera unkígarri ori lenbaitlen gerta dedilla, ta danok ikusi daigun, gu guztiok ikus dezagun!

Amaitzeko, Andoni, zorion eta biotzetiko esker aunitz! Zure Euzkadi ta euzkera-aren aldeko lan itzala ta miragarriagaitik,

Bíotzez, esker mílla!

Gasteiz'en, 1989-17-12.

J. Exea Angiozar'tar Otxoa



BIXENTE LATIEGI ELIZAREN HISTORIA EUN URTEZ (I) 1814-1914

Andre-jaunok:

Urte t'erdi da emen Donostia'n bildu giñala beste liburu baten aurkespenerako. Liburu ura eta gaurkoa biak dute Eliza gai bezala eta biak dira egille baterenak. Badute, ordea, beste bat ere aurretik gai berarekin eta egille berberarena.

Ona iru liburuen idazpuruak:

SAN INAZIOREN DENBORAKO ELIZA,
DENBORA BERRIETAKO ELIZA eta
DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA.

ELIZA dute gai irurak; baiña, ez denbora berdiñetan. Bakoitzak badu bere aldi berezia historian zear. DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA liburuari dagokion garaia joandan egunkiaren 14'an asten da eta egunkí onen 14'garren urtean amaitzen da Eta onenbeste atal dítu:

Demokraziaren Zabalkundea, Sozialismoaren Jaíotza, Ameríketako Nazio Berrien Arazoak eta "Irugarren Munduko" Eliza

Irurak dira EUSKERAZAINTZAK argira emanak ELEIZ-EDESTI-SORTA saillean eta bosteun orrialdeko liburu mardulak dituzue. Gaurkoak ere baditu bosteun eta sei orrialde bete-beteak.

Ini liburu auekin ez da sailla agortzen; badatoz beste batzuek ondoren. Eleizarren Edestiak ez du orrelako saillik beste bat euskeraz. Eta, nekez sortuko da besterik. Euskalerriko kristau-agintariek bearko luteke arazo au begien aurrean ipiñi, bizkar eman gabe eta ezjakiñean egon gabe.

Iru liburu auen eta ondoren, gai orreri buruz, agertuko direnen sortzaillea eta egillea Bixente Latiegi dezute, euskaldunen artean naiko ezaguna bai El Diaño de Navarra'ren bidez, Sasaki-Naski'ren bidez; baita Zer eta Karmel'en bidez ere. "Euskerazaintza" gure aldizkariaren bidez, zer esanik ez.

Itur-buru ugaria du eta emankorra, sekulan nekatzen ez dana idatzi eta ídatzi. Idazkera jatorra eta garbia bere jaioterriari dagokion bezala (Tolosa eta Aralar-ingurua) eta, "Batasun" onek, goitik beera indarrez ezarrítako onek, sortu dituen

naasketatik kutsatu gabekoa. Izan ere batasunaren aitzekian sortu dítuzten naaspillek ez dute amaierarik. José Basterretxea, "Oskillaso", daukat gogoan. Aízke-neko urrillaren 16'an "Deia"n idatzi zuena "Euskerazaintza" aldizkariak dakar euskeratua, bere IX Zenbakian. Auxe aurkitzen degu Atzeko Orrialdean:

"IRUÑEA ALA IRUÑA? Pamplona'ren izen euskalduna Iruña da eta ez Iruñea, baiña Euskal Izkuntzaren Errege Akademiak erabaki du Iruñea esateko.

Zer gertatuko litzake Español Izkuntzaren Errege Akademiak, antxiñako dokumentuetan ala datorrelako, esango baluke Pamplona ordez Pampélone esan bear dala? Iñork ez lioke jaramonik egingo. Ez da Akademi baten lana itz egíten dun erriko izketa aldatzea, zeatz agertu baiño izkuntz ori zelan egiten dan. Erria da eta ez Akademia azken itza duena.

Euskaltzaindiaren aginte au itz egiten dan euskeraren ezezpen utsa da, eta orí ez zan sekula gertatuko Euskaltzaindian euskaltzain osokotzat euskaldun berriak egon ez ba'lira.

Akademiak, bateratu bearrean, eten egiten du; len danok Iruña esaten gendun, orain askok idazten dute Iruñea. Ori batasunaren aurkako da.

Amabikote baten autuak izan ziran Akademia Iruñea'ren aldera makurtu zutenak. Euskaldun berrí oien aurrean 500.000 edo 600.000 euskaldun gera. Gureztat Pamplona'k Iruña ízaten jarraituko du".

Latiegi tolosarrak iturbururik garbienean edan du bere euskera eta amaren bularrekin batera edan ere. Gertakizun onek berealdiko abantaila ematen dío euskaldunari: bere buru-barrengo moldeak euskaldunak izatea, alegia. Euskeraz pentza eta euskeraz míntza. Gaurko egunez eta gure artean, bada bestelakorik: erederaz pentsa eta euskerazko itzak erabilli. Ori bereziki gertatzen da euskaldun berrietan. Jende asko bizi da Euskeraren errapetik eta Euskera ikasi dute eta sekulako kursilloak eginda dauzkate; baiña burua oraindik lengo lepotik, erdaldun lepotik, estruktura erdaldunekin. Eta orrela gertatzen zaígu eurak egindako íragarkiak ez ditula iñork ulertzen aldamenean erderazkoa ez ba'dezu. Orregaitík edo, beti biak, euskerazkoa eta erderazkoa, batera ematen dizkigute bai Jaurlaritzak, bai Foru aldundiek, bai Udaletxeak... Ez du iñortxok euskerazkorik irakurriko eta berdin da irakurri-erreza ala irakurri zaila izan. Orren ardurarik Urliak ez du. Euskeraz ipiñi ezkerro legea betetzen da eta orrekin naíkoa degu nunbait.

Bíxente Latiegi'kín ez degu orrelako kezkarík, naiz eta beti irakaskintzan ibilli erdal-arloetan. Baiña, orrek ez dio euskera-kutsurik galdu erazi, oiñarriko euskera jatorra duelako. Euskerarentzat bizi ba'da, ez da Euskera izan bere ogi-bidea.

Bere irakaskintzan Elizaren Edestia erakutsí du eta Gazteíz'ko Seminario Nagusian bizi izana degu eta bertako liburutegi ederrean zitun gaí oneri buruzko líburu-zerrenda luzea. Baiña, entzun zer dion berak liburu onen atarian arazo oneri buruz:

"Gai bat erabilli aal izateko, tituloa eskatzea, arrazoizko jokaera da.

—"Liburu auek idatzi dítuan jaun ori eliz-edestiaren irakasle al da?"— eskatu zion oraindik asko ez dala iñakitar gazte batek nitzaz, nere lagun batí Urkiola'n.

Iñakitar orrentzat, dirudíenez, bear-bearrezko baldintza, "condítio sine qua non", izan bear du noski irakasle izatea zerbaitetaz idazten asteko. Jainkoak onetsi bezaio irakasleetaz duan uste on garbi ori, eta jakin beza alde ortatik ere ez naukala tituloz ain erantzia.

Nere bízi guztian Gazteíz'ko "Instituko Politécnico Diocesano" edo "Elizabarrutiaren Lanbide Ikastetxean" Soziologiaren, Kulturaren Edestiaren, eta Erliñoaren irakasle izan naiz. Eta ona eratzen nuan erliño-gaiean nere irakasketa:

Aurreneko urtean, dotriña.

Bigarreanean Itun Zarra.

Irugarrenean Itun Berria.

Laugarrenean Elizaren Edestía.

Bostgarrenean, Soziología. Eleizarena bereiziki.

Esan bearrik ez da, Kulturaren Edestia irakasterakoan ere naroki azaltzen nua-
la Elizak kulturaren arloan mendeak-zear ízan duan eraginmena.

Gutxi izango dira, beraz, elíz-edestiaren irakasleen artean, gai orri nik aña
denbora eta ardura eman díotenak.

On Jose Zunzunegí edesti-íkerie ondo ezaguna izan zitzaidan eginkizun ortan
gidari. Neri lagun izan zekízkidan ekarri zituan Gazteizko apaizgaitegiko liburute-
gi oparora edesti-líburu berri batzuk; Liburutegi artako zuzendari ere bai bait zan
On Jose Zunzunegi'tarra.

Nere ikastetxeko mutillentzat Elizaren Edestfari-buruz esku-liburu bat eta eus-
keraz erriarentzat gai beraz liburu zabalago bat idazteko aolkua-edo berak eman
zidan aurrena".

Luzetxoa izan ba'da ere, agerpen au bearrezkoa zan.

Aita dezagun ere Zubíkarai'tar Joseba karmeldarrak egin dion laguntza egokia
akatsak zuzentzen, bai egillearenak eta bai irarkolatik etortzen diranak.

Eta, besterik gabe sartu gaitezen, eun urteko Edestiaren baso zabal, luze eta
sakon onetan.

* * * *

Berak idaz-buruan lau gai aitutzen ditu: Demokrazia, Sozialismoa, Ameriketako
Laterri berriak Eta irugarren Munduko Eliza; Baiña, liburuaren erraietan gaíak
ugariago agertzen zaizkigu.

Oianean galdu ez gaitezen bíde zabal bat urratzen du batetik bestera, Aita
Santutik Aita Santura .100 urteen buruan 7 Aita santu daude bata bestearen
ondoren. Eta auek díra: Pio VII, Leon XII, Pio VIII, Gregorio XVI, Pio IX, Leon XIII
eta Pío X.

Tarte orretakoak dira Frantziaren Iraultza eta Demokraziaren agerpena Elizaren
Integrismoarekin, Elizak zaukan bere laterriaren arazoak eta Italia'ren Batasuna,
Lenengo Vatikanoko Konzilioa, Marx'en jokaera eta Rerum Novarum enziklika,
Elizaren Legediaren aurkespena (Codex Judícis Canonici), Modemismoa eta
Eukarístiari buruzko jaiera berria

Artu dezagun aria aurreragoxeatik.

Europa'n burruka zebillen eta, pakea lortzeko, fedea utzi eta arrazoiaren billa
joan ziran eta Jainkoaren ordez, Izadia bere Legeekin. Jainkoak, izanik ere, ez
du Izadiaren ardurarik.

Sustrai auetatik sortzen da Argíkuntza edo Ilustrazioa. Onen ondoren dator
deismoa; Izadia bera da Jaínko. Deismotik, Ateismora: ez da Jainkork. Teologja
bartzatu, Jainkoa jakintza-bideetatik kenduta. Izadia eta bere Legeak ipiñi ordez.
Jakintza Berri auek Fedearen aurka jokatuko dute, bide oietatik Eliza bera alden-
du zalako; ez beintzat Fedearen aurkakoak zirelako.

Argíkuntzaren argi onek salbatuko du gizadia, erriak parte artugabe. Ortik sor-
tuko Despotísimo Ilustrado: illunbeetan dagoen Erri itsua argidunek salbatuko
dute. Iraultza onen emaitza despotismoa da, errege gustíen indarkeria índartuz.

Argi ori zabaltzen ari dan neurrian, Erriko jende asko onetan konturatzen da:
argiak salbatuko ba'ditu, ez dutela errege bearrik beuren buruak zabaltzeko. Eta
emendik sortuko da Frantzia'ko Iraultza: Giza-arrazoia bera da jainko. Erregeekin
batera, Aundikiak (Aristokrazia) eta Eliza erditik kendu eta burgesak jaso aginpi-
dera...

* * * *

Askatasuna dute ikurrin, Liberalismoa eta Demokrazia. Aita santuek berealdiko
bildurra izan zieten Liberalismo eta Demokrazia aueri eta arritzeko ez da. Begira
zergaitik:

—Demokrazi liberalak ez zuan aintzakotzat artzen ez Jainkorik, ez Jainko-legerik, ez eta Izaki-legerik ere.

Demokrazi onen Lege Bakarra autarkien kopurua zan: geienak ona dala esaten dutena, orixe da ona. Txarra, berdín.

Moral orretan gaiztakeririk aundienak ere ontzat artzen ziran.

Demokrazi arrek ezkontza-naastea zekarren eta diborzióa.

Europa osoa kristau izanik, irarkolako askatasun osoak, gaitz asko egiten zion erri xeari. Berdín erligio-askatasunak ere; mota guztietako sektak erri kristau apalaran aurrean.

::

Frantziako Iraultza Nagusiaren ondoren Europa osoa aren aurka jeiki zan; España eta Portugal zer esanik ez. Apaizak batez ere eta prailleak eta integrista guztiak; baita aízkeneko "Carbonan" beurak ere. Zapalketa aundia egin zuan Napoleonek bere Gudaroste iraultzaillearekin; alaz ere, eurokin batera zabaldu zan Europa guzian Iraultzaren ideolojia. Gaiñera, Ameriketara pasa zan Demokrazia eta antxe emango ditu fruturik ederrenak.

Laterri guztiak Napoleonen eta Frantziaren Iraultzaren aurka ekín zuten. Napoleon menperatu zuten; baiña, Demokrazia Ameriketara iraun zuan, bizi ederrarekin. garbi eta orbanik gabea.

Errege eta aristokrazi-kumeak ziran ziran etsairik purrukatuenak Demokrazi orren aurka eta eliz-jendea oien alde jarri zan. Iraultzak elíz-ondazunak arrapatu zitun; lekaime eta lekaide etxeak erre zituzten; Erroma'ko Elizaren erakundeak (artxíbo eta guzti) desegiñak; gotzaiek eta apaiz-jendeak abantaila asko galdu zituzten ondasunekin batera... Elizaren etsaiak, Liberalismoa sortu zuan Demokraziarekin, bat egin zuten... Beste aldetik, berriz, Elizaren defensarako obe iruditu zítzaíen Aitasantu eta bere mepekoei Errege despotikoen babesa billatzea, demodrazizaleekin joatea baiño.

Ez zuten Liberalismoak berekin zekarren onura ikusteko ez argirik, ez aalmenik argiarí jarraitzeko, zíkínduta bait zetorren Demokraziaren Liberalismoa.

::

Blena'ko Batzarrea

Napoleon garaítu zutenak, Biena'n alkartu ziran Europa'ko Laterriak berriro banatzeko, saku batean sartu bait zitun guztiak Napoleonek. Banaketa egin zuten Laterrietan bizi ziranei galdetzeke.

Aitasantuari bere Laterriak biurtu zizkioten apur bat murrizturik. (Bada Lazkao'ko Udal-etxean agiri bat au agertzen duguna: Urlía jaunari 6 erreal eman zazkiola, Napoleon menperatu izan zanean, ordu osoa aritu zalako torreko kanpaiak jotzen).

::

Erromakeria: L'Ultramontisme

Erriaren pekatu aundía-zion De Maistre jaunak Frantzian-auxe izan da: Konstituzio bat lortu nai izatea, Konstituzio orren bidez, gobernuan parte artzeko. Beraz, Demokrazia nai izatea.

Zergaitik da pekatu?

Agintaritzá Jainkoarengandik bakarrik datorrelako. Erriak bere salbamena. Agintariei obedituaz, bakarrik lortuko du. Erriak demokrazia nai izan zuenean, Jainkoaren aurka jeiki zan.

Erremedioa: Monarchía Absoluta edo Bakalduntza Orokorra. Eta, era orretako erregerik bat dago: Aitasantua, Jainkoaren Ordeko, Errege Guztien Gidari.

Demokrazia guztien etsai, teokrazian erori zan De Maistre.

Onen bízkia izan zan Bonald:

Agintaritzá Jainkoarengandik dator zuzen-zuzenean. Erria Agintarien esanera egoteko da; gizadiarentzak Askatasuna da galbiderik aundiena... Jainkoak Monarkia erakutsi dígu eta ez besterik.

* * *

PIO VII

Elizaren Laterriak

Bein Napoleon menperatu ezkeroz, Laterri guztien asmoa izan zan Iraultza aurreko egoera berriz ezartzea: BIRREZARKETA esango diogu asmo orreri. Erroma 1808'an artu zuten Iraultzaleek okerkeri aundiak egiñez. Andik 16 urteetara, 1814'ean, sartu zan Pio VII'garrena berríro Erroma'n txalo artean...

Onen ekintza auxe izan zan: Iraultzalariek ekarritako gauza guztiak, on eta txar, sustraítik kentzea, naiz eta amasei urteen zear eurakin bízi. Beraz, gotzai eta abadeei euren aurreko kargu guztiak onartu; aristokrazi-kumeei lengoko abantailla guztiak eman; oitura zarreetara erria makurtu erazi...

Pio'k eskubitarren eskuetan utzi zuen aginte ososa eta auek okerkeri asko egin zituzten.

Biena'ko Batzarrean Erkules Consalvi zegoen Elizaren Ordezkarí eta, Erroma'ra ítzuli zanean. Aítasantuak Eliz-laterrien buru ipiñi zuan, bere ondorengo. Eskubitarren okerkeri asko zuzendu zitun. Eliz-laterriak 17 probintzietan eratuak izan ziran eta bakoitzeko burua, lenago bezala, gotzaia aukeratu zuten Consalvi'ren iritziazen aurka; konturatuta bait zegoen nola Iraultza garaian, 14 urte luzee-tan, Eliz-laterri eta Itali osoko jendea demokrazi zale eta Itali alkartu baten alde, jarrita zegoen. Orregaitik, demokraziaren alde egonda ere, ezin zekean Italia'ren batasunik onartu.

Europa'ko beste Laterriekin Itzermanak egiten saiatu zan Eliz-laterria. Ala eldu zitzaion Pio VII'garrenari eríotza 1823'an, Jesus'en Lagundía onartu ta gero.

* * *

Demokraziaren garaipena

Aurrera doa XIX'garren eunkian Demokrazia, naiz-eta Elízak zearka begiratu. Ikusi degu zergaitik ezin zekean Elízak Demokrazia, zetorren eran, onartu. Gaur eguneko Demokrazia eta ordukoa, ordea, ez dira berdiñak. Gaur Elízak Demokrazia jotzen du Laterri eldu batentzako politika-erarik onena eta kristau-filosofiari obotoen egokitzen zaiona. Baiña, orí Elízak betí ez du berdin ikusi; Historian zear argitzen bait zaio bere Sortzailleak eman zion dotriñaren oparoa. Eta, ain xuxen ere, dotriña orretan zetorren Demokraziaren azi-ale guztiak: Legea Jainkoaren gauza dala; gizonak berdiñak gerala; baíta Errege-enperadoreak ere; guztiok, baíta esklabuak ere, eskubide osoak ditugula eta abar...

Elízak ez du, Jainkoak emandako dotriña ori sekulan, bere osoan, une berean, ulertuko, gure adimenaren gaindikoa dalako... Dotriña ori, Elizaren begien aurrean, zabaltzen doakio gizaldietan zear... Aldiko bearkizunetarako erabili bear du; baiña, orretarako aldiko seiñaleak ezagutu bear aurretik. Eta, onetan maizetxo, Eliza motel eta nagi ibilli izanda.

* * *

Rousseau'ren demokrazia bitarte-gabekoa zan: direkta, agintaririk gabea; orregaitik guztiek agindu bear dute errian. Ori anarki utsa da. Anarkistek diotena: geu gara demokrata bakarrak, agintaritza ukatzen dagunok.

Marx bera ere bide orretatik, anarkismoaren bidetik, ibillia zan. Komunismoa ezarri nai du munduan iraultza baten bidez. Iraultzak **prestakizun** bat du aurretik: proletariaren eta kapitalisten alkarren aurkaku burruka. Eta bi maila: 1.^a burruka odoltsua eta 2.* proletariaren diktadura, demokrazia anarkista batekin naastuta.

Erljioa alienatzailea da eta jainkoa gizonaren asmakizuna. Eliza, berriz, kapitalisten laguntzaile, langillen arerio eta ezereztu bear dan erakunde bat..

Oiek danak demokrazia batean bilduta datoz. Arritzekoa al da Elizak bildurizatea demokrazia orren?

* **

Liberalismo-demokratak laizismoa ipiñi zígún modan:

1.—Eskolak Elizari kendu, erlijiorik beraietan ez erakutsi eta parregarri agertu, ateismoa zabaldu.

2.—Ezkontza naastu; zibilla agindu eta maitasuna askatasunean bizi ezkondu gabe ezkondu bezala. Diborziari ateak iruki eta aur-galtzean.

3.—Elizari bere ondasun oro kendu.

Oiek danak orrela direla, nola asiko da Eliza demokrazi liberala bedeinkatzen?

* * *

Jainkoaren, Erljioaren eta Elizaren aurka dituguz gizaldi osoan jakintsuek:

Kant: Jainkoa danik giza- adimenak argitu ezin.

Hegel; Gizadia bera da Jainko.

Feuerbach: Gizakumea da Jainko.

Durkheim: Erljioa, bildurrak sorturiko mito-sail bat, besterik ez da.

Heine, poeta: Jainkoaren eriotza lenengoz aitatu duena.

Nietzsche: II da Jainkoa; gizakumea da jainko.

Renan: Kristau-moralitatea eta dogmak desigindu bear dira...

* * *

Bi erakunde erabili zituzten Jainko eta Elizaren arerioak: Ikastolak eta Masoiztza, katolikotasunaren aurka, batez ere.

XIX'garren mendeko Elizaren teologja ez zan izan gai-arazo oieri erantzun on bat emateko. Beste aldetik, berriz, Jakintza Berri aueri, ez zien Elizak, bear zan garrantziarik, eman. Ez zitun apaizak eta kristauak bide oietatik bultzatu. Beraz, jakintsurk geienak Elizaren aurkakoak ziran eta demokrazi-zaleak.

* * +

LEON XII (1823-1829)

Pio il ondorengo Konklabean Genga kardenala aukeratu zuten Aintasantu, integrista zalako eta, zaarrez eta gaixotasunez, laister iltzeko zegoalako.

Sei urte besterik bizi ez arren, geiegi bizi zala bota zioten aurpegira, integrista motela zalako, Inauteriak kendu eta tabernak erdi-itxi egin zituelako. Debekatu zuen ardoa taberna-barruan edaterik, saldu ere ateak itxiáta, leiatilla batzuetatik egin bear zuten.

Diplomazian trebetasunik ez, jakintzetan eskax, laguntzaille inuzueez inguratuta, Consalvi bere ondora erakarri zuen arte. Gizon onek asko lagundu zion, berandu bazan ere; urte beteko laguntasuna. Baiña, denbora orretan aolkuak eman zizkion Aitasantuari etorkizunerako. Onek ura, Propaganda Fide'ko buru, aukeratu zuan.

Eskubitarrek lengo era zaarrera biurtu nai zuten Laterri osoa, okerkeriak egíñez; baiña, okerkerik aundiena, berak, Aitasantuak, egin zuan Bolonía'n 508 gizakume espetxeratu eta oíetatik 7 urkatu Italia'ren batasun-alde jeiki ziralako. Kalte aundia ekarrí zion Elizari ekintza onek; lendik ere, errí osoa zeukan aurka eta batasunaren alde. Agintariek usten zuten Carbonariek bakarrik zirala kontra-koek.

Limosna-emaille, otoítz-egille eta penitentzi-zale; baiña, estuegia eta zorrotzegia bere buruarentzako, besteentzako bezala. Erria indarrez santutu nai izan zuan eta Pazkoarik egiten ez zutenak, kartzelara.

Chateaubriand idazleak, enbajadore zata Erroma'n onela zion:

"Gaitzen sustraía, elizgizonek aldaketari izan zioten iraiña, izan zan eta Era-kunde berriei lagundu bearrean, edo pakean laga ixilik, irrikazko itzak besterik ez zieten aurpegira bota".

Aitasantua iltzean Erroma'ko erri xeea kantari:

Sartu izkíguk, Leon,
iru ziri sakon:
Aitasantutza artzea,
ain luze bizitzea,
inñauteriz iltzea.

PIO VIII

(1829-1830)

Kardenalek integrista zorrotz bat nai zuten; Laterrietako Erregeek, ordea, maiteago zuten goxotasuna, gogorkeria baiño. Castiglioni kardenala aukeratu zuten guztien pozerako, laister ilko zalako, gaitzak jota bait zegon eta Aitasuntutzak berekin daraman zama eramateko ez zan gauza. Bere Laterrian danak zeuden aurka eta Italia-batasunaren alde.

20 illebeteko erreinua izan zuan.

Artzai ona eta lege-emaille jaioa agertu zan.

Tabemetako leiatillak kendu zitun eta barrura sartzeko baimena eman. Orre-gaitik, erriak esker ona agertu zion, naiz-eta erri orrek artzaiaren bizitza itz aue-tan bildu:

Jaio zan, negar egin du eta ilda.

~~*

Elizaren laterriak

Elizaren lurra 41.000 k² zitun, gaur eguneko Suiza'ren antzera. Ekonomia oso gaizki zebillen. Lanak errezago ateratzen zituzten ifar aldeko fabrikek, Erroma'ko esku-langilleak baiño eta gotzaiek ez zuten izan kemenik Eliz-laterrietan fabrikak sortzeko. Langabezia ugari... Nekazarien lurra esku gutxietan zeuden; peoiak ziran geienak eta mixerian bízi ziran... Zerga nagusienak txiroen bizkarretara zijoazen, eguneroko gastuetatik ateratzen bait ziran... Ez zijoazen gauzak obeto sal-erosketa arloan; Iraultzak legeak sortu zitun obeak artarako, baiña, itxu-itxuan danak kendu eta zuzen-zunean antxiñakoetara jo...

Urietan jendea lanik gabe eta Itali-batasunaren aldeko. Gorroto zioten Eliz-laterrien egoera oni, Italia'ren batasuna lortzeko, eragozpen aundi bat besterik ez zalako.

1830'ean Iraultza berri bat sortu zan; baiña, ez Frantziaren Iraultza (1789) bezelakoa. Au burgeskeriarena zan aristokraziaren aurka; baiña, oraingo Iraultzan langilleria dabil azpítik. Proletaritzza eratzten asita dago. Au ondotxo ezagutu zuan Mazzini'k Resorgímento'aren buruzagiak; Pio VIII'garren ondotik zetorren Aitasantuak, ordea, ez zión antzik ere eman "denboretako señaleari".

* * *

GREGORIO XVI

(1831-1846)

Aitasantua aukeratzeko Konklabe luzea. Eliz-laterriak urduri eta eurak naiokak Kardenalak ikaratzeko. Tíroka Poloni eta Turkia'n. Europa ere keskatzu. Frantzia'ren eskaria zera zan: Eliz-laterriei askatasuna emateko aiñeko Aitasantua. Demokrazia, alegia

Gora-ta-bera askoren artean, Mauro, Kamaldulako Abata Nagusia aukeratu zuten Aitasanturako. Bere gelan kamaldular baten antzera bizi zan, bai jan-orduan eta bai lotaratzean ere. Baiña, jendearen aurrean, oso dotorea zan bere karguari zegokion neurrira. Teolojían, Tomista purrukatua. Politika eta sozioloji arazoetan naiok baldar ibíllia... Alaz ere, Eliz-laterriaren eskubideak eta askatasuna oso ondo gorde zitun, etsai askoren aurrean. Ameriketako Laterri berriak onartu zitun eta Mixioetako Jerarkia ipintzen lagundu.

Txíroen maitale eta Erroma edertzeko lan asko sortu zitun langabeziaren alde. Pake gordetzen alegindu zan; baiña, orretan ez zion erriak batera lagundu, etengabeko matxinada artean bizi bait zan. Egoera oíek zirala-ta, bein eta berriz Aitasantuak Austria'ko Erregeari eskatu zion gudari-laguntza. Erriak, berriz, gorroto zitun austriarrak.

Demokrazia erriari emateko Aitasantua ez zan Gregorio, Demokrazia bera okerkeri askorekin batera zetorrelako, asieran esan degun bezala; baiña, bereziki, demokrazia orrek, Italia'ren batasuna eskatzen zuelako. Aitasantuaren kaltean.

Agintaritzza babesteko indarkeria beste biderik ez zuan ezagutzen: epai-maiak, espetxeak eta gudariak kalera ateratzea. 1843'an 400 gíltzapetu zitun eta 600 erbestera. Iskanbillak ez ziran Eliz-laterrietakoak bakarrik; Europako guztiak zebiltzen era berdiñean. Zenbaít Laterrietan katolikoak ziran iraultzaille agintari erejeen aurka; erri oíetan ere, Aitasantua Agintarien alde agertu zan, Agintaritzza zerutik datorren doaía dalako. Arazo onek ere sortu zitun makiña bat oker.

** **

Ondoren Bixentek bere liburuan Iraultzaren xeetasunak azaltzen dizkígu erriz-erri: Frantzi, Belxik, Oland, España, Portugal, Itali, Suizi, Alemani eta Inghlanderrian.

** **

Lamennais-arazoa

Bixentek gai au sartzen digu ondo, sakon eta luze. Labur adierazi nai gendu-

ke. Apaiza zan Lamennais idazle jaioa, teologo eskasa, irakasle abilla (Frantzia'ko Elizaren eutsigarri izan ziran ikasle jatorrak sortutakoa) eta arro-arroa.

Profeta ere izan zan: gerora Elizan gertatuko ziran gauza asko asma zitun aurretik. "Essai sur l'indifference" debekatua izan zan; baiña, debeku orretatik laister atera zuten Erroma'ko epailleek, liburuaren gai-ardatza auxa bait zan: "Erljiotik gabe gizarte bat osatzerik ez dago". Frantzia'ko Erregearen alde zegoen, ura izango bait zan, Jainkoaren aldeko borrokan, borrokalari garaille gurena; baiña uts egin zion eta orduan teokraziara pasa zan: Aitasantua Errege guztien gaiñetik dagoan Erregea da, uts-eziña nai-ta-naiez.

Baiña, Aitasantuari idatzi bat bialdu zion eta aren erantzunik ez zuan sekulan jaso. Orrek mindu zion biotza eta arrokeria zauritu; arrokeria zaurituak asarrera bultzatu, geroz eta geiago; asarreak, berriz, demokrazi liberalera. Berorrek sortutako L'Avenir aldizkarian askatasuna eskatzen asi zan; teokraziaren barrutian, ordea, Elizatik kanpora ezina bait da. Onek, erregeen menpekotasunetik, askatu bear du bere burua. Teokrazi orretan erriaren demokrazia izango da lege guztien oiñaTi eta sorburu.

Demokraziaren aldeko ekintza onek etsai asko sortu zizkion kardenaI, gotzai eta abar. L'Avenir il erazi eta bera, Lamennais, Erroma'ra salatu zuten. Abiatu zan Erroma'ra bere lagun maite zituan lacordaire eta Montalembert'erekin. Nekez artu zitun bere aurrean Aitasantuak eta sosokeri batzuek esanda gero, bialdu zitun bere aurretik.

Azkenik Gregorio XVI'garrenak, Itz zakarrez betetako enziklika "Mirari Vos"ekin gaitzetsi zuan Lamennais'en dotriña bere izenik aitatu gabe. Frantzia'ko gotzai eta apaiz ezkubitarrek pozik eta algaraz artu zuten enziklika ori. Ixeka eta burla egin zioten eta erre zitzaion barrua. Onela dio Latiegik: "Iru abe zitun aren erijioak: Jainkoa, Eliza eta Aitasantuak, irurak alkarri josiak..." Uts egin zion Aitasantuagan zeukan sinismen itxuak eta berarekin batera ondatu zitzaizkion Jainkoa eta Eliza.. Dana zan gezurra.

Gai oneri buruz liburu bat idatzi zuan, Aitasantuak bere enziklika "Singulari Vos"ean zionez "liburu txikia baiña gaiztakeriz aundia". 100.000 ale saldu zitun bi illebete-barruan. Bere orretan, Lamennais gelditu zan bakar-bakarrik eta anima zeukan gaixo. Geiegikeriz beteta zegoan gizonak, ertze batetik bestera, jo zuan: apaiz izateari utzi, fedea ukatu eta il zanean, 20 urte beranduago, bere illobian gurutzerik ez ipintzeko agindu zuan.

Ondoren Bixentek, Lamennais'ek erakusten duna eta Aitasantuak gaiztosten diona, ez datoztela bat, erakusten digu. Eta arazoa onela amaitzen du: "Europar, ordea, sakonki sartu zan elizgizon eta teologolarien biotz-adimenetan Gregorio XVI'garren izkera, eta aren pentsabidetik jarraituko digute ondorengo Aitasantuek; eta Eliza eta Laterriaren bereizketaren auzia ez da, Il Batikan Konziliora arte, bear bezela argituko".

Gregorio XVI'garrena apaiz eta praille ona izan zan, garratza eta zakarra bizi-moduz; baiña, ez zan "Risorgimento"ko edestilariek ipintzen duten bezin beltz-illuna.

* * *

España'ko Karlistada

Fernando VII'garrena il zanean, onen alaba Isabel'en ordeztan, erregearen anai Karlos nai izan zuen España'ko Errege talde batek, eta arazo orretatik, sortu zan burruka. Liberal-demokrazi zaleak Il Isabel'en alde zeuden eta ezkubitarrak Karlos'en alde.

Gregorio XII'garrenak karlisten alde jokatuko du.

Karlos'ek Eliza eta Fueroak babestuko zituela-ta, euskaldunak bere alde jeki

ziran. Izan ere Frantzia'ren Iraultzaren ondoreak ondatu zitun lfar-aldeko euskaldunen Fueroak eta bizi-lege guztiak. Jaínkoa eta Erregetza ziran Espaiña'ko sutabe zaarrak. Demokrata-liberalak Jainko eta Elizaren aurka jokatu zuten beti.

1833'ean piztu zan guda, "odolaren egarríak erotutako piztien guda", Bixentek dionez.

Mendizabal'eren Desamortizazioak Elizari ondasun guztiak kendu zizkion eta ez erriaren onerako, aberats-kumeen aberastasunerako baizik. Bien bitartean, Madrid'en, 100 praille baiño geiago erail zituzten. Eta, ez an bakarrik... Masoieri bota zizkieten kulpá guztiak, eta, guztiak ez baziran ere, ez zituzten beuren eskuak garbí atera arazo artatik.

Oker asko etorri zitzaizkion Elízari liberal-demokrata aien eskutik; ez da ba arritzeko Aitasantuak karlisten alde jokatzea.

Burrúka luze zijoa eta pakea eratzeko modua aukeratu zuten Maroto'k eta Espartero'k Bergara'ko Besarkada'ren bitartez, 1839'garren urtean. Urte artan galdu ziran Euskalerriko Fueroak eta aginte guztiak, naiz-eta Espartero beste era batera itz egin: "vuestros fueros serán respetados y conservados..." Erriak esaten dunen: "Aoko lurruna ere, gezur".

Isabel II'garrena erregin izendatu ezkeroz, egin ziran Erroma'rekiko pakeak.

* * *

Katoliko-Jakintza

Iraultzaren bidetik joan ziran jakintza guztiak, naiz-eta Elizak gaitzespenez bete. Politika eta Ekonomia ere jakintza biurtu zituzten Elizatik at... Anarkistek aurretik asita zeuden bidetik aurrera Engels eta Karlos Marx'ek "Komunist-Agiriá" atera zuten 1848'an. 1864'ean Londres'en eratu zuten lenengo Intemaziola.

Bitartean Eliza itxu eta gor, ez bait zuen Kapitalismoaren pekatuak ikusten. Ona jokaera ori garbitzeko ematen diran arrazoiak:

—Aitasantuak naiko lan zeukan Eliza bera barrutik konpontzen Iraultza-erasoaren ondoren: gotzaiek izendatu, apaiz berriak egin, utsuneak betetzeko... Gaiñera, politikari garrantzi geiegi emanez, erregeetan fidatzen ziran, errian baiño geiago...

Lekaidetxeak, ikastetxeak, unibersitateak, guztiak zearo deseginda

Parrokietako apaizak oso gutzi zirala eta ziranak espirituzko ekintzetan zearo murgildurik, langille-arazoetan sartzeko astirik gabe... Dirurik gabe eta astirik gabe beuren buruak jakintzez jasteko...

Seminarioak pobrezian eta bertan apaizgaiak denbora gutxi, apaiz asko bear ziralako, eta apaiz jakintsu irten ezin...

Elizak, aldiko semea izanik, ez du, bí menderen luzaroan, langintza eta soziologi-arloan gertatzen diran pekatuentzako bear bezelako sentimenik izan. Proletaritzari bere profetak Elizatik kanpora agertu zitzaizkion, ezker aldetik, sinisgabeko anarkista eta komunisten aldetik...

Arazoak konpontzeko Espiritu Santuaren zai egotea alperkerian, orixe bai dala Espirituaren aurkako pekatua. Aro onetan alperrik izango da kristau-sozioloji edo ekonomia baten billa astea: ekonomia liberalena da; soziologia, berriz, anarkista, sozialista eta komunistena. Eliza eta protestalari idazleak apolojiazko defensara jotzen dute edo aszesisera: onek esan nai du teologija egin baiño geiago saiatzen dirala teologija bizitzan mamitzen...

* * *

Arrazoiá, jainko egin zuan Iraultzak eta orain Erromantikeria (Romanticismo) dator, arrazoiaren orde z sentimena gurtzera. Sentimentuei garrantzi geiegi ema-

ten zaio: "Nere erlijioa, biotz-erlijioa da osorik; ez da nere baitan beste erako erlijio batentzat lekurik" zion Schkiermacher jaunak.

Bi alderditik asi ziran erlijioari erasoten: Filosofi aldetik eta Biblia aldetik. Garai auetako Filosofiarik **Kant'ek** ipiñi zion oiñarria: Arrazoia bitan banatzen zuan, Ratio Pura (Arrazoi utsa eta garbia) gauzak ulertzeko bakarrik erabiltzen deguna, eta Ratio Practica gure bizitza zuzentzeko erabiltzen deguna. Lenengoak ezin lezake Jainko badanik ezagutu; bigarrenak, bai, Jainkorik gabe bizitza eratzerik ez dagoela, ikusten degulako.

Hegel: Jainkoa-dio- "gogapen uts" bat besterik ez da, Izadi biurtzen dana. Beraz, Jainkoa Izadiaren izen bat besterik ez da.

Fuerbach: Izadi osoa gorpuzkia da; ez dago gogorapenik gorputz ez danik. Espiriturik ez da eta jainkoa giza-adimenaren asmaketa utsa da "eta gizonak jainkoa asmatu zuanean, bere burua ukatu egin zuan, bere izatearen arrazoia, jatorria eta elburua berak asmatutako jainko orretan ipiñi zuelako; eta ori egitean 'alienatio' (besteratze) egin omen zuan, bere jabetasuna bere buruari kendu eta jainkoari eman, alegia". Emendik aterako zuan Karlos Marx'ek bere Filosofia (edo Teologia).

Comte, positibistak: Erljioa giza-edestfaren aro bateko pentsaera, besterik ez da. Eta, datorren aroan, ez omen da erlijioik izango.

Kristau-teologia ez zegoen gogo-sistema oiei aurpegi emateko eran. Garai a rtan Alemania izan zan Teolojia aintzindari; baiña, teologo bikañiak egon arren, itzal aundi eta zabaleko teologilari guren bat ez zitzaigun age rtu, ekonomista, soziologo eta filosofi-egille berrien sintesia eman aal izateko.

**

Bibliaren aldetik auxe erakuzten zuten: gizonaren asmakizun utsa zala; orrekin batera "eboluzioa"ren arazoa sortu zan eta esaten zuten Bibliak erakutsitakoaren aurka zetorrela. Biblia itzez-itx a rtu bear zala usten bait zuten orduko maixuek eta ikuspegi orreatatik ez zeukaten sentzunezko erantzunik. Orduan erabaki erreza artu zuten, gai oietako Darwin'en liburuak, Liburu Debekatuen Zerrendan sartu eta kito. Gaur egun edozeñek daki ez datorrela sinismenaren aurka eboluzioa, onen asieran sortzaille lez, eta eboluzioaren ibilleran gidari lez, Jainkoa dagoela sinisten bait degu.

Urte oietan kristauen joera eraspn edo debozioetara izan zan: Teologia jakitea baiño ohea omen da teologia-bizitza. Eta, izan ere ala da; baiña, orrek ez dio Teolojia aterik itxi bear.

**

Ondoren Bixentek xeetasun aundiz ematen digu teolojiaren egoera (protestante eta katolikoena) batez ere Alemanian'n; baita andik kanpo ere.

* * *

Kristau-bizitza

XIX'garren mendearen aurren-erdia Elizaren aro bikañenetako bat da: santurasunaren aroa. Orduko gertakari latzak prestatu zuten Eliz-barne-bizitzaaren pizkundea:

—Iraultzaaren geiegikeri zakarrak sortutako martiriek, bere odolez, bizi berritu zuten Eliza...

—Gobemuek orain Elizari ematen dioten garrantziak ere lagundu zion Elizari lan orretan; inportantzia ematen zioten Eliza zalako, euren aburuan, oiñarririk onena autokraziarako...

Baita Arrazoikeriaren antzutasunak: jendea konturatu zan arrek axaleko gau-zetarako bakarrik balio zula; baiña ez Nor-izatea eta Zer-izatea argitzeko; gutxiago oraindik Jainko-izatea ezagutzeko...

Erromantikotasunaren agerketa eta onek sentimenari ematen zion garrantziak ere lagundu zion Elizari.

Eliz-gizonak eurak ere, txiroago izanik eta urriago, langilleago eta sinismen sendoagokoak biurtu ziran Elizaren laguntzagarri...

Iraultza-garaian Aitasantua zapalduta ikusi zuan bere burua; baiña, Birrezarke-ta-Aro onetan, antxiñako era zaarrak berriro ezarri nai zuten denbora onetan, disdiratsu agertu zan Aitasantua eta Agintari gustiek nai aren adiskidetasuna... Beste askoren artean aldaketa au zetorren: lenago Erregeengana jotzen zuten gotzaiek, orain Aitasantuarengana jotzen dute larriaaldietan eta Aitasantuarengandik urbillago dabilta...

Tamalez, ordea, langille-erria Elizatik kanpo dabil eta Eliza langille-arazoetatik at.

~~*

Aristokrazi-kumeak, eta auen ondoren burges-kumeak, asiko dituzte kristau-ekintza ugariak. Makiña, bat Anaidi eta Kongrezazio sortuko zituzten, eskola kristauak sortzeko eta, batez ere, espirituaren osasunerako zuzenduak... Iñakitarrak bizi-bizi, egunero indar aundiagoakin, ikastetxeak sortzen...


Lagundiak ugari sortu ziran, batez ere Frantzia'n, Iraultza sortu zan baratzean ain xuxen, Elizaren azpi-azpitik, anarkiarik aundienean, ekintzarako asmatuak, Gotzaien menpetik Eliz-osora zabalduak... Geienak mixio-zaletasuna berekin zeramatenak.

Anaidi eta lagundi auen Elizaren azpi-azpitik loratze onek auxe agertzen digu: bazala azpi orretan kristau-bizitza gartsurik.

Une aietan liturjia ere loratu zan Solesmes-Abadiari ezker eta, musikarari bikañenak (Beethoven, Listz, Schubert, Berlioz...) ari ziran gogoz Elizarentzat asmatetan. Kristausunak Iraultza-ondoko gizar-tean irabazitako ospe aundiaren adigarri degu... Ez arkitekturan, ez margolaritzan ez zan oien maillako gizonik agertu.

(Jarraitzeko)

Anes Arrinda



EUSKERAZ, EUSKERAZAZ, EUSKERATZAZ, EUSKEREAZ

Azkue'k bere "Morfología" bikañean onako au dio:

490. za. Sólo se usa con el afixo instrumental z, pero no con cualquier tema, sino con los pronombres personal, demostrativos y algún cualitativo como *asko*. *Onezaz ostein*, fuera de esto (Per. Ab. 194-1), *azaz geneti* además de aquéllo (Añib. Esku-lib. 192-2); *zuk nizaz, nik zuzaz atsegin hartzeko* para complacemos vos de mí, yo de vos (Oih. p. 96-17).

Desgraciadamente, en nuestros días, escritores que no han podido conocer suficientemente la lengua empezaron a valerse de su variante *tza* con todo género de palabras: *laguntzaz itz egin* hablar del compañero, *euskereatzaz yinuanari* (Jaungoiko-zale, núm. 4, pág. 5) lo que decía acerca del vascuence... etc.

Se comprende que haya nacido esta demasia entre escritores bizkainos, pues en su dialecto *lagunaz itz egin* zuena a "hablar con el compañero" como contracción de *lagunagaz*, más bien que a "hablar del compañero".

Aurrera jarraitu baiño leen, Azkue'k asieran aipatu dituanak gure euskalkiz onela esaten dírala adierazi nai nuke: *ontaz kanpo, artaz gaiñ, gutaz itz egin du; ta* atzizki au Azkue'k ondorengo txatalean (491) aipatzen du. Orañ Azkue berriro:

¡Qué lindamente se ve determinado el límite de este infijo en este pasaje de Uriarte!: *Eta i ere ire lagunaz erruki bear ezintzakean, ni izaz errukitu nindukan bezala?* También en el precioso libro de *Refranes y Sentencias* se leen ejemplos de *az*, sin que indebidamente pase *zaz a* ocupar su puesto: *izpizatzen det Aita ez Ama dirudian abereaz* reniego de la bestia que a su padre ni madre parece (Refr. 313) (Oker dago: 70 bear luke) (...).

Varios lingüistas de allende el Bidasoa se ocuparon algún tiempo en traducir estas dos locuciones: hablar en vascuence y hablar del vascuence; y para una y otra decían *eskuaraz mintzatu*. A nadie le ocurrió recurrir al impopular e incorrecto *eskuaratzaz* para expresar la segunda locución; siendo de advertir que son ellos, los orientales, los que más se valen de *zaz* con los temas pronominales antes citados; pues nosotros, generalmente decimos *-en gainean* o *ganean* traduciendo a la letra la locución castellana "sobre tal cosa".

Argi dago bietarako *euskeraz* esateak illuntasuna sortzen duana. Gaiñera orain *-z* utsaren ordeaz askok eta askok *-az* idazten dute. Liburuxka bat bakarrik aipatzea aski dut: oraingo "Meza santua", *-z eta -az* naastean erabiltzen ditu, bereiztapenik egiteke. Ona aiekaz-aieka liburuzka ortan daudenak.

8a) apaizak erríari begíra, besoak zabalduaz, agur egiten dio... ("besoak zabalduz bear luke).

9a) ...pekatu egin dedala, gogapen itz eta egitez, eta eginbearrak ezegiñez. Au ongi dago, baiña "gogapenez, itzez eta egítez" argiago zitekean.

23a) Aren bidez dira egiñak gauza guztiak. Emen ere ongi. Joskerari buruz "gauza guztiak Aren bidez egiñak dira" obeki zitekean).

25a) Aintzaz etorriko da berríz. Au "euskeraz" bezala da. Erriaren otoítzarekin bukatzen du Itzaren Liturjia, eskabide bakoitzari erríak erantzunaz. Erantzunez bear zukean.

31) Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Ongi.

Beronen bidez egin dituz díran guztiak. Ongi.

Espiritu Santuaren egitez gizon-egíña. Ongi; "gizon egiña" zubitorik gabe bear luke.

33a) ...eríotza ezereztuaz... Onela "con la muerte aniquilada" adierazten du; "aniquilando la muerte" adieraztekotan "eriotza ezereztuzii idatzi bear zitekean.

Zure Espiritua ixuriaz: gaízki dago; Espiritu ixuriaz "del Espíritu derramado" da, Espiritua ixuriz berriz "derramando el Espíritu".

"Espiritua ixuriaz" bereizte-atzizkia bi aldiz sartzea da, gaztelaniz "la casa la grande" esatea bezelatsu.

35a) bere gogoz Gurutzerera zijoala. Ikartzen dudán aldetik ongi dago, baiña "bere gogoz gurutzeratekotan zalarik" jatorrago eta argiago.

Ogia artu eta eskerrak emanaz, zatitu zuan, eta bere ikasleai eman esanaz. Bietan gaízki: emanez eta esanez bear luke.

Berriz ere eskerrak emanaz, bere ikasleai eman zien esanaz. Berriz ere bi aldiz gaízki.

37a) zure Gurutze ta Piztueraz. Au ere "euskeraz" bezala da.

Zure Semearen Eriotza eta Piztuera gogoratuaz. Gaízki: dagon bezala "con las recordadas Muerte y Resurrección de vuestro Hijo" adierazten du.

Zuri eskerrak emanaz. Gaízki.

39a) Jesukristo zure Semearen bitartez. Ongi.

Onen bitartez. Ongi.

41 a) Salbatzalleak agindu ta erakutsíari jarraituz. Ongi.

47a) Bizi bedi oparo zuengan Kristoren itza, alkarrentzat argi eta bero izanaz. Gaízki.

Guztíra amabi aldiz ongi, amabi aldiz gaízki, eta bi aldiz dudagarri *aintzaz eta Piztueraz*: auetxek dira, izan ere' nere txosten onen gai.

Izenburutzat idatzi dudana argiago ikusteko' ikus dezagun "euskeraz" orde bestez izkuntzaren bat aipatzean nola jokutzen dugun:

Italianoz arí da, ingelesez míntzo da, alemanez itz egiten du. Habla en italiano, en inglés, en alemán).

Italianoaz ari da, ingelesaz mintzo da, alemanaz itz egiten du. Habla del italiano, del inglés, del alemán.

Beraz "habla en" adierazteko' -z atzizkí utsa erabíltzen dugu, baiña "habla sobre" edo "habla acerca de" adierazteko' -az atzizkia; gaztelaniz "el" bereizte-itza sartzen dudenean' guk ere gure bereizte-atzizkia sartzen dugu, -a alegía.

Orrela izanik' bizkaieraz gauza garbi dago: habla en vascuence orde' *euskeraz diardu*, eta habla del vascuence adierazteko berriz' *euskeraz diardu*. Emen ere bukaerako a ondorengo -a atzizkiaren auzia dugu.

Bizkaieraz alaba eta alabea, neska eta neskea, ola eta olea, luma eta lumea ederki bereizten dira, baiña Gípuzkoa'-ko goierritik kanpo bereizte-bíderik eztugu. Obe genuke guk ere alaba eta alabaa, neska eta neskea, ola eta olaa, luma eta lumaa bereiztea, gutxienez ere idazten dugunean. Orrela egiñez'kero' euskeraz mintzatu da (ha hablado en vascuence) eta euskeraaz mintzatu da (ha hablado del vascuence) ederki bereiziko genituke.

Erriak -z eta -az ongi bereizi oi dituana argi ikusteko' onako auek berridaztea ongi iduritu zait.

Canc. Vasco 942: gorputzez mezan, gogoz tabeman.

C. V. 743:

Denbora da mintzatzeko
pasione saintiaz
eta nigarr egiteko
Jesukrist'en hiltziaz,
haren erremestatzeko
egin daiken graziaz

Sujet hunez mintzatzekak
bihotza deit trenkatzen,
zu ikusiz baratzean
odol hutsez izertzen,
nuiz ere erran beitzunian
tristeziáz isiltzen.

(Sujet huntaz bear lukela esango nuke; besteak ederki dagode).

C. V. 464:

**Nere maitea, ez egon sustoz,
biziko gera munduan gustoz:
palazio bat eginen dugu
sekalez edo lastoz,
balkona ere basa-lizarrez,
teillatua belarr igarrez...**

Riezu 63:

**Han nintzan harrapatua,
aginduaz dolutua:
urruntzeko izan banu
hirur arditen lekua...
gizonez inguratua,
iduri preso hartua.**

Kantu, kanta, khantore, 126a:

Zazpi uso doazi
**hamalau hegalez,
beren mendí-lephoak
atxeman beharrez;
kanpoan hiltzera noa
maite, zure minez:
bortha idek zadazu
Jaunaren amorez.**

Zazpi uso doatzi
hamalau hegalez,
oihanian beitiere
haziren ezkurrez;
ene bihotza dago
bethea dolorez,
zure begi eztiak
Ikusi beharrez.

Lafitte'ren "Grammaire basque" liburuan, 849: harri batez bi xori; ikusiz ikasi nuen; ez dut hortaz on egiten.

Arotzarena'ren "Gremmaire basque" liburuan:

165: Urtheak ditu bainan atzokoaz bezain orhoit naiz (J. Harriet-Urruty).

167: Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi (Mendiaga); gosez hiltzerat zohan;

Mehetegi'ko xakurra zangoz, errainez makurra; Amoa ontuz doa urthetik urtherat;
Oinez zebilan bidean; Urthetik urtherat aberastuz zohan.

178: lagunez orhoit zen; amoz betehea zen untzia; beren anaiaz bekheizti ziren.

189: segur naiz lanaren bururatzeaz; bozkariatu gira zure ethortzeaz.

198: atsegin du jakiteaz; aski pagatuz, ukhanen duzu.

Esaera zaarretan ediren ditudanak beste orri batean bilduko ditut, J.

Ona beraz bereiztapenak nola egin genezazken:

indarrez egindako liburua (libro hecho a la fue rza, forzadamente).

indarraz egindako liburua (libro hecho acerca de la fue rza).

buruz dakiana esan digu (nos ha dicho lo que sabe de memo ria).


buruaz dakiana esan digu (nos ha dicho lo que sabe acerca de la memoria).

zaldiz poliki daki (sabe montar a caballo bonitamente).

zaldiaz poliki daki (sabe bastante acerca del caballo).

Esan ditudanetan eztago ezer berririk, baiña aipatu ditudan esakera okerrak agertzen digudenez' arau errez-errez ori eztazagudenak badira; italiarrek dioden bezala' "non conos-cono la luna de Bologna". Txosten onen bidez norbaiten laguntza edo argia sortuko balitzaio' poztuko nintzake.

ZataraIn'dar A.



LEKEITIO'KO ARRAINZALEAK LONDRES'KO ERAKUSKETAN 1883

Arrantzale erakundeak, euskal erri jatorretan kokatuta egonarren, ez dira ain zuzen, kanpoari begira, euren lanak euskeraz egiten asko alegindu.

Gaur oraindik oarrik txikienak be erderaz egiten jamaitzen dabe. Eta euren ia eguneroko salmenta eta abar bardintsu, nai fa tresneri elektronikoa eukieran, euskera bakarrik erabiltzeko aukera geiago euki.

Alaz eta lengo gizaldian Lekeitio'k irakaspide on bat emon euskun. Arrantzalien tresneriei buruz Londres'en egin zan erakusketa baterako, lekeitiarrak 23 erakusgard bialdu zituen, geienak aparixuak, bai eta traña eta sareak be.

Orretarako Englandarren izkuntzan, gaztelaniaz eta euskeraz bialdu eben lanabesen "Oroimengarri ziazalduna".

Oroimengard ori Delmas'en irarkolan irarri zan Bilbao'n, itxuraz erakusketa bitartean adierazgarriztat erabiltzeko.

Ez da esaten edo agertzen euskeratzailerearen izenik. Bear ba da orrek erakusten dau lekeitiarrak ama-izkuntza jatorrean idatziko ebela, itzulpenak besteek egiteko. Ba dirudi barba batzutan aldiko barrizalekeriala igarten dala Alaz eta egoki deritxagu lengo zarren baste jatortasun ugari ezagutzea eta ezelako ikutu barik argitaratzen dogu.

A. Z.

Uri onetan billatu eziñik XIV garren eunkia baño anchiñagoko irakasde izkibrurik, uste бага gaiduziralako aren gañ jausi ziran bein baño gayalgoko iazenyetan, bereziro 1442 an igarotako su ikaragarriskuan, zelan agertzen dan 1444-aren Orrilleko 6-an errege On Juan II garrenak emondako charlaban, ez da gauza erreza Babera edo Kofradiya onen jarrierako urria señalautia Kabanibez jaunak, *Lequeitio en 1857* derichon bere liburuan, ipinten dau 1318-an; baño badaukaguz goguan Uriaren egin kondairatu izendatuena, bibur bage asan lei igoten daia onen asieraraño, bada amartzat dauka chaiopa bat zortzi erremugaz albo bakochetik balai bat kakuakaz eutairik, guri adierazoten emoteko legez bere lenengoko Iekontariyeen jardunaldiya, agertuz eukirik iracaste egiazkuetan arretauten zirala arrañ andi onen segiyen, erakuzten dozkun iegez aren banderako azalkayak.....horrenda *cette sujet*.

Edozeian izanik bere, zigur dakigu bitezarduta eguala XV garreneko eunkian, ikusten dogu bada duala 1475-an Errege Katolikuaeren Iaguntzan Otranto-ko Irabazkidara: Onda-

rrabiyako umaiaitara nola duan egan 1521-an eta 1522-an, eta azkenez 1719-an zelan izekauten daben Irantzesaren amada, Donostiya estuta eukanian, sartu zituzalako janari ugariyak.

Emendik esan leiaren bitezardia dala gaurko egunian bere gustiz otsedagotsua, molde-aurik aidekoyen gisan, bere batzarretan artutako naierakaz.

Anaikintza au konponduten dabe 600 gizonak, emaskituak iru besdespillan: *menpetariak* edo chalopiaren jabiak, *chalupa gidariak*, edo onen zuzenderako artatuak eta *arrainzale* utsak: lenengokuak dira 22; bigarrenenguak 24, eta biyok konpontzen dabe biiguma zuzengarriya izentsu leikena, bada eurok bakarrik dauke ala berba egiteko, eta erabagiteko anaikintzako chede ganean *batzarreak* deitutako, baigunetan, Ozentari edo Mayordomuaren dei nagusi pian.

Ozentari izateko biarda 40 oñ baño luziagoko chalopia eukitia, bere gañian arturik onen irazoeria urrengoko 3 urtian, eta ezin autatu lei bigarrenez, amaitu a rte menpetariyak seña-laurik dauken chandia. Denboraidi onek singulua izen dauka

Ezin izan leitez Ozentari, singuluaren asieran mempetariyak ez diranak

Ozentariyaren artapenak dira: arraña saidutia, onen baliyua eskateratutia, eta paguak egitia, eta onetarako dagoz bere albuari izkribuari bi, Kofradiyako diruakaz irozotuak aloger zigurragaz, baita a bere 8.000 errialegaz urtian. Dauka bere gañ chalopeen sartueria zuzendutia portuen ekaitz egunetan, eseututia Talayatik, ichasakieko muturretan austen diran olatu urrutikuak ikusiyagaz noiz pasau leiyen ondarpia ugeraldi osuan.

Lan onetan laguntzen deutse portuan sartu diran lenengo chalopa biyen patroyak.

Urte batekua da aren ibiikairia Garagarillaren 30 eraño, eta menpiaren artueran agiten diranak, adierazoten deuskube onen asieraren anchinatasuna, baita Kofradiyak erriyan daukan egokida eta betustia

Bilguma baturik Uriko Echian Baguillaren 30-eko arratz aidian, eleiz egintzak amaitu ta, ozentari zarraren eta barriyaren laguntzen, duaz danboliña aurretik dabeeta, lenenguaren echara, nun artuten dabeen diruak gordeten diran zurezko kaxia, eta eruaten da 6 arrainzari indartsuen lepuetan bigarrenaren echara

Kaxa onen gañian sutiñik jarririk mutil gaste bat, zapata baga, kalzeta zuriyak oñetan dituzala, praka zuriyagaz, seda gorrizko gerrikuagaz eta oyal baitzezko jakachuagaz, ezkuman banderia eta ezkerrian kopadun kapelia daukazala, eguiten dau miragarrizko iraunde eta arintasunagaz dantza bat, danboliñaren soñuan, izendatueen echeaurrian eta Uriko plazachu baten arrustaiyan dagon Balieraren patroï San Pedoren irudintzaren oñian edo beyan.

Kacharrenko derecho zerernoniya oni.

Egun onen goizian egiien da aurrez Mayordomu barriyak emon biar daban senaustaren agerkaya, eta onetarako Uri Echetik dua izkribaua Alkate jaunaren eta sarreanta baten laguntzan, Kofradiyako Echara danboliña aurretik dabeeta, eta a ainaturik, biurtuten dira Mayordomu biyakaz lagundurik.

Balierak daukaz gañez jarduraille batzuk Ozointariyaren agindupian.

Talayerua dago seña egiteko keediagaz portuko mendi ingurukuen goi batzuetan, egualdiyaren biurreria adierazoten emoteko chaoopai; onen bat galduten daneko edo ichasaideko albuari anchoba eda Bardiña pillua, *Manyuya* derichona, agertuten daneko.

Onen Iokana da bisigua pisautia Azillaren I egunetik Epaillaren 31 araña, eta tan au gaitik emoten jakoz 100 bat peseta, gañez eukirik zariz 250 *peseta* urrian.

Señeru bi dagoz, eta onen lanak dira chalopak portuan zaindutea eta mariñelai deitutia onantzian, bada denporia agertzen ba da illuna, batuten ditubez patroyak, zeña Talayatik odeiyak eta aizia esaguturik, boiachu bafzakaz erabakiten dabee eskutuan chalopak urtengo badabe edo ezpadabe. Erabaki au orratezkizuna da, eta au austen daben chalopai kentzen *jakee* dakarreen arrañaren baliyua, zein gordeten dan Kofradiyako kaxan.

Oneek dabilten chalopak eta beste bik bandera bana darue bestial biurreria adierazoten emoteko, denpora charraren ichurarik *kalan* agertzen ba da

Kalak dira arrantzan egiten dan urbama gichiko tokiyak, zeña seña lauten diran beste ligorreko *markak* derichonakaz.

Kofradiyak urte osuan daukazan gaistu danak, eltzen dira bakidaro 90.000 erriatera, eta emen sariuten dira sarituen alogerak, kayeen eta Kofradiyako gauzeen barriztueria, pagau ez diran zensuak, al ez dabeneentzako unalaitak, ura eta eleizako askayeen gastuak, eta chalopak galdu jakeezan ugasabai emoten jakena, nausiyak gaitik, baliyuaren erdiya, eta laurena treñeruak gaitik eta beste ontzi modukuak gaitik.

Oneen gañez gastaduten dira, eguraldi char luzetan chalopak portuan dagozanean,

Kofradiyak, % etik 10-eko irabaziyan Zemendilietik Otzaileraño, biyak arturik, eta % etik 5 an beste illetan, artzen dituzan diruak, zeñak zabaltzen diran eskatuten ditu bezan arrantzari premiñatuen artian.

Kofradiyan sartuta dagoz 122 ontzi, zabaldurik modu onetan.

50	chalopa nausi.
16	chalopa chiki.
6	potin nausi.
60	potin chiki.
60	botakor.
60	batel.

Ichas gizonen egoneza gaitik, 24 chalopa nausi dabiitz bakarrik bisigu arrantzako denporan.

Chalopa oneek ateraten dituezanakaz, pagauten dira esagututako gastu guztiak olan:

Sardiñak eta anchobiak bertan egien dabeenetik emoten dira 4% ian eta anbat % ian gastauten dan gustiari jatorrena, chaiopa bakochian dabiitzan gizonak zenbaturik.

Onelan bere sartzen dira Ballerak utsik daukazan bere Echeko bizi-tokiyeen errentak, eta arraña garbitutia gaitik erosliak emoten ditubezan garbitoki-sariak.

Irabaziyan ariutakuak pagaduten dituz % eko 5 agaz gizon bakochak, partillak egiten diraman, artuten dituzanetik.

Chalopak jua leitez arrantzan beste portuetara; baña pagau biar ditubez poriuo sariak, emen egon balira legez.

Chalopa nausiiyak

Olan izendatuten dira atun, legatz eta bisiguaren arrantzan bereziro dabiitzan chalopak, urrutira duazaiako.

L° 23 garren leniskusguak adierazoten daban legez, kubieria bagekuak dira, eta euren neurriyak olakuak:

Luzera 45 oñetik 50 era

Mangia 9 oñetik 10 eta 1/4

Puntala 3 oñ eta 10 erpurutik 4ra

Gillia, ezkurrezkua izan arren leniskusgokua, paguaz egin leite, zuzena da, eta dituz 6 erpuru goitik, eta 1/2 lodiz.

Atzeko kodastia laututa dago, eta onen neurriyak dira 5 erpuru lodiz, eta 7 zabalez, aurrekua legez eta biyak dira arizkuak.

Sagarrezkua da leniskusguak popan daukana.

Kontra-metazurak arizkuak dira

Armazoyak aritzaren sustrai eta motzorrakaz egindako ustayak dira, 3 ¹/₂ erpurukuak goitik, eta 3-kuak lodiz.

Karelak bere arizkuak dira, obeaguak izan arren inchaurrezkuak, leniskusguan ikusten dan legez, eta dauke 3 erpuru lodiz, eta 4 ¹/₂ zabaleran.

Tanboretak eta Ziriyak artzagaz eg iten dira, baita bragerak bere, jarolak irozoteko ipinten diranak, eta zeñak daukeen 1 eta ¹/₂ erpuru lodiz eta 8 zabaleran.

Kanpoko oldestia pinuskua darua leniskusguak, baña ordeztu lei aritzagaz urak jöten dabeneraño, ganerakuan ipiñirik lfarreko edo Norie-ko pinua

Iltzadia galbanizaurik dago, eta 4 ¹/₂ erpuru daukaz beyan luzez, eta goyan 4 bakarrik.

Burdiñazko kabileriya, leniskusguan ziboill gorriyakaz señaletan dana, okoillakaz irosten da, eta zurezkuak sartzen dira bat edo bi, zelan dan armazoi bakocharen zabaleria.

Lamia eta Eua dira inchaurrezkuak eta gastañazkuak.

Kalafetateko usauten dira mulozko mecha bat edo bi eta kanpotik brel eta sebusko karenia darua, eta barrutik alkitraya brageretaraño, eta pinturia beste aldetan.

Bragerak darue kanpotik eta karelaren aspiyan zinta pintau bat 4 erpuruko zabalerakua.

Bisigura juaten dira 20 gizon, eta 8 legatzera eta atu nera

Apariyua konpontzen dabee maste bik 6 belagaz, bina bina, aizia nolakua dan Bela nauziyak dituz 200 kana lautuan, trinketak 120; balisto nausiyak 90; erdikuak 60, chikiyak 30, eta zerberanua derichonak 20.

Maste nausiyak edo popakuak daukaz 42-ren bat oñ luzez udan, 36 neguan; proakuak edo trinketak 30 oñ, eia bergiak 28.

Maste bakochak beraz daruaz bere sokak neurri berzegikuak, drisek diñeutsezanak, pobetan igaroten diranak, leniskusguak erakusten daben legez.

Erremuen neurriyak dira; popakua eta proakua 16 oñekuak, eta bestiak 14-kuak.

Chalopa oneen baliyua izaten da:

Chalopa utsa	5.000 errial
Apariyuak (belak eta erremuak)	4.000 errial

Gutziz 9.000 arria!.

Usabaren kontura duaz apariyuak, eta chalopia konponduten eta gordeten gastauten dana.

Mariñeleen kontukuak dira arraintzako apariyuak, sartzak aldeturik.

Arrañaren baliyua, kendurik karnatatako gastauak eta Kofradiyaren sariak, zabalduten da zati bardiñetan, *soldadak* derichenak, chalopakuen afilan, geituagaz beste iruan ugasabarentzat seña-lauak, eta beste lauren bitan; bata patroyarentzat eta bestia *deitulariarentzat*. Au da emakume bat, ipiniya chalopako gizonai deituteko, eta chalopiaren apariyuak bertara eruateko.

Jaubiak, gañez, emoten deutsa patroyari doiker bat arrantza onen denporan edo koste-riaren iraueran.

Juan-etorriyan eta arrantzan egiten dan denporia da: goizeko iru edo Iauretakil arrazaldeko ordu bardiñeraño, aızıaren eta ichasuaren egon-eriaren gisan.

Atunaren Arralntza

Mueta au, *Thymus pelomys*, Linneo-ren gisan, Akantopterigiokuen ballerakua, erderaz *Bonito* deitua, arrainduten da Garagarilleko 15-etik Zemendillaren egun bardiñeraño, portu onetik 90-en bat milla edo ichas-neurri, kanporuntz lenenguan, eta askanian 9-ren bateraño N.N.O. arteztian.

Urte gustian ateraten dira 34.000 arroba eta baliyoten ditu bentan erdiz 5 Iauko libriak.

Preskuan eruaten da ugari lur barruko erriyetara, eta Uri onetan dagozan 7 fabriketan egiten dan eskabicha, igonik 6.000 arrobara oneek prestuten ditubezana arrain mueta guztietan.

Onetarako biar da L^o aparizua, egiña lau zati dan. Kazan kordel bategaz, 1^o 20 brazako maimena: 2 garrena: 20 brazako sokala: 3 garrena 16 brazako gibarren sokala, aurrekua baño meyako, eta 4 garrena 3 1/2-ko Iorua. Onek darua amaiyeran amu bat, eskutaua ario-orriyaren erraziyetan.

Apariyu au eruaten da Iraill, Urill eta Zemendillan, zergaitik atuna dan gorputz andizagokua eta Bagilla, Ustail eta Agorrillan L^o 2 garreneko leniskusgokua, lenenguaen ichurakua: baña zati guztietan meyagokua...

Olan erabilten da: chalopiaren albo biyen erdiyan ipinten dira makilla bi, *egak* izendatuak, 45-en bat gradu kareleen gañian makurtuak. Bakochak daruaz 3 polia, dagozala braza eta erdiko zabaleran euren ardan, lenengua ipiñirik kanpoko muturrian. Iru polla onetatik pasauten ditubez beste ainbeste apariyu, señaik sainduten ditubezan 3 gizonak, popa aldian jarriyak: pasaten dabe apariyu bat ega biyen mutur gañekotik, bestia erdikuetatik, eta irugarrena beste biyetatik edo aspikuetatik. Sentiduten dabenian tira, apariyua erriatuaz, esaten dau *ara*; patroyak, eskota erriatuaz, kendu deyon chalopiari ibillera apur bat, polla jo arte maimenaren eta aurrengo sokalaren tartian dagon inguretak.

Orduban, beste gizon batek, proako aldian jarriya, oratuten dau kordeletik edo tira egiten dau pasaurik dagon esan dan inguretatik, eta alauka, alauka ekarten dau arraña chalopiaren kostaura eta illten dau kakuagaz, 1 eta 2-garren L^o-ko apariyuai lagunduten daben lanabesa.

Arrantza modu oni esaten deutse *Kazan*, arintasun andiyagaz belan egiten dalako, eta onetaraco biar da aize gogorra artauste baga.

Blsiguaren arralntza

Mueta au, *Pagellus* Kubier-en gisan, aurrerakuaren ballera bardiñekua, arrainduten da denpora bitan: lenengua Zemendillaren 15-etik Otzaillaren 15-eraño, eta bigarrena, sortuerakua, Epaillaren 15-etik Sorraillaren 24-raño.

Portu oneko kalak dagoz N.N.E.-ko arteste beran 9 millatik 12-rañoko tokiyetan.

Balta bere arrantzaten da Baitzillaren 1-etik Franzia-ko ichasaldian (Grankanto), zeñ dagon 48-ren bat millatik 60-raño N.E. artestian, eta beranduten dira egun bi geyenetan.

Elduten da 30.000 arrobara urte guztian artuten dana eta arrobiak baliyoten dituz erdiz 38 errial. Biyalduen da preskuan eta eskabichan lur-barruko erriyotara

Mueta onen arrantzia modu bitan egiten da:

1.º Eskuagaz: usauten da 3 garren L-ko apariyua *Terts*a derichona eta egiten da 50 brazako kordel bategaz, zeñi ipinten jakoz dindiliska, oñ 1 eta 4 erpururen bitartian, bate-tik bestera, beste chikiyaguak, *pocheruk* izendatuak, irureun a rie, oñ batekuak zeñai amuak askenez esarriten jakoz, Gizon bakoçhak daruaz 3 apariyu onen beste eraldetan ichiten ba dabe eguraldiyak eta arrainaren etorreriak.

Kalara eldurik, sonda eziten da, eta au esagaturik, zabalduten dabe apariyuba patroya-ren albuaz dagozan gizon biyak, edo estaiko biyak eta gero urrengiak chalopa-erdiraño. Oneen apariyuak amaituten dira 500 brazako kordel baten, eta beste bukan darua libra bi eta erdiko arri bat ondua jo dagiyan. Tiria edo pikadia sentidu ezker, erriauten da kordela geldi, geldi, beste apariyuak nastau ez dagiyezan eta amuak beteta dagozala uste dabenian (ordu bete inguruan) esagututen dana tireetan eta pikadeen zenbatasunian, alauten dabe eta batuten dabe arraña

Orduan beste onenbeste egiten dabe osterantzekuak, edo proatik erdiraño dagozanak.

Bigarren joaitan. *Palangre* izendatuan, enpliauten dira apariyu ber berak edo tertsak; Baña onako eran ipiñi ta:

Jaurtiten da burdin-orrizko boya bat, Palangre derichona, 4 garren L-ko leniskusgua ba-ño iru bidar andiyagua, eta oni orapilduten jakoz 3 terisa lotuak beretan, askenengua bes-te boya bati esturik, eta jarraituten da olan 50-en bat zabaldu arie, iru tertsa bana boya biri lotuteko moduan Boya danai pasaten jakee 500 brazako tirante luze bat aren bako-çhak daukan chibiste batetik, bakandu ez ditezan eta errezago batu al ditezan.

Moldaera au giehik jarraituten dabe gaur poriu onetan, bada euki arren geidi batzuk aurrenguaeren gañian, daukaz beste aldez utsalde esagutuak.

Bein baño ez da botaten, eta au gaitik arrantzia ariñaño egiten da: zabalera geyago artuten dau, orregaitik emoten dau geyenetan zenbate andiyagua. Kontrakotik, egualdi char bat ba dator, apariyuen batuera gach agiten da, zegaitik onetarako denpora asko biar dalako, ekariyaz gaftzopen betusgarrizko andiyak, Gañez, arrañik ezpadago apariyua botaten dan zabaleran, galduten da kamata asko, eta onek egiten dau garestiagua izatia

Batian eta bestian kamatatat ipinten da anchoba preskua.

Legatzaren arralntza

Mueta au, Malakopterigio-sub-brankial-een ordenakua, Gadidu-en familiyakua, *Merlucius vulgaris* Kubier-en gisan, arrainduten da Baltzillaren 15 etik Bagillaren 30-eraño 9 milla egiñik N.N.E.-eko artestian. 29.000 arroba ateraten dirala urte osuan, eta libria salduten dala erdizkiro 20 laukuan. Urteko baste illetan arrainduten da, baña anbate gichiyan. Geyena eruaten da preskuan barrura eta zerbait eskabichan.

Enpliauten da 5 garren L-ko apariyua ichasua bare dagonian, eta Eguskiyak berotuten dabenian, bada aldeko onetan eztau geyenetan oratuten. Da kordel mei bat, 100-dik 300 brazarañoakua, leizonduaeren gisan, amaieran daruala beron bat, zeñi dindiliska ipintin jako bedar koloreko kordel bat, brazza batekua, chanpela derichona, eta zuriya legatz chikiya-rentzat, ba da, andiya bada usauten da 6 garren Lko leniskusgua, gogorragua eta chan-pel battzekua Chanpelari lotuten jako amua modu berezian ebagi al izan ez dedin.

Karnatatat ipinten da sardiña, anchobia edo chibiva, baña obeago da sardiña chibiya-gaz nastaua. Botia bere enpliauten da

Chalopia irozotu ta erremu bat edo bigaz, aiziari, proa emonaz, edo fondiaurik, zabaldu-ten da apariyua, zuzen onduagaz, beya jo a rie, baña kontuz karnatiak au jo ez dagiyan, bada oartuta dago legatzak ez dabela orduan oratutea.

Orregaitik da gacha arraintzako modu au, eta apariyu onen erkuztak biar dau ukin piña: au gaiti dira ain zenbatuak legatz-arraintzari onak.

Botiaren arralntza

Izen onegaz esagututen dira Chibiyak (*Sepia*) gorputz andikuak, zeñak dira bakidaro Iegatz-kalak baño 5 legua kanporago, eta ara juañ oi dabe chalopak kamatarik eztauketan, 8 garren L ko apariyuagaz. Au egiten da 400 brazako kordel bategaz, azkenez daruala berunezko biganzi bat, zeñen ondaspeko giran ipinten dira amuak bollesaren eran. Kamatatat darua sardiña sarra edo urdaya ondapia baño gorachuago biganziyari loturik. Ez dau joko ondua, eta chalopia euki biarda geldi. Bere besuakaz bigaziya oratuten dabenian, tira egiten dau, eta ez dago orduan apariyua igotia baño.

Chalopa teñeruak

Olan deituten jakee sardiñaren edo anchobaren arrantzara bereziro duazanai; baña bere egunetan chalopa nausiyeeñ laguntzan sarri juañ oi dabe bisigu, legatz eta atunetara. Esan leike portu onetan ideatuak dirala, bada emengo astilleruetan ekidatu zirak lenenak, eta orañoño artuak izan dira aldeko portuetan.

Esagututen dira bere arintasuh eta ekida liraiñian: gilla makurra da eta popatik eta proatik goratuagua, kodastiak dauke ustai ondo markauaren ichuria jira egin al dagiyen bere erdiyaren gañian. Eztaike edo kubieta bagekuak chalopa nausiyen modura eta oneen eki-da ber bera dauke, baña dira lauaguak, flotaera gichiagokuak eta olako neurrikuak:

Luzera 38 oñetik 42 raño.

Mangia 7 ofletik 7 1/2 raño.

Puntala Oñ 2 eta 8 erpurutik 2 eta 10 erpururaño.

Trañeruak bisigura daruez 15 gizon, eta 8 legatzera eta atuner a.

Chalopa nausiyena lacua da apariyua; baña ez ditubez erabilten 4 bela baño nausiyak daukaz 90 kana lautuak, trinketak 50, balisto nausiyak 30 eta chikiyak 16; eta bina, bina empliuten dira aldekoen eran.

Udako maste nausiyak daukaz 23 oñ, 36 negukuak: trinketak 22 eta bergiak 16.

Popako erremua 15 oñekua da, proela 13-kua eta bestiak 12 kuak.

Aren kostu urreratua au da:

Ohalopa utsa 3.200 errial.

Apariyuak (belak eta erremuak) 3.000 errial.

Treña (arrantzako apariyua) 6.000 errial.

Dana 12.000 errial.

Jaubiaren kontura dua chalopia, trena eta sariak konpondu eta gordetia Arrañaren baliyo garbiya Ballerieren sariak eta kamataren gastuak kendurik, egiten da zati bardin bi: bata menpetari edo jaubiarentzat, eta chalopeko jendiarentzat bestia. Bigarren au zabalduen da bardiñez oneen artian, eta ugasabak emoten deutsa beranetik chalopeko gizon bakochari laurena lenengo partillan artu dabenaren gañian; baria patroyak artuten dituz andik lauren bi.

Beste arraintzetan moldauten dira chalopa nausiyen usariyuetara.

Anchoblaren arralntza

Anchobia, *Engraulis*, Kubier-en gisan, arrainduten da Epailaren lenengo egunetatik Bagijaren askenenguetaraño, eta irailaren erditik Abenduaren askeneraño, 9 millan ichasalde-tik edo onutzago, eta ateraten dira urie guztian 48.000 arropa, salduten dala arrobia 12 errialian. Ateraten da preskuan lur barrura, eskabichaturik eta gatziturik, esan dan legez: enpliaten da kamatatat; artzen dituz batzuetan baliyo sinisgarriskuak, eta ugaritasuneko denporetan jatsi oi da baliyua iya ezerezera, bada eruaten da lur landuak zimaurtuteko.

Arrantza onetan enpliaten da apariyu *Treña* derichona, baita bere *Kopua* edo *Zerkua*, bakarrik usaua portu onetan, urte gichitik ona artua izanik kostako portu danetan.

Beraren irudiya da 18 garren Lko leniskusguak adierazoten dabena, zeñi dagokigun aren ziazalduran.

32 brazatik 40-raño luzerako AB albuñ ipinten dira a urgañian irozoko dabeen korchuak eta berunak irozten dituz CD-ko ustayak, zeñen erasko sokia, zibollakaz markatua, 23 brazakua da Ustai oni lotuten jakoz bederatzi ingureta menastekuak, ipiñiyak modu

onetan bat erdiyan eta 4 albo bakochan, eta lenenak egonik luzeturik braza bi erditik, bestiak euki biar dabee aurrekuaren luzeriaren gañian braza erdi geyago (2 1-3-3 1/2 &) CD-ren amayetan dagozan askenengueteraño.

BD eta AO aurreko albuak, *bragerak* edo *pandak* deituak, daukez luzez 7 braza

A-ren amayeran lotuten da 10 brazatik 14-rañoko kordel bat eta 32-ko beste bat B-ren kontrakuan. CD ustayaren inguretatik pasauten da 32 brazako chikot bat *bragerekua* deitua eta M eta N-en amayetan lotuten jako 10 brazatik 14-rañoko kordel bat.

Sardiñaren arrantzan erabilten danaren mallak daukaz 12 milimetru laurkan; 7 bakarrik anchobiarenak.

Usantza. Lenengo lana edo plamautia egiten daba popa aldiian dagozan babor aldeko 3 gizonak, treña batuagaz korchuak ichi arte popa albuaren morboillan eta beste albuaren berunak eskumatik ezkererako morboilletan. Alan bada uste eginik tolestuta daguala AO, brageraren gañian, aren amayen chikotak geldituten dira popan gizon biren kontura. Beste chikot biyak duaz proara, pasau egin ezkerro braza 2 eta 1/2-ko makilla baten, 2 garren Lko Irudiya, *chardangua* derichonaren, erdiko eta goiko urkuiluetatik, eta zearrez ipiñiya ezkerreko albuaren gañian, B askeneko korchuaren chikota pasauten da gañeko urkullutik, eta amaituten da proelian edo proako gizonian, eta D askeneko beruneena, Chardanguaren eta proelaren bitartian dagon, *bizkarra* derichon, gizonaren eskuetan.

Manyuya datorrenian, olan izendatuten dira sardiñak eta anchobak ichas-gañian egiten ditubezan pilluak, Izurdak segiyen dakarrezala, eta zeñak esaguten diran oneen eta areen jiran dabiltzen kayuen aurkeran, urreratuten da chalopia 6 brazako bidastian geditu a rie, eta Eguzkiyari popa emonik, jira eragiten jako ariñ pilluaren edo bankuaren inguruan, alauten dabeeta gelditu bage saria edo treña popako eta proako gizonak euren kontura daukeezan chikotak, korchuakaz egiñ arte boilerla bat baboreko bandan edo albuaren. Orduan areek eta oneek kobrau edo alauten ditubez euren kordelak, chardangua kenduaz eta inguretak batuten dira erdiyan ezkerreko kostauaren gañian zeñegaz sakua geldituten da eraturik, eta chardanguakak eldurik korchuak egiten dabeen utsunia, batuten da arraiña treñarena lako mallak daukeezan salabarduakaz.

Sardiñiaren arraintza

Clupea sardina, Kubier-en gisan, arrainduten da Otzailletik Abenduaren askereraño milla 2-tik 10-eranaño bidaste aldakoyan, eta zenbatuten da 24.000 a rroban urtian ataraten dana, arrobia saltzen dala erdizkiro 24 arrialian.

Anenobeetako apriyu ber bera enpliauten da, baña bakarrik pilluak edo bankuak esan dan eran, eraztuten dituzanian.

Usau lei kamata Maziya derichona, bakallauaren errayakaz eraztua, eta capliaren dira onetarako 19, 20, 21 eta 22 garren L ko leniskusguen sariak, korchuen eta beruneen aldiak eukirik luzez 200-en bat oñ, eta kontrako aldiak, 18. Ez daukee malla bardiña, eta lenengo Lumerokuana da chikiyena edo estuena, erabiltzen dana Bagillian, 2-garren Lko nausiyena, Agorrillaren asieratik Zemendiliaren amayeraño.

Orretarako batuten da sana tolostua korchuen eta beruneen gañian, eta ichiten da asken bat gelditu dedin arte zablaturik zuzen ichasuaren gañagaz. Patroyaren kontura dago korchuen askenari lotutako kordela, zein oratuten daban eskerragaz, bitartian jaurten dabela eskumiagaz maziya sanaren albo batera eta bestera sardiña agiri dedin arte, eta orduan botaten dau bakarrik kontrako aldera, nastau dedin malletan, oneek igarotu naiyagaz.

Au ardietsirik, zeñ esagututen dan sanjaren pisuan: patroyak batuten dau kordela, eta irozoturik oni lotuta dagon korchueen alboko askena, oratuten dau beruneena, alauaz arin biyen batuerako albu Ohalopakuak, onek oratu ezkerro, batuten dabee saria paneleen gañian.

Baita enpliauten da gabaz sana mazi bage, zabalduagaz, esan dan legez kostatik milla 2-ko bidastian, illun abarrian, señalearik boya bategaz saria fondiaturik geldituten dan tokiya; eta batuten da biyaramoneko egun sentiyen. Moldaera au bakarrik usauten da eskasdenporan baliyo andiyagua arizen dabenian, zelan gertatuten dan Epaillian.

Potin nauslyak

Olan izendatuten dira kostatik urrin arraintza guztietan dabilitzan chalopak, baña icha-sua bare daguean eta egualdi ziurragaz, enpliau leitekez, euren izenak diñuen legez, legatz, bisigu eta atunaren arraintzan, bere arrantzak bakarrik izanik Angiria, ateraten dana sardiñagaz, esan dan moduan, maziyan eta gabaz.

Oneen neurriyak dira:

Luzena 28 onetik 35-ra.
Mangia 7 1/2 orretik 8-ra
Puntala On 2 eta 6 erpuruik on 2 eta 8 erpurura.

Beta bik egiten dabee apariyua: nausiyak daukaz 30 kana lautuak, eta chikayak 16.

Lau gizon biar dira mazirako eta 8 legatzerako.

An da bere baliyua:

Chalopia 1.500 errial.
Apariyua (belak eta erremuak) 1.000 errial.
Lau sare 1.300 errial.

Dana 3.800 errial.

Beste ontzlyak

Dabiltk laster esango dan mueta batzuen arraintzan portutik urrun, eta emoten deutseez izen oneek: Potin chikiyak, Botakorrak eta Batelak.

Potin chikiyak bere juaten dira mazira, eta euren neurriyak dira:

Luzeria 20 uñetik 23-ra.
Mangia 3 eta 1/3 onetik 6-ra.
Puntala On 2 eta 5 erpurutik on 2 eta 7 erpurura

Apariyua, potin nausiyeen neurri bardiñeko bela bat edo bi eta 4 chalopa gizon, onen baliyua izanik:

Ontziya 1.000 errial.
Apariyua (belak eta erremuak) 500 errial.

Guztia 1.500 errial.

Sariak, chalopa nausiyeen modukuak.

Ez ditubez pagauten sardiñiaren arrantzako sariak baño, bada beste arrain muetak sal-duten dira bakidaro, zenbate andiyan batuten ez pada, chipizka erriyaren gasturako gor-deteko janarien fabriketarako, zetan bakarrik landuten dabee bik len señalautako zazpiren artian, bereziro La *Activa* derichonak.

Botakorrak artazten dira Berdel, Chicharru, Chimiñoi eta Akuleen arraintzan asken onei deituten deutseela Botakorrak, nundik ontziyak artuten dabee izena.

Bere neurriyak dira:

Luzena 15 onetik 18 ra
Mangia 5 onetik 5 eta erpuru 2 ra
Puntal On 2 tik 2 eta erpuru 2 ra.

Ibilten dira gizon bat edo bigaz, eta eztaukee bela chiki bat baño.

Batelak edo Botiak ontzi chikiyenak dira, aurrenguk legez arteztuak, baña bereziro Chi-miñoiyaren arrantzan gizon bategaz eta bela chiki bategaz.

Bere neurriyak;

Luzeria 13 onetik 16-ra
Mangia 5 onetik 5/1rra.
Puntala On 2-tik 2 eta 5 erpurura

Aingirlaren arralntza

Conger vulgaris Kubier-en gisan, arrainduten da Epailletik Bagillara eta Urilletik Azillera ach tokiyetan. Apariyua 7 garren L.ko leniskusguaren erakua, agiten da 16 brazatik 120

rañoko kordel bategaz, ondua zelan, amaitua benm baten, zeñetik dindiliskatuten dan beste kordel zuri bat, *chanpela* deitua, eta onen amayeran lotuten da amu bat. Leniskusgoko chikiyena usauten da lur-urrian, eta nausiyá ichasbarruragoko tokiyetan.

Erabilten da Legatzarena legez, ordua jota, eta bakidaro gabaz anchobia edo berdela kamatzat daruala

Zenbatuten dira 3.000 arroba inguruan, eta onen baliyua da erdz erria) bi libria; eta preskuan eta eskabichan barruko erriyetara darue.

Uxlaren eta Marrayuaren arraintza

Lixia, *Squalus canícula*, Linneo-ren gisan; arraintzen da bakidaro gabaz eta geldiyán Ustailian, Agorrillian eta Iraillian, ichasbarruan 8 leguako bidastían, 7 garren Lko leniskusgoko apariyuagaz, legatzerakua legez; baña gogorragua eta 5 amugaz goi batzuetan, 600 brazatik 700- erañokua, ondua jorik, ipinten jakonari kamatzat legatz edo atun preskuá

Marrayua, *Squalus cornubicus*, Linneo-gisan, arraintzen oi da apariyu beragaz baña zebata andiyenagua ekarten dabe chalopa nausiyak Legatz eta Bisigu denporan, eta 18 errialian salduten da arrobía barrurako.

Chibiyaren arraintza

Mueta au, *Sepia*, Linneor-ren gisan, enpliauten da Legatzaren karnatatako, eta ontzi chikiyak bakarrik artaztuten dira Epailletik Bagilleraño, singan, 10-garren Lko apariyuagaz, zeñ egiten dan 5 brazatik 8-rañoko kordel mei bategaz, askenez ipinten jakonari berun bat, eta onen azpitik baste chikiyago bat, amaituten dana amu baten edo biyan. Karnatarik obena berdela da.

Sentiduten danian kamatia oratuan egiten daben tira, birauen da ontziya singan apariyua alauten asi zan tokira, a igonik arraizkiro ontziyaren albora ekarri arte, eta an batuten da sala-arduagaz Karnatia jaten ez dabenian, enpliauten da mueta onen emia zeñ gorde oi dabe, alako arrantzan dabilzanak, beruetan bustanetik lotuta, zegaz arra erakartia artazten da.

Balta enpliau oi da II garren Lko apariyua, egiten dana aurrekuaren luzera bardiñeko kordel bategaz, amaitua iru oñeko tanza baten, zeñen askenian dago biganziko beran bat, eta onen aspiya, Botiaren arrantzan adierazotako ichura bardiñeko orratzagaz biribilten da Karnata bage, eta beruna oratu dabela sentiduten danian, goruntz tira egiten jako.

Berdelaren eta Chicharruaren arraintza

Lenenguok arrainduten dira Jorrailletik Irailleraño, eta bigarrenok Epailletik Lotasilleraño, ligor urrunian eta belan.

12 garren Lko leniskusguaren modukua da apariyua, zeñ dan 20 brazatik 24 rañoko zurdakaz egindako kordel bat, amaitua luma chiki bategaz estaldutako amu baten, eta ak serbiduten dau mazitzat edo kamatzat.

Mueta onek Linneo-ren *Scomber scombus-akdira*.

Akuleen arraintza

Mueta au, *Syngnatus acus*, Linneo-ren gisan, portu onetan Botakorra izentaua, arrainduten da Epailletik Bagillerano 13 garren L^o lako zurdazko apariyuagaz, zeñek amaieran darua tanza bat amu bategaz kamalatzat ipiñirik Perloyaren azaleko tira bat. Apariyu au usauten da egunez eta belan.

Gabaz enpliauten da 14 garren Lko leniskusgua arpoi-mueta bat amu zuzen batzuetan amaitua.

Batela duanian erremuan kostatik urrun estrepu bistu bategaz elduten da arraina onen argitasunera, eta ontziyaren urrunian jarién danian, lograuten da apariyua jaurti ezkeró kakuan ardiestia.

Chiminoyaren arraintza

Ohiminoyak, *Soligo vulgaris*, Lamarek-en gisan, arraintzen dira kume denporan edo Bagillian eta Ustaillian, 15-garren Lko zurdazko apariyu 12 brazakuagaz, zeñek askenez daruan tanza bat, irozoteko berunezko bollgaña, ingurutua kolore berzegisko sediagaz edo ariagaz, eta amayeran ipinten dira bollasturik orratzak goranz begira

Ontziya fondiaurik eta fondua esaguturik, kamata bage botaten da apariyua, zeñi chiminoya oratuten jako, bollgañaren koloriakaz ekandurik, apariyuari emon biar jakon gora berako gelditu bageko ibelleria

Urillian eta Zemendillan gorputz andiyagua daukan legez, enpliauten da 16 garren L.º lengua baño lodiyagua.

Langostiaren arralntza

Mueta au, *Palinurus quadricornis*, arrainduten da Bagilletik Irailla arie 17 garren L.ko leniskusgoko otzara bollestuagaz, metro biko marrenlikua eta 60 centimetroko goya, sarraturik beeko albua eta gañerkua zulo biribil bategaz, nundik sartuten dan atserunz edo bustanez eta ez deutsela ichiko urteten arek barrutik daukazala orrats edo punta askatuak. Kamatatzat baliyo dau atunaren buruak, sardina sarrak edo beste edozelako arrañek eta lotuten da barruko onduan, leniskusguan adierazoten dan moduan.

Ipinten da kostatik ozta legua bateko bidastian, 20 brazatik 24 rañoko usiña dagon ondo achezkuan, bakidaro gabaz batuteko biyamoneko goizian.

Barruan ipinten jakoz arri batzuk beeko albua gelditu dedin onduan, eta goikuak daruaz marrardiyaren asken biyetatik kordel bi, lotuten diranak 30 brazako beste irugarren bati eta amayeran daruaz korchozko iru boya chiki gorritz pintaua, batuerako tokiya erasagututeko.

OARRAK

Ziazalduarik dagozan apariyu berzegien soka guztiak, ganbisiten dira Maon-eko (Uribitar-te Balearak) Pinuaren azaleko egosguan, baita bere treneta eta sarak, zeñegaz lograuten dan egitia areek eta onek barrutik bustieziñak eta luzeagotu-eziñak, egoki guztiz ontargariak, bada gichituten deutsee pisua, azkeneko zatiya sentigarriyagua egiñik.

Bisiguaren eta legatzaren denporan, mueta onetara artaztuten diran chalopa berzegiak, arraindu oi ditubez beste batzuk, lenaztak izanik Angina, Marrayua eta Merua; au guztiz estimatua bada arrobiak artuten dau saldudian erdiz 60 errialeko baliyua, eta zenbatu lei 9.000 arroban kanpora daruen mueta oneen pillua.

Lekeitio-n 1883-ko Epaillaren 18-an

Batzarra

Lenen azaletik dalar.

"Enborretik ezpala" dio esaera zaarrak eta... Andoni jatorraren seme gaztea-na da orain bertan Karakas'ko "Euzko-Etxea" dalakoan buru ta arduradun nagusi.

Berrogei urteko erbeste-aldiak, egia esan, erri-miña ez zion itzali, zuzpertz baizik. Eta ala, iru semeak lanean eta bizibidean ongi jarrita zeuzkanez, emaztea il zitzaionean, Euskalerrira itzuli zan gure Andoni.

Baiña ez lo egotera. Txantxetan ere, 1979'ko Iraillaren 8'ko Batzarrean izen-datu zuan Euskerazaintza'k bere idazkari. Zuzen eta txukun aski egin zituan bere lanak. "Illeroko mezularia" deituraz orniturik atera zituan orri batzuk, Euskerazaintza'ren ekintzak ezagutzera emateko asmoz.

Orra ordea, berriz ere Karakas aldera joan bearrean gertatu gure gizona. Lasarte bere jaioterrian zeukan senide bakarra, arreba, i! zitzaionean, bakarrik gelditu zalako. Orrela, 1982'ko Iraillaren azkeneko Batzarrean utzi zuan idazkari-tza. Urrillean lagunarteko otordu bat egiñez agurtu genuan euskerazain eta beste zenbait adiskidek.

Eta oraintsu, berriz, ustekabeko berri garratza: Arozena'tar Andoni il dala Karakas urrutian... Gabonillaren 6'an il zan ain juxtu ere.

Euskerazaintza'k urrengo Batzarraren ondoren eta Deba'ko eliza bikaiñean, Gabonillaren 30'ean, elkarémeza egin zuan Andoni zanaren alde. Eta aldi berean baita Etxeberria'tar Patxi zanaren alde ere, iru egunen alde besterik gabe joan-ak bai-ziran eguzkipetik. Goian bitez betiko zorionean. Urrengo alerako idatziko dugu, J.L., Etxeberria'ri buruzkoa.

Gaztañaga'tar Jesus

AITA PATXI ETXEBERRIA

EUSKERAZAINTZA'koen Urrilla'ko batzarrean, gurekin zan Deba'n. Isil, paketsu, gure jardunak atseginez entzuten.

Aldizkari onetako azken zenbakian argitaratu gendun AATA izeneko bere lan txukun bat. Eta idazten jarraitzeko asmotan, adoretzu, nai ta ia 90 urte lepoan.

Loiola'n artu zun Jainkoaren deia Abendua'ren 9'an. Eta bizirik geiena men-duz mundu misiolari ibili ondoren, bere Euskalerrri bedeinkatutik joan zan betira-ko Aitaren etxera.

Agur, egun aundirarte, Aita Patxi!

MANTEROLA tar GABIREL

Epailla'ren 17'an beteko dira 100 urte Manterola tar Gabirel Bizkai'ko Zeanuri'n jaiotekoa. 1977 il zan, Uztailla'ren 6'an, bere jaioterrian.

Eungarren urte onetan EUSKERAZAINTZA'k eta "EUSKERAZALEAK" ek gogoan euki nai dabe euskal idazle oparotsu izan zan abade a.

"Jaungoiko-Zale", "Ekin", "Argia", "Yakintza", "Karmel", "Olerti", "Redención", "Agur" eta "Euzkadi'n noiz-nai agertzen ziran bere lanak. Ainbat izenorde erabiltzen zitun: "Gama", "Mitargar", "Urigoitia", "Gabirel", "G" eta abar.

Argitaratutako libururik beiñenak:

- 1.—"Jaungoiko Zale" bazkunaren urteroko eleizkizunean egiñiko itzaldia.
- 2.—"Goi-izpiak".

Liburu onetaz "Oxobi" k au idatzi eban Baiona'ko "Gure Herria" n: "Goi-izpiak" bezelako liburu batek erabatsiko dakote bizkaitar eta gipuzkoar umeeri euskuara, Euskattzain buruen mintzaldi eta idazki guziek baino lasterrago.

3.—"Lenengo Euskal Egunetako itzaldia".

4.—"Porziunkula Nekazka".

5.—"Santuen bizitza laburrak".

6.—"Ipiuntxoak".

7.—"Agirre euskeltzale".

8.—"Goi-izparrak".

9.—"Jesu-Kristoren Nekaldia" (Bilbao'ko Coliseo Alban antzeztu ziran 40 irudi).

10.—"Gabonetako Antzerki Jaunkoya". Oneik be Coliseo Alban antzeztuak.

11.—"Gotzai idazkiak. Guda aurretik Mateo Muxika gotzainaren idazki guztiak bizkaieraz. Geroago Morcillo gotzainarenaren lenena ere berak euskeratu eban.

12.—"Irugarren Irakaslea".

13.—"Itzulpenak. Ainbat egin zitun, bai ingelesetik, bai prantzesetik, gazte-lara".

Orrez gain ainbat olerti, kritikalarri baten esanetan, sakon-ariñak, joskera ta neurkera bikaiñez biribilduak.

Zelako idazle izan zan?

Ikus Mikel Zarate'ren iritzia: "Euskal idazle ona da Manterola. Baiña garbikeri giroan bizi izan da-ta, ba ditu garbikeri batzuk bere idazlanetan, gaztetan egin-dakoetan batez bere. Ala ere, neretzat beintzat, atsegiñago nunbait Manterola'ren garbi idaztea gaurko askotxoren mordoillo idaztea baiño".

Argitaratu gabeko lan batzuk be itxi zitun.

(Aita Santi Onaindia'ren "Euskal Literatura V" tik laburtuta.

Omenaldia Zeanuri'n

EPAILLAREN 17'an, euskaldunen esker ona agertuko dautsagu bere jaioterrian egingo dan euskal jai eder baten.